

**miaka**<sup>1</sup>

**STM** | IKERKETA  
KOADERNOAK

San Telmo Museoa

# HARRIZKO AURPEGIAK

MUNDU GALDU  
BATEKO  
BIOGRAFIAK

Ikerketa  
Juan Carlos Mora, Ereiten KZ



# miaka1

IKERKETA KOADERNOAK

Miakaren lehenengo zenbakiarekin San Telmo museoak bere bildumen ezagutzan eta hedapenean sakontzeko baliagarri izango den “Miaka. Ikerketa koadernoak” sortari hasiera emango dio.

Miaka abian jartzearekin batera, museoak ikerketa eta bere bilduma hedatzeko bide berri bat jartzen du martxan eta formatu digitalean egiten du, ezagutzarako sarbide librearen aldeko apustua eginez. “Miaka. Ikerketa koadernoak”, adituentzat tresna bat izatez gain, publiko orokorrari iristeko asmoarekin ere sortu dira. Euskaraz eta gaztelera editatuko dira eta museoko web gunean kontsultatu ahalko dira.

Lehenengo ale honek “Harrizko aurpegiak: Mundu galdu bateko biografiak” du izena eta EREITEN KZ-ko Juan Carlos Mora historiagileak eginiko ikerketa da. Lanak San Telmo Museoko bilduma osatzen duten 133 oroitarren artean dauden zortzi pertsonaien biografiatan sakontzen du, lehendik egindako bilduma osoari buruzko ikerketa orokor baten ondoren. Harlauzetan agertzen diren izen batzuek sortzen zuten interesa zela eta, museoak enkargu hau egiteko erabakia hartu zuen eta emaitza irauteko asmoa duen lehen argitalpen hau dugu.

## STM

### San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)  
@santelmomuseo




# HARRIZKO AURPEGIAK

## MUNDU GALDU BATEKO BIOGRAFIAK

Ikerketa  
Juan Carlos Mora, Ereiten KZ

SARRERA	4
ITURRI DOKUMENTALAK	7
DONOSTIA HURBILETIK	8
Bernardo de Aguirre kapitaina	12
Joan Perez de Aguirre kapitaina	24
Joan de Arbelaz	34
Joseph de Carrion	48
Juan Martínez de Guarnizo kapitaina	52
Bernarda de Goicoechea	58
Joan Domingo de Oiza	60
Juan Antonio de Zabaleta kapitaina	68



San Telmo Museoa utzitako zenbait hilarri ikusgai jartzeak aukera ematen digu bertan inskribatutako zenbait pertsonaren ezagutzan sakontzeko; 8 lagun dira, hain zuzen ere, Museoko arduradunek hautatuak historiografiaren eta museistikaren aldetik duten interesagatik.


Lan hau aurreko beste batekin dago zorretan, 2009ko maiatzean aurkeztutako lan batekin, zeinean Aranzadi Zientzia Elkarrekin San Telmo Museoarekin zerikusia duten hilarrien dokumentazioa eta transkripzioa egin baitzuen. 133 piezak osatutako multzo batetik, 77 antroponimo berreraikitzea lortu zen, eta horietatik 21i buruzko informazioa berreskuratzea; horietatik, berriz, 14k baizik ez zituzten datuak eman bertan inskribatutako pertsonen testuinguru ekonomiko eta sozial balizko bati buruz.

Hain zuzen ere, hasieran aipaturiko 8 hilarriak direla-eta, horien jabeen historian murgiltzeari ekin diogu. Are gehiago, hasiera batean hilarri bateko izena osatu ezin izan bazen ere (13. zolarria, Juan Martinez Gua... kapitaina), azkenean identifikatu ahal izan da.


Esan dezakegu balantzea ona izan dela. Kasu guztietan lortu da aurrera egitea donostiar haien intrahistorian. Txosten hartan, susmo bat adierazten zen, XVII. eta XVIII. mendeetako Donostiako gizartearen goialdean kokatzen zirela norbanako haiek; bada, orain berretsi egin da susmo hura. Gainera, dokumentazioak haien jarduera, ekintza eta arazoez egiten duen deskribapenari esker, Donostia modernoaren bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta are erlijiosoaren hainbat alderdi berreraiki ahal izan ditugu. Itsasora begira bizi zen hiri hura, bai, baina hinterland-eko baserriek hiritarren

ekonomia osatzen zuten hein handi batean; hartara, lausotuta geratzen da harresiz kanpoko eta barneko bizimoduaren artean egiten den bereizketa; izan ere, askotan barruko eta kanpoko herritarrak berberak dira, eta, beraz, bada interes-batasun bat.

Hain zuzen ere, eskribauengana jotzen zuen edo dokumentazio instituzionalean agertzen den gizarte-atala hierarkiaren goialdekoa izateari zor zaio artxiboek pertsonaia horiei buruz informazioa izatea. Eta alde horretatik, harriztekoa badirudi ere, dokumentazio gehiago gorde da Donostiar buruz Aro Modernoaren lehen mendeetako (XVI eta XVII), hurrengo mendekoa baino. Hiria beraren jarduerengatik eta kemenagatik da hori horrela, eta bertakoek Erresumako eta Europako beste gorputz batzuekin zituzten loturengatik; XVII. mendeak aurrera



# SARRERA



| Donostiako plano. XVII. mendea. STM.  
Argazkia: Beltz argazki ekoizpenak

egin ahala, ekonomia aldatuz eta nekazaritzarekin gehiago lotuz joan zen, gehiago jarri zen Penintsulari begira. Dena den, izan ziren zenbait ekinbide, hala nola merkataritza-konpainiak sortzea, ekonomiaren atonia egoera hari buelta emateko.

Guk aztertu ditugun norbanakoak errealitate horren baitan bizi dira. Askoz sakonago berreraiki ahal izan ditugu Modernitatearen lehen bi mendeetan bizi izan zirenak, XVIII. mendean bizi izan zirenak baino. Azken horiek lehenak baino maila apalagokoak izatea izan liteke arrazoi bat batzuen eta besteen datuen artean hain alde nabarmena egoteko.

Ikus dezagun nor ziren pertsonaiok, alfabetoaren hurrenkeraz:

**Bernardo de Aguirre kapitaina** XVII. mendea

**Joan Perez de Aguirre kapitaina** XVI-XVII. mendeak

**Joan de Arbelaiz** XVI-XVII mendeak

**Joseph de Carrion** XVIII. mendea

**Bernarda de Goicoechea** XVIII. mendea

**Juan Martínez de Guarnizo** XVII. mendea

**Joan Domingo de Oiza** XVII. mendea

**Juan Antonio de Zabaleta kapitaina** XVIII. mendea

Concurrençia de Transaccion Con-  
raduça, diuision, particion y aplicacion  
y liquidacion de quantas porçada y  
requisita por los Apoderados de D. Maria  
Joseph de Alraga, vna ácaña de la de  
Argemia viuda y heredera de D. Manuel  
de Aguilar, y D. Joseph de Texon viudo  
de la Ciudad de S. Sebastian viudo y here-  
dero de D. Manuel de Alraga hermana de  
que fue de D. M. Joseph y ambas hijas  
de D. Manuel de Alraga y D. Barbara  
de Aguirre y su mujer

# ITURRI DOKUMENTALAK

Azterketa hau egiteko, honako artxibategi hauek kontsultatu ditugu:

- Donostiako Udal Agiritegia
- Hondarribiko Udal Artxiboa
- Gipuzkoako Artxibo Orokorra
- Koldo Mitxelena Kulturunea  
Funts Gordeen Saila
- Loiolako Santutegiko Artxibo  
Historikoa
- Simancasko Artxibo Orokorra
- Valladolideko Errege Kantzelaritzako  
Artxiboa
- Historiako Errege Akademiako  
Artxiboa
- Artxibo Historiko Nazionala
- Untzi Museoko Artxiboa (Madril)
- Indietako Artxibo Nagusia

Ez gara luzatuko artxibo bakoitzean kontsultatu ditugun funtsei buruz, aurrerago emango baita sailen berri, datuak lan honetan zehar agertu ahala.

Bestalde, hona hemen kontsultaturiko liburuen zerrenda:

- **Miguel ARTOLA** (ed.)  
Historia de Donostia-San Sebastián.  
Donostia: Ed. Nerea, 2000
- **José Antonio AZPIAZU**  
Sociedad y vida social vasca en el  
siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos.  
Donostia: Ed. Tarttalo, 1990
- **José Antonio AZPIAZU**  
1813. Crónicas donostiaras.  
Destrucción y reconstrucción de la  
ciudad. Donostia. Tarttalo, 2013
- **Luis Mari BILBAO**  
"Crisis y reconstrucción de la  
economía vascongada en el siglo XVII",  
en Saioak I, 1977.
- *Boletín de Estudios Históricos sobre San  
Sebastián*. Obra del Grupo Doctor  
Camino. Varios números.
- *Colección de documentos históricos del  
Archivo Municipal de la M.N. y M.L.  
ciudad de San Sebastián* (años 1200-  
1813). San Sebastián, 1895.
- **J.A. DEL CAMINO Y ORELLA**  
Historia civil-diplomática-eclésiástica  
anciana y moderna de la ciudad  
de San Sebastián. San Sebastián:  
Ayuntamiento, 1963.
- **Pablo FERNANDEZ ALBALADEJO**  
La crisis del Antiguo Régimen en  
Guipúzcoa, 1766-1833: cambio  
económico e historia.  
Madrid: Akal editoria, 1975
- **S. HUXLEY** (coord.)  
Itsasoa 3. Los vascos en el marco  
Atlántico Norte. Siglos XVI y XVII.  
Donostia: 1987.
- **R. INZAGARAY**  
Historia eclesiástica de San Sebastián.  
San Sebastián, 1951.
- **I. PEREZ-ARREGUI**  
Historia de San Sebastián.  
Donostia: C.A.M., 1966

# DONOSTIA HURBILETIK AMAIERARIK GABEKO MUNDU BAT

Pertsonaia hauen bizipenetan ageri diren gaiak dagokienez, gainbegiratu arin batek aukera ematen du lan honetan agertuko diren ekintzak beren testuinguruan jartzeko, eta marko egokia eskaintzen du begien aurrean agertuko zaizkigun zenbait auzi ulertzeko. Hasi Donostia herri zenean eta gero hiri bihurtutakoan izandako jardunbideetatik, eta urrutirainoko arrantzaldietaraino, gizaki haien unibertsoak kontraesan agerikorik gabe batzen zituen hemen parte hartzea eta Donostia garai hartako lekurik dinamikoekin harremanetan jartzen zuten negozio eta loturak izatea.

Baina, bestetik, komeni da nabarmentzea pertsonaia horietako batzuk esparru jakin batzuetan izatearen garrantzia; esate baterako, Donostiako udalbatzan edo Gipuzkoako Batzar Nagusietan; izan ere, instituzio horietan izandako parte hartzetik munta handiko ondorioak atera daitezke gizartearen zuten posizioak jabetzeko. Alde horretatik, zenbait kargu izateak —alkate, errejidore, zinpeko nagusi, maiordomo edo aldun nagusi— erakusten digu Donostiako gailenen artekoak zirela **Baldintza pertsonal** batzuk betetzen zituztenek baizik ez zuten hiritarrak eta bertan bizi zirenak ordezkatzeko pribilejioa. Talde hura ez zuten osatzen Donostiako herritarren % 2k baino gehiagok. Haiak osatzen zuten hautesleen gorputza, eta haien artean hautatzen zen kasuan kasuko urteko udalbatza osatuko zutenak. Horretarako, baldintza batzuk bete behar ziren: gizonezkoa izatea, higiezin kopuru jakin bat edukitzea berme gisa enplegu publikoa gaizki betez gero, irakurtzen eta idazten jakitea, pertsona egokia izatea, kaparea, gaztelaniaz jakitea eta ezkontuta egotea.

Kaleka zentsatuta zeuden; hauteskunde-eguna iristen zenean, herritarraren izena idazten zen papertxo batean, zortzi hautesle ateratzen ziren zotzetara, eta haiak udalbatzako zein postu beteko zuten ere zotzetara egiten zen. Hautatutakoek udal berria osatzen zuten, eta haien zegoen Donostia gobernatzea eta goragoko organoetan hiriaren ordezkari izatea; esate baterako, Batzar Nagusietan, non Probintzia osatzen zuten herriak biltzen baitziren. Batzar haietara joateko, udalak berak izendatzen zituen bere ordezkariak, eta haien artean aurkituko ditugu gure pertsonaia batzuk.





| Eugenio Azkue.  
*Armas de Gipuzkoa*. 1854.  
Olio pintura. STM

| Tadeo Carlone.  
*Los fundadores: Alonso de  
Idiaquez y Gracia de Olazabal*.  
XVI. mendea. STM



Batzar Nagusietan zetzan Gipuzkoaren botere betearazlea, legegilea eta judiziala, eta haiek ziren gure lurraldeko botere-organo nagusia. Batzarrak bilduta ez zeuden aldietan, norbanako batzuei Foru Aldundia eratzeko mandatua ematen zitzaien, eta instituzio horri zegokion aurreko Batzarrak emandako xedapenak betetzea. Aldun Nagusia zen erakundearen buru, eta haren agintaldiak hurrengo Batzarra arte irauten zuen. Hala, hor ikusiko ditugu gure pertsoniak herrien arteko zergabanaketa fiskalizatzen, Probintziarentzako hornidurak bermatu nahian eskasia aldietan, edo soldaduak errekrutatzen eta foru-miliziak armatzen lurraldea defendatzeko, gerra-egoerak hala eskatzen zuenean. Eta herrien kasuan gertatzen zen bezalaxe, batzarkide izateko gutxienezko errenta baten jabe izan behar zen, ordeztu zen herrikoa izan, odol garbi segurtatu eta frogatukoa, hau da, kaparea, eta, beraz, batzuetan frogatu egin behar izaten zen hori. Horrez gainera, gaztelaniaz hitz egitea eta idaztea eskatzen zitzaien, huraxe baitzen administrazioaren hizkuntza. Apaizak, berriz, Batzar Nagusietatik kanpo geratzen ziren.

Buruzagi talde hark **ezkontza-politikaren** bitartez sendotzen zuen bere klase-izaera. Ezbairik gabe, eliteen negozioek eta gizarte-posizioak familia zuten oinarri, eta ezkontza-politika izan zen ekonomiari eta hirian zuten posizioari eusteko zutabeetako bat. Nabaria da ezkontza-aliantez eta negozio komunaren artean zegoen lotura estua. Maiz izaten ziren aitaginarrak eta suhiak, osabak eta ilobak osatutako elkarteak. Eta aliantez haiek beste ahaide eta senide batzuekengana luzatzen ziren, are lagun eta herrikideengana ere bai.

Konfiantza zen, hain zuzen ere, merkataritzako eragiketarako eratzeko faktore nagusia. Ehunka eta milaka kilometrora zeuden negozioak eta jarduerak lagun, herrikide eta senideen eskuetan utzita baino ezin ziren bermatu. Hartara, negozioek eta interes komunaren defentsak sendotu egiten zituzten buru zen klasearen arteko harremanak, eta are gehiago indartzen ziren seme-alaben arteko ezkontzen bidez.

Pertsonaia haietako batzuk garaikide izan ziren, eta ez da dudarik harremanak zizutela beren artean eta familiek familiekin, halaxe frogatzen baitu dokumentazioak berak.

Beraz, eliteen hegemoniak ekonomia eta familien arteko aliantez zituen oinarri, horiek ematen zieten posizio bat hirian buru zen taldearen baitan. Boterea, ikusi dugunez, bermatu zen beste oinarri eta bitarteko batzuetan ere: udaleko, probintziako eta eliz karguen kontrolean. Gortean bertan ere, huraxe baitzen probintzietako prebendak eta karguak banatzeko erdigune zinezkoa, segi dakioke norbanako haien kontaktuen arrastoari; ez zuten zalantzarik izaten errege goi-administrazioan zeuden donostiar eta gipuzkoarregana jotzeko (Domingo Etxeberri, Martín eta Antonio Arostegi, Juan Insausti, Alonso Idiakez —Ciudad Realeko Dukea—...) mesede eta laguntza eske. Pertsonaia haiekiko harremanak izateak esan nahi zuen, XVII. mendearen lehen erdian, mundu-mailako botere dominatzailearen engranajearen parte hartzen zela.




Ezaugarri arrunta da auzitegiko bidea hartzea familia-ondasunen partizioan desadostasunak izaten zirenean. **Gizarte auzizalea** dugu aurrean, batez ere XVII. mendekoa; han ez zen zalantzarik izaten seme-alabak, gurasoak, anai-arrebak eta beste senide batzuk salatzeako, ondasunak bidegabe banatu zirela jotzen zenean. Orobat, ondare handia utzi zuten pertsonaia batzuen aurrean gaude. Oinordeko bakarraren formulak ez zituen beti konpontzen eztabaida haiek; izan ere, bigarren ezkontzak, ezkontzak kanpoko seme-alabak eta abar zirenean, auzitan jar zitekeen indarrean zegoen legeria. Eta halaxe gertatu zen.

Esan daiteke **ekonomia dibertsifikatua** zela hura. Donostiar haiek negozio-gizonak ziren; parte hartzen zuten, aldi berean edo hurrenez hurren, Ternuako arrantzan, itsasontzigintzan, itsas merkataritzako lehia gogorrean eta Sevilla eta Amerikarekiko merkataritzan, eta hala jardutearekin batera, ez gutxitan, erregeren zerbitzupeko karguak izaten zituzten beren negozioen gizontzeko, edo ondasun higiezinetan, juro eta zentsuetan inbertitzen zuten, oinordekotzak fundatzen eta ordena militarrek eskuratzen zituzten beren gizarte-posizioa indartzeko.

**Itsasoarekiko lotura** hainbat eratan nabari da. Ez diogu ezer berririk Ternuarako bidaiak aipatzen baditugu; aldi gorena izan zuten 1540az geroztiko urteetan; balea-haragiaren eta bakailao bila egindako espedizioak ziren, eta XIX. mendera arte iraun zuten.

Jarduera horrek sortu zuen arrantza-ekonomiak kapital, gizon eta itsasontzi asko mugiarazten zituen, eta, irabazi handiak ematen bazituen ere, batzuetan galera eta istiluen sortzaile ere izaten zen.

Ternuako arrantzarako, itsasontzi handiagoak behar ziren, urrunagorako eta iraupen luzeagoko espedizioak, gizon eta armazoi gehiago, finantzatze handia eta produktuak merkaturatzera begirako eraldatze-jarduera batzuk. Eskala ia industrial horrek kontuak zorrotz kontrolatzea eskatzen zuen, eta akasgabe antolatutako intendentzia. Baina espedizioak antolatzea talde baten esku zegoen: itsasontzien jabeak, finantzariak



| Anonimo. Grabatuaren xehetasuna VR° de la Milagrosa ymagen de Na. Sa. de Arrate. XVIII. mendea. STM

eta kapitain armadoreak; horien artekoak ziren gure pertsonaia batzuk, ikusiko dugunez. Itzultakoan, produktuari irtenbidea emateak arrantza bera bezain garrantzitsuak ziren mekanismoak eskatzen zituen. Denda eta biltegiak ere pertsonaia haiek kudeatzen zituzten.

Beste alderdi batzuk, hala nola Andaluziarekiko merkataritza, euskal burdina saltzen baitzen, eta itsasontziak zamatuta itzultzea Donostiako portura, izan zituzten kontuan; eta horiek oso beste gizarte-alderdi aipagarri batzuk azaleratzen dizkigute, merkataritza bera bezain aipagarriak.

Beste egitate bat ere erakusten du dokumentazioak, nagusiek elizan eta ekintza publikoetan jaso ohi zuten berezitasun-adierazpena; horrek laguntzen zuen hiriko gorputz politikoan zuten nagusigoa irudikatzen, gorputz horrek hierarkia- eta lehenetsun-erritualen bidez adierazten baitzuen bere burua, Erregimen Zaharraren balio aristokratikoen testuinguruan. Gizon handi, itzaltsu eta ongile gisa agertu beharra izateaz gainera, herritarrentzako festak antolatzen eta ordaintzen ziren udalbatzaren edo partikular batzuen diruei esker; elikagaiak banatzen ziren, dena ardoz ondo bustita, dantza eta xexekoak ateratzen ziren kalera; jaiok esker, populazioa bere santu eta heroien itzalpean biltzen zen, erkidego-sentimenduak indartzen ziren, dignitate eta ongileak denen buru zirela.

Baina ordena horri mehatxu egiten zioten batzuetan liskarrek eta gatazkek. Kontsultatu ditugun auzien artean, **gatazka-giro halako bat** sumatzen da, gehienetan indar gutxikoa izanik bideratzen dena, erakutsiz, hala ere, hirian nagusi izan nahi zuten fakzioen arteko enfrontamenduak; dena den, inoiz edo behin, gizarte-disfuntzio hori bere indar osoan ageri da. Halaxe gertatu zen jesulagunen fundazioaren inguruko gatazkaren kasuan, 1619 eta 1627 artean. Hona hemen gorabehera haiek ezaugarriak: ordenen arteko norgehiagoka, prebenda-banaketaren oreka hauskorra, botere-zirkuluen arteko loturak, instituzioak eta justizia lehiakideak baztertzeko erabiltzea, bai eta elizgizonen gizartean zuten eragina ere: horiek guztiak adierazten ditu Juan Arbelaitzek gatazka haren inguruan hartu zuen jarrerak, eta aberastu egiten du horri buruz orain artean genekiena.

Haren hitzak interpretatu ahal izateko, laburtu dezagun gertaera haren parterik esanguratsuena<sup>(1)</sup>. Jesulagunak Donostian kokatzea udalaren ekimenez egin zen. Udalgizon batzuek 1619an Konpainiari Santa Anako basilikan egoitza hartzea eskaini ziotenean sortu zen, haurrentzako eskola batez arduratzeko, besteak beste. Kontrakarra hiriko elizgizonengandik etorri zen batez ere, klero sekularraren sektore batzuetatik eta lehendik zeuden ordenetatik gehienbat, fundazio berriak egingo ziren lehiaren beldur baitziren.

1. Jose María IMIZCOZ: "Hacia nuevos horizontes: 1516-1700", in Miguel ARTOLA (ed.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia: Ed. Nerea, 2000 (164-166).

Lehen jesulagunak 1619an bazetozela jakin zutenean, elizgizon batzuk etxez etxe joan ziren, jendea gau eta egun asaldaturaz, eta gazte talde batek Santa Anako etxea zuten, jesulagunei han bizitzen jartzea galarazteko. Aurkakotasun hura eta guzti, soldaduek Santa Anako atea bota eta bertan ziren gazteak atera zituzten, eta jesulagunak etxeaz jabetu ziren, meza eman eta kanpaiak jo zituzten. Baina horren ondotik, marinelen motin bat izan zen, zergatik eta jesulagunek etxeen alokairua igoaraziko zutelako zurrumurruagatik. Lehen erretiraldiaren ondoren, jesulagunak misiolari gisa etorri ziren, domingotarrak eta elizgizon gehienak kontra zituzten arren.

1620tik aurrera izan ziren korporazioetan, fundazioarekiko abegi ona eta kontrako jarrera txandakatu ziren. Zenbait kanporatze eta itzultzeren ondoren, 1626an berriro etorri eta hiriko etxe batean jarri ziren bizitzen, kontrako jarrerak atertu gabe hala ere. Azaroan, Martin Arano Balenzegi, Itsas Armaden hornitzailea eta frantziskotar jaiersua, elizgizonek xaxaturik portura joan zen erregearen itsasontzietako marinelen bila, eta hala, 500 gizon armatu alkate eta errejidoreen bila hasi ziren, jesulagunen alde baitzeuden, irainka eta mehatxuka. Udalbatza berezi bat egin zen, eta 200 botu baino gehiago eman ziren kanporatzearen alde; hala ere, badirudi gehienak marinela kanpotarrak zirela. Iskanbila hura Santa Mariara abiatu zen, eta han gazteak harrika hasi ziren Konpainiaren etxearen kontra, eta bi elizgizonek zurezko habeak eskaintzen zituzten atea botatzeko; bestetik, jesulagunen aldeko herritarrek harriak jaurtitzen zizkieten balkoietatik asaldariei. Azkenik, 1627an, Nafarroako erregeordeak jesulagunen kanporatzea agindu zuen.

Gorrotto-giro hura oso ondo dago islatuta, ikusiko dugunez, Juan Arbelaitzen testamentu-zuzemenetan.

Beraz, utz dezagun honetan kontsultaturiko dokumentazioan datozen auzirik garrantzitsuenen aurrerapena, eta ikus dezagun zer dioskuten pertsonaia hauek.

| Aitor Egibar. Erdi Aroko kale baten maketa. STM.  
Argazkia: Maier Etxebeste





# Bernardo de Aguirre kapitaina

Donostia, 1600 ing.-1674

Berriki, azterketatxo bat agertu da Bernardo Agirre kapitainaren bizitzari buruz. Adibide ona da harena, Donostiak 181an jasandako sute eta suntsipenaz aurretik zuen merkataritza-ahala pertsonifikatzeko<sup>(1)</sup>. Gu ikuspegi hori osatzen saiatuko gara, datu batzuk emanez Agirre orrialde horietan esleitzen zaion merkataritza-jardueraz harago kokatu ahal izateko.

Iraganari buruzko edozein ikerketak hainbat arazori egin behar die aurre; nagusietako bat, dokumentaziorik ezaz gainera, familian behin eta berriz izen bereko pertsonak agertzea da. Beharbada horrexegatik dio J. M. Sadak *Historia de la ciudad a través de sus personajes* liburuan ezen Bernardo Agirre kapitaina joan zela 1.500 herritarrek osatutako eskudroi baten buru, denak ere jantzi dotorez eta

1. José Antonio AZPIAZU: 1813. *Crónicas donostiaras. Destrucción y reconstrucción de la ciudad*. Donostia. Tarttalo, 2013 (60-65).

apaingarriz irten zirenean Felipe IV.ari eta Maria Teresa Austriakoa infantari ongi etorria egitera <sup>(2)</sup>.

Hori inola ere ez da horrela. Sadak Agirre kapitainaren ohorezko goratzetaz jotzen duen urte hartantxe munduratu zen kapitain izango zena. Pedro Agirre eta Maria Perez Santiagoren semea zen; aita zinpeko nagusi izango zen Donostiako udalbatza batean handi bi urtera (1602), eta ama hiriko familia lehenenetako batekoa zen, Santiago familiakoa. Ikusten dugunez, abiarako sendoak zituen gerora egingo zuen bideak; izan ere, aita merkataria zuen eta Donostiako gizartearen puntakoenekin zituen harremanak; besteak beste, Bernardo Agirrereren aitagarreba izango zenarekin: Pedo Cardel Eguskitzza, errejidore eta zinpekoa zenbait aldiz udalean, eta merkataria-dinastia garrantzitsu bateko kide bera ere.

Ezer ez zen ondo lotu gabe uzten mundu hartan, non familien ahalaren neurria senide-kopuruak ematen baitzuen, eta edozein negozio martxan jartzeko mugiaraz zitzaizketen harremanen sareak. Okendo, Beroiz, Arriola, Arostegi, Santiago, Amezketa eta maila horretako beste abizen batzuekin zituen harremanak bertako gobernu-arazoetan edo merkataritza-kontuetan eta militarretan, Donostiako boterearen erdi-erdian kokatzen dute Agirre familia.

Ez dugu 1630. urtea baino lehenagoko daturik Bernardo Agirrereri buruz; soilik, aitaren eta amaren familiak Donostiako botere-organoetan ageri direla.

Azpiazuk aipaturiko lanean Agirre kapitaina definitzeko darabiltzan hitzak aldatuko ditugu hona: “kapitaina,

merkataria, Ternuako arrantzalekuen sustatzailea, harreman estuak izan zituen Europako negozio-gizonekin, eta hainbat etxe eta baserriren jabe bihurtu zen, oreka osoa izanez itsas interesen eta lehorrekoen artean”. Geroago ikusiko dugu nola zertu ziren interes batzuk eta besteak.

32 urtetan ezkondu zen lehen aldiz <sup>(3)</sup>. Aurrez esan bezala, ezkontzeak, besteak beste, bi familia lotzea edo lehendik zeuden loturak indartzea

3. AGG-GAO. CO MCI 2391, AGG-GAO. CO MCI 2508.



| Anonimo. Don Miguel de Oquendo y Molina. Olio pintura. STM

2. J.M. SADA: *Historia de la ciudad de San Sebastián a través de sus personajes*. Donostia; Alberdania, 2007. Bernardo Agirre kapitainari eskainitako atalean, Sadak gehitzen du ezen halako atseginez hartu zuela erregeak harrera hura, non izen ezezaguneko ordena baten jantzia eman ziola Agirrereri; gehitzen du, halaber, Frantzisko Oreindain zuela lagun alkatetzan. Egia esan, urte hartan Antonio Okendo kapitaina eta Luis Guarnizo ziren Donostiako alkateak; bigarren hori gure pertsonaietako baten aita, hain zuzen: Juan Martínez Guarnizorena. Ikus J. L. BANUS Y AGUIRRE: “Alcaldes y captulares de San Sebastián”, in *B.E.H.S.S.*, 9. zk.. Donostia, C.A.M., 1975 (29).

esan nahi zuen. Maiz, bi gazteren arteko ezkontza (edo ez hain gazteren artekoa, Bernardo Agirrek 32 urte baititu ezkontzean) senide eta lagun arteko tratu luze sakonek amaieraren ondorio izaten zen; alde batekoek eta besteek ondo neurtzen zuten zer zekarten ezkontzara ondasun ukigarritan eta kontu ukiezinetan, hala nola Gorteko administrazioko pertsonaia jakin batzuegana iristeko bidea, merkataritza-faktoreak Sevilla, Cadiz edo Indietako portuetan, eta gisa horretako azuetan.

Bernardo Agirreren izenean, anaiak, Martin Agirre apaizak jardun zuen ezkontza-kontratuan; elizgizona zen aldetik, bide ematen zion Agirre familiari garaiko beste boteregune batean egoteko, Elizan. Gurasoak hilda zeuden ordurako. Emaztegaiaren izenean, berriz, Pedro Cardel Eguskitza eta haren emazte Katalina Etxabe, bien alaba Isabel Cardelekin batera.

Alde bakoitzak jarritako doteak erakusten digu Hala, Bernardo Agirrek bere ondasun aitortu zituen "la casa principal en que vive en la calle del Poiuelo" zeina hiru mila dukatetan baliatzen baitu. Ondasun higiezinak, ordea, are handiagoak dira; izan ere, 1.800 arbolako sagasti bat ere aitortzen du, etxe bat eta dolarre berriak Juanindegiko erroten gainean (Loiolan), eta etxetxo bat portuan, guztira beste 3.000 dukaten balioa. Lurretan inbertitzeko arrazoia sagastietako sagardoa salduta ateratzen zen irabazia zen. Etxe ere etekin ekonomiko ematen zuten alokairua zela medio; halaxe ezkontzara dakarrena, kale Nagusian, bi mila dukat balio duena, edo kai aurrean duen etxola, mila dukatetan erositako eta urtean 52 dukateko errenta ematen zuena.

Horrez gainera, hainbat baratze gehitzen dizkio ezkonsariari, 16 abelburu Lasarten larratzen zeuzkanak, etxe bat Esnategi kalean, eta, bere negozioen eta itsas harrapakinen emaitza, mila erreale zilarrezko, Antonio Berroiz donostiar ahaltsuak zor

zizkionak, eta 500 bala artilleriakoak, "que quedaron resto de una presa que balen mil reales, poco mas o menos". Beraz, ekonomia hark merkataritza eta itsas harrapakinetan zuen partea, inbertsioetan, lurra eta ondasun higiezinak ematen dituzten interesetan, eta abereetan.

Bernardoren kapitala handitzeak leinu osoari zekarkion onura. Hala ulertu behar da nola Martin Agirre anaia aipatuak ematen dizkion, "por el amor que tiene al dicho Bernardo de Aguirre ( ) de las legitimas paterna y materna y de la accion que podia tener y pertenezzerle a la herencia de doña Cathalina Pérez de Aguirre, su hermana difunta", urteko 30 dukateko errenta baten truke, guztira 600 dukat osatu arte.

Pedro Cardelek eta emazteak, berriz, 2.500 dukat ematen dizkio alabari ezkonsari gisa. Ezkonsari txikiagoa izanik ere, dirua izatea oso zen baliotsua. Horri esker, eskura eros zitezkeen gauzak, merkataritza-eragiketarako finantza zitezkeen, ondasun higiezinak erosi edo zorrak kitatu.

Gizarte-posizio pribilejiozko hori dago Donostiako herriak 1635eko azaroan Debako Batzar Nagusietan egindako proposamena, Juan Lopez Argos Aranburu eta Bernardo Agirre kapitaina lehen txandako aterazteen endore izan zitezen (legeek eta pragmatikek erresumatik ateratzea debekatutako gauzak atera ez zitezen begiratu behar zuen epailea). Proposamen hura onartu egin zen, eta zotzetara egin eta Agirre atera zen alkate, eta haraen teniente Juan Lopez Argos.

Kargua ondo betetzen zelako bermagarri, fidatzaileak eman beharra zegoen, eta Migel Arostegi, Kristobal Galarza, Bernardo Arteaga eta Juan Eguskitza izendatu ziren.

Egikizun horren truke 60 dukat jasotzeko argitzen du zein izan zen eginkizun hori: besteak beste, lrungo eta barruti hartako baserriak ikuskatzea kontrabandoko produktuen bila, eta beste lan batzuk, hala nola gutun bat

bidaltzea Probintziari, kontatuz nola Agramonteko Kondearen aginduz Hendaian zeuden karabineroek ez zuten utzi nahi saka-alkatearen gabarra Hendaiara hurbiltzea, eta horregatik ezin zirela pasatu. Orobat, Hondarribikoek jendea pasatzen zutela Hendaiara txalupetan baimenik gabe. Probintziak informazio horiek behar zituen bere aribiderako, eta konfiantzazko pertsonak behar ziren eginkizuna betetzeko.

1630eko hamarraldiaren hondar aldera, pertsonaia publiko ezaguna zen. 1639an, lehen ezkontzatik alargundu eta gero, berriro ezkondu zen, Isabel Illarradirekin hain zuten, Antonio Illarradi eta haren lehen emazte Frantziska Zubiaurreren alabarekin<sup>(4)</sup>.

Berriz ere, Bernardo Agirre kapitainak dirutan jaso zuen ezkonsari gehiena. Oraingoan, 2.200 dukat; horietatik 1.600 urtebeteren buruan, eta beste guztia ohe, mahai-zapi eta arropa zuri, zilar landu, pitxer, portzelana, koilara, guraize, ehun eta arropa-hornitan, eta hilobi bat eta emakume-erlekua San Bizenteko elizan, emaztegaiaren ama Frantziska Zubiaurrerena izandakoa. Ezkonsari hori amaren aldetik oinordekotzan zegokion Isabel Illarradiri. Irudika ditzakegu Bernardo Agirre eta senideak hilabete batzuk lehenago, emaztegai egoki baten bila, informazio bilduz jaso beharreko ezkonsariaren inguruko zer-nolakoez, eta trukean bere gizarte-posizio pribilejiozkoa eta lehen ezkontzara eramandakoaren pareko ezkonsaria, zenbait hobekuntza eta erosketa gehituta.

Orain gehitzen dira: 500 dukat zilar landutan eta 600 dukat oihal, mihise eta arropa zuritan; baina nabarmentzekoa, batez ere, " el valor del navío nombrado señor Juan Bautista<sup>IV</sup>", zeinean Esteban Iribarren baitzen maestre, Donostian bizi zena, eta Ternuara abiatua ontzia zilar bikoiztuko 69.000 errealetan tresnatuta; Agirreri heren bat

4. AGG-GAO, CO MCI 2391, AGG-GAO, CO MCI 2508.

zegokion,” y para ello se lo tiene sacados a interés a Juan López de Hianzia Yrigoién, corriendo él a riesgo 300 ducados<sup>V</sup>”.

Horri bere alde zituen merkataritzako beste kontu batzuk gehitu beharko litzaizkioke. Esate baterako, Samuel Enis merkataria ingelesak, kontuak atera ondoren, 2.500 erreal zilarrezko zor zizkion, eta gainera honako hauek zeuzkan: “267 correogles (cueros) curtidos que costaron en Bilbao 5.800 reales en dinero de plata<sup>VI</sup>”. Edo Juanes Arretxe eta Juanes Penoia ziburutarrek zor ziotena (1.500 erreal), “tantos dados a interes sobre sus navios para Terranova antes de guerra<sup>VII</sup>”.

Dirutza haiek 13.957 dukat osatzen zuten guztira, benetan kontuan hartzeko moduko kopurua. Zorren zutabean, ordea, Bernardok merkataritzan egindako zenbait zor zituen. Horrek argitan jartzen du zein mugikorra zen kapitala eta zernolako harreman-sareak lotzen zituen elkarrekin merkataria. Hona hemen zorrok: 1.500 dukat San Bartolomeko komentuari zentsutan, beste 400 dukat Hernaniko komentuari zentsutan, 200 dukat Maria Grezi, beste 200 Bernardo Zubitola jaunaren oinordekoei, 150 dukat Santa Maria elizari, 50 dukat Loperdiren alargunari, 100 dukat hiriko eliz kabildoari oroimenezko meza batengatik, 200 dukat Antonio Bidarte donostiarrari, eta 4.125 erreal Nicolas Pinceau flamendar merkataritari; guztira, 4.125 dukat. Oso kontuan hartzeko moduko kopurua hori ere, eta horrela ulertzen da ezkonsari bat dirutan hartzeko premia, zorren parte bat kitatzeko.

Agirreraren jarduera aintzat hartzen zuten garaikideek. 1643an, Donostiako alkate hautatu zuten Martin Urnietarekin batera; Gipuzkoako aldun nagusi ere izendatu zuten, kargu instituzionari goren probintziako organigraman; aldun nagusi gisa joan zen urte hartako apirilean eta abenduan Donostian egin ziren Batzar Nagusietara, eta gai garrantzitsuak izan zituen hizpide, hala nola:



| Ontzi maketa. STM

probintzia hornitzea, bideen konponketa, Gipuzkoak erregeari eman beharreko soldaduak frantsesen inbasio-arriskua zela-eta, merkantziak probintzia zeharkatzea, edo zergak herrien artean banatzea. Garrantzi handiko kontuak, ikusten denez, eta balio handieneko gizonen jorratu beharrekoak.

Alkatetzakoak amaitu ondoren, hurrengo urtean Santa Maria eta San Bizente elizetako maiordomo sartu zen, kargua uzten zuen alkateari zegokionez, hango kontuez eta administrazioaz arduratzeko.

Merkataria izaki, denboraldi luzeak egin behar izaten zituen hiritik kanpo. Denboran tartekatuta ageri zaigu udalbatzako kide; udalbatza batean hamarkada bakoitzeko.

Poiuelo kalean zentsatua ageri da 1652an hautesle gisa aritzeko, eta urte hartako udal hauteskundeetan izendatzen dute zinegotzi.

Esan dugunez, Agirreraren merkataritza-jarduna hainbat alderditatik ageri zaigu. Urtebete geroago (1653), Bernardo Agirre kapitaina ageri da buru zenbait donostiarrek (Frantzisko Amezketa, Antonio Beroiz, Pedro Arozamena, Kristobal Aialde eta Juan Martinez Arza) Donostiako udalbatzaren kontra egindako auzi eskean<sup>(5)</sup>.

Eskearen kausa zen eskatzaileek hiriko harresietatik kanpoko aretazetan zituzten etxola eta biltegietan izandako kaltea, non itsasontzien tresneria gordetzen baitzuten. Udalbatzako ofizialak salatzen dituzte, etxola haietan eman zietelako ostatu 1653ko hasieran hirira erregearen zerbitzupeko iritsitako irlandarrei, eta haiek etxolak desegin eta erre egin zituztelako, ezer onik utzi gabe.

5. AGG-GAO, CO MCI 1744.

Kalkulatzen dute konponketak 1.800 dukatekoak zirela, eta horri beste 150 dukat gehitu behar zitzaizkiola, urtebeteko errentan galdutakoagatik.

Hareatzetako etxola haiek biltegi gisa baliatzen ziren, harresien barruan gorde ezin zitezkeen merkantzia asko han gordetzeko; merkataritzagaiak ziren, garia edo bakailoa, bai eta belak eta itsasontzietako beste material batzuk ere. Biltegiak izaki, errentan ere eman zitezkeen, auzi eskean adierazten denez.

Bestalde, udalbatzak, bere burua zuritzeko, zioen etxolak irlandarren edo Erregeren ministroen ekimenez okupatu zirela, ez udalbatzaren ekimenez, eta hondatu izana azkenaldian izandako haizeen indarragatik ere izan zitekeela, eraikuntza ez baitzen batere irmoa.

Baina horri arrapostu Agirre kapitainak eta enparauek, argudiatuz ezen etxolek zurez eginak behar zutela, ezin baitzen harririk erabili eraikuntzan, gerora hiriaren kontrako erasoren batean gotorlekutzat erabil ez zedin.

Ondarea kudeatzeak etxeen eta beste ondasunen jabetzari zegozkion auzietan jardutea zekarren, hau da, baliorik gal ez zezaten saiatzea. Garai hartako filosofia guztia horretan oinarritzen zen: gehiago izatea, gehiago balio izatea; hori, pertsonen ez ezik, norberaren edo oinordetzan jasotako ondasunei ere bazegokien, eta haien balioa handitzen saiatzen ziren beti.

1655ean, Martin Miramonek, Miramon etxeko jabeak, bere eta seme-alaben izenean salatu zuen Bernardo Agirre kapitaina Gipuzkoako korrejidorearen aurrean, esanez Juanistegiko baserri aldean lur batzuk kendu zizkiola, 500 sagar-arbolako hedadurakoak<sup>(6)</sup>.

Agirrek, ordea, auzi eske hartatik salbuetsia izatea eskatu zuen, argudiatuz lur haiek bere aita Pedro

Agirrek erabili zituela 70 urte baino gehiagoan, eta berak eta aitak asko hobetu zituztela. Bere kontakizunaren frogagarri, zenbait lekuko deitu zituen deklaratzera, eta haiek azaldu zuten Bernardo Agirre kapitainak 800 dukat gastatu zituela hobekuntzetan eta lurak hesitzen.

Hor ageri da argi eta garbi lurren etekina handitzeko nahia, ekonomia emankorrako egitekoa sagar-arbolak aldatuz, 13 urte lehenago otadi zena etekin on samarreko sagasti bihurtuz.

Jokoan sartzen da, halaber, artekari aritzen zen lagun-sarea, bi aldeei mesede egingo zien akordio baten bila, gastuak saihesteko azken halamoduzkoa izan zezakeen eta ez alde bati ez besteari komeni zitzaieken auzi batean. Hala, bada, azkenik eskatu zitzaion Gaztelako Ganberari onar zezala Miramonen eta Agirreraren artean lortutako lur-truke akordioa, bata zein bestea ase zituela-eta, elkarren auzoko lur-jabeen arteko liskarren sokan sartzea saihesten baitzuen.

Agirrek aurrera segitu zuen bere ibilbidean. 1660an, Donostiako alkate hautatu zuten, eta horrekin batera lehen auzialdiko epaile-lanak egin beharra zeukan, garai hartako alkateek eskumen hori baitzuten. Garai hartako Donostiako gizarte-sail gailenarekin zituen harremanak. Eta lehentasun hori erakutsi beharra zegoen. Espazio publikoak norbera ikus zezaten eta gorteia zezaten pasabide bihurtzen ziren. Plazak, kaleak eta pasealekuak aire zabaleko antzoki bilakatzen ziren, batez ere jaiak, desfileak edo prozesioak zirenean. Halakoetan, oso garrantzitsua zen zer leku zuen norberak, baina baita espazio fisikoa bera ere. Espazio mugatua gatazkabide gerta zitekeen inguruabarrek herritarrak biltzera bultzatzen zituztenean.

Halaxe gertatu zen 1661ean. Urte hartan, auzi eske bat aurkeztu zuten korrejidorearen aurrean Bernardo Agirrek eta Ignazio Abulodik, Donostiako biztanleak biak, Manuel Querencia laguntzailearen kontra,



honek errentan hartutako etxe batzuk zirela-eta; etxeak Fernando Santiagorenak eta honen emazte Magdalena Agirrerarenak ziren, Madrilen bizi zirenak biak, eta herriko plazan zeuden<sup>(7)</sup>.

Etxe haien aurrean oholta bat jarri ohi zen, zezenketak ikus zitzaten “las personas a quien el dicho don Fernando da lizenzia y permiso sin que el arrendatario de la dicha casa se entrometa ni pueda poner ynpedimento por no tener que ver el poner el dicho tablado con el dicho arrendamiento<sup>VIII</sup>”. Baina orain Querencio alokatzaileak zioen oholta jartzea galaraziko zuela, eta horrek ekarri zuen Agirre eta Abulodiren auzi eskea.

Espedientearen zenbait kontu aletzen dira, interesgarriak denak ere Donostiako aisialdiaren zer-nolakoak ezagutzeko Aro Modernoan. Hala, zehazten da azken 23 urteetan zezenketek oholta izan zutela, hesi

6. Archivo General de Simancas, Consejo de la Cámara de Castilla. VI - Cámara de Castilla. 95 - Procesos y expedientes. L 1922.

7. AGG-GAO, CO MCI 1935.





| Anonimo.  
Sokamuturra en la plaza  
de la Constitución.  
Grabatua. XIX. mendea. STM

erakoak hain zuzen ere, eta Santiago apostoluaren eta San Rokeren jaietan ipintzen zirela, eta ospakizunak amaitutakoan kentzen.

Migel Agirrek berak ere, etxeak aurrez izandako jabea eta Magdalena Agirrerren aita —biak ere Bernardo kapitainaren senideak—, oholtza jartzeko egin zizkieten eskariei erantzunez, hauxe zuen esana: “aquel puesto y todo lo demas que havia en su casa estava para servir a los que havian de estar en el<sup>IX</sup>”.

Querenciok, berriz, zioen bere alde ezen Fernando Santiagorekin sinatu zuen etxe-alokairuan ez zela ageri oholtza ipintzen utzi behar zuenik, eta hura bere interesen kontra zihoala, aurrerago azalduko denez.

Salatzen zuen beraren kontrako auzia 1660an hasi zela, urte hartan Bernardo Agirre bera zela alkatea, eta hala ere lehen auzialdian Querencioaren aldeko eta Fernando Santiagoren kontrako epaia eman zuela. Baina gero gauzak aldatu egin ziren, eta Santiagok bat egin zuen Agirre eta enparauen eskariarekin.

Egiten zizkieten presioak etengabeak ziren, dio Querenciok. Esate baterako, dio ezen, oholtza ipintzen utzi ziezaien, akusatuek “un sombrero de castor<sup>X</sup>” eskaini ziotela “y que él respondió que no queria recibirle por no poner servidumbre a sus casas”.

1661ean, auzi eskea Antonio Cuellar alkateagana iritsi zen, eta hark, entzunaldi publikoan eta auzi-jartzaileek hala eskatuta, 200 dukateko zigorra jarri zion Querenciori oholtza ipintzea galarazten bazien, eta horregatik hark Korrejidoreagana jo zuen, bigarren auzialdiko epailea izaki.

Alegazio berrian, salatzen zituen Bernardo Agirre eta besteak alkatearen erabakiaren ondorioz bota egin zutelako “con violencia y azeleracion el maderamen que tenia puesto para su tablado frente de la dicha casa<sup>XI</sup>”, eta honela azaltzen du bere galeraren arrazoi nagusia: Agirre eta haren lagunak jarri ohi ziren oholtzan 30 gizon baino gehiago sartzen zirela, eta, beraz, kalte egiten zitzaiola berari, zeren eta, erreal bana kobratuz gero freskagarriagatik, irabazi ederra aterako baitzukeen, zezenketek 4 egun irauten zuten, baina orain ez zeukan halakorik egiterik alkatearen erabakia zela medio.

Kontua ez zen horretan geratu. Espedientean parte hartzen zutenen gaineko presioa handiagotu egin zen. Querenciok eskomiku-zentsurak lortu zituen baldin eta orain salatuek egia aitortzen ez bazuten bete beharreko epean. Zentsura haiek Donostiako elizetan aurkeztu ziren.


Zentsuren edukiarekin batera, madarikazio bat doa, zin egindakoa betetzen ez bazen: “Maldito sea el manjar que comieredes, la bebida que vivieredes y el ayre que respiraredes, maldita sea la tierra que pisaredes y la cama en que dormirades, no llueba el cielo sobre cosa vuestra sino fuego y piedras, no gozeis fruto de vuestros trabajos ni alleis quien os socorra en vuestras necesidades, siempre que fuerdeis a juicio salgais condenados la maldicion os alcance y los santos angeles os desanparen y la tierra os trague vivos para que en cuerpo y en alma descendais a los infiernos y no quede entre los hombres memoria vuestra...<sup>XII</sup>”. Ikusten denez, ordukoa bezalako pentsaera erlijiosoaren baitan, madarikazioak eragina izan zezakeen egia aitortzeko nahian.

Plano de Sr. Sebastian

año de 1592.

M. y C.

Sejyo 48.



Ondoren, aitopena hartu zitzaion Fernando Santiagori, zeinak aitortu baitzuen ezen, alokairuan sartzen zen diruaz gainera, “avia de tener a vien de conceder el que los dias de las corridas de toros de todos los años iciesen un tablado en frente de la dicha casa el capitan Bernardo de Aguirre, don Ygnacio de Anbulodi y otros consortes y que a ello yzo repugnancia el dicho ayudante diciendo que el hacer los suso dichos el tablado se le seguia mucho perjuicio y que asi lo havia de hacer el dicho ayudante, con que no le entrego los dichos sesenta y dos ducados y le pidio la restitucion de los quarenta y quatro ducados que se los avia pagado anticipadamente<sup>XIII</sup>”.

Ondoren, Manuel Querenciok onartzen du Santiagorekin topo egin zuela Kale Nagusian, eta aitortu ziola eskubidea zuela oholtza ipintzeko, baina hala eta guztiz ere ez zuela lortu gauzak konpontzeko bidean jartzea.

Querencioren galdera-zerrendak bide ematen du hala eztabaidaren edukian nola gizarte-bizitzaren zenbait alderditan sakontzeko, eta horregatik aldatuko dugu hona:

**“1. si saben que el dicho Manuel Carenzo en las dos fiestas de toros que se an celebrado este año en la dicha plaza por Santiago y San Roque no ha podido hazer tablado en el frontispicio de las dichas casas arrendadas en que vive por una cierra barrera que se hizo en frente de las dichas casas, de manera que no se dava lugar a hacer el dicho tablado y quitava las vistas a las dichas casas.**

**2. y si saben que si el dicho Manuel Carenzo no huviera tenido el embarazo de la dicha zierra barrera huviera hecho en el frontispicio de las dichas casas como los demas ynquilinos el dicho tablado en que cupieran mas de treinta y cinco personas y cada una de ellas huviera pagado al dicho Manuel Carenzo un real de a ocho para el puesto por ver las dichas fiestas y por un refresco de poca consideracion que les diera, de manera que en cada una de las dichas dos corridas de Santiago y San Roque hubiera valido a el dicho Manuel el dicho tablado sacada la costa del dicho refresco que se acostumbra dar diez y siete reales de a ocho y medio libremente, y en las dos treinta y cinco reales de a ocho.**

**3. y si saben que en las dichas fiestas estubieron en las ventanas de las dichas casas veinte y dos personas y pago a el dicho Carenzo cada uno un real de a ocho por que le ocuparon las dichas ventanas y por la merienda que les dio, y porque la dicha cierra barrera no solamente impedia el que se pudiera hacer el dicho tablado sino que tambien disminuia mucho las luces y vista de las dichas ventanas no estubieron en ellas mas de doce personas en las dichas fiestas de San Roque, por cuiu causa malogro el dicho Carenzo la merienda”.**

**4. y si saben que el dicho Manuel Carenzo si no huviera intervenido la conbeniencia de dicho tablado de comodidad de ventana no huviera arrendado las dichas casas en tan subido precio<sup>XIV</sup>.**

Nolanahi ere, ageri zaigun gizarteak ez du zalantzarik egiten festak ospatzerakoan. Zezenketak zaldi gainean izaten ziren, eta hiriko gizon handiek beren trebezia erakusten zuten haietan. Esate baterako, 1628ko uztailean, Alonso Idiakezek, Nafarroako erregeorde eta Ciudad Realeko Dukeak, Migel Arostegi eta Martin Amezketaren aintzatespena jaso zuen, Donostiako bi gizon nagusirena, zeinek, ikusiko dugunez, harreman estuak baitzituzten Juan Arbelaitzekin. Domingo Etxeberri errege idazkari eta Donostiako biztanlearekin trukutzen zituzten gutunetan kontatzen dutenez, “a abido nuevos toros y don Alonso de Ydiacaiz salió con rejón a la plaça y tubo una gran suerte que el enclavó a un toro el rexon y no meneó pata<sup>XV (8)</sup>”.

Bernardo Agirre kapitaina 1674ko urriaren 18an hil zen, eta, testamentuan (1670) agindua zuen bezala, “etxeko hilobi nagusian” lurperatu zuten, “zeina Laguntzako Andre Mariaren aldre ondoan baitago”, Santa Maria elizan; beraz, handik hartua da hilarria.

Hura hildakoan, ondasunen banaketa zela-eta, auzi luzea izan zen oinordekoen artean, zeinak, lehenago esan bezala, asko baitziren; batez ere, Isabel Illarradi bigarren emaztearen eta Pedro Agirre lehen ezkontzatiko semearen artean<sup>(9)</sup>.

Auzi horren edukiari heldu aurretik, interesgarria da testamentu horretan datozen zenbait mandatu aztertzea, Agirrerren bizitzako zenbait alderdi funtsezkotara hurbiltzen baikaituzte. Esate baterako, agintzen du 660 meza eman daitezela beraren oroimenez, eta Ricardo Cotrel presbitero irlandarrak, beraren aitoren entzuleak, eman ditzala, Testamentuko beste xedapen batean ere ageri da harengan jarritako konfiantza; hain zuzen ere, Cotreli berari eta emazteari ematen die “cierto cargo de restitución, que tengo dos partidas de restitución de dinero que juntan 7.500 reales de plata, poco más o menos, se le pague de mis bienes con todo secreto<sup>XVI</sup>”.

| Donostiako planoak. XVI. mendea. STM.

Argazkia: Beltz argazki ekoizpenak


8. Untzi Museoko Artxiboa. Vargas Ponce bilduma, VIII. lib. 7. dok.

9. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Escribanía Moreno. Pleitos Fenecidos C/3193-3, L.58.

Garrantzitsua zen, haren oroitzenaren defentsarako, zorren ordainketa xedatzea; hor agertzen da merkataritzarekin lotutako jarduera. Hain zuzen ere, Frantziska Amezketa alargun donostiarrari, zeinarekin “quentas, tratos y contrataciones<sup>XVII</sup>” izan baititu, zor zaiona ordain dakiola xedatzen du. Orobat, 7.050 erreal zor zituen Juanes Gazteluzar eta haren anaia Juaniz Ona Gazteluzarrekin izandako negozioengatik; Ziburun bizi ziren biak, eta 7.050 erreal zor zizkien “por deuda contraída durante su matrimonio<sup>XVIII</sup>”. Gazteluzar anaiekiko negozioak ohikoak izan bide ziren, Ternuako bidaiari ingurukoak; izan ere, testamentuan dioenez, “con Juaniz Ona de Gazteluzar tiene otras cuentas tocantes al armazon y apresto del navio Nuestra Señora de la Caridad, en que soy interesado en la quarta parte, y debe corresponder con la parte que toca en dicha quarta parte de la presa de este ultimo viaje que el dicho navio echo a las Terranosbas a la pesca y matanza de vallenas, y que mi mujer y Luis de Veroiz ajusten cuentas y cobren<sup>XIX</sup>”. Luis Beroiz hori alaba Bernardaren senar zendua zen, pertsonaia nagusi bat hura ere Donostian XVII. mendeko bigarren erdian, alkate eta aldun nagusi izana, beste kargu nabarmen batzuen artean.

Zibururekiko harremanak estuak izan ziren, dirudienez. Aurrerago, hiriko beste norbanako batzuekiko negozioen berri ematen du. Hurrengo xedapenean dioenez, “que la viuda de Martin de Beloqui, cuyo nombre no me acuerdo, ya es difunta, vezina que fue del lugar de Ziburu, en el reyno de Francia, save tambien algunas cuentas, las cuales por la muerte de dichos marido y muger quedaron por fenecer, de las cuales hay algunos papeles en mi casa y encargo a mi mujer Ysabel y a Luis Beroiz los ajusten con los hijos y herederos<sup>XX</sup>”.

Ikusten denez, emakumearen egitekoa munta handikoa zen negozioen kudeaketan eta, oro har, familiaren ekonomian. Batez ere Bernardo Agirrerena bezalako kasuetan: Donostiatik urrun ibiltzen zen merkataritza-zereginetan, eta emaztearen eginkizuna izaten zen etxea, seme-alabak, zerbitzariak eta etxeko beste alderdi guztiak administratzea eta zaintzea.



| Donostiako planoak.  
XVII. mendea. STM

Isabel Illarradi emaztea etxeko kontuez arduratzera behartzen zuten eginkizunen artean, itsas harrapakinen auzia zegoen. Gauza ezaguna da Donostia itsaslapurren gune garrantzitsu bat zela. Frantziako erresuma hurbil izateak laguntzen zion horri. Lehenago aipatu ditugu itsas harrapakin gisa hartutako 500 bala artilleriakoak, Agirrek ezkontzara ezkonsariaren parte gisa eramanak, eta mila errealeko balioa zutenak. Baina gure kapitainak ere nozitu zuen itsas harrapaketen kaltea<sup>(10)</sup>. Haren itsasontzi bat preso hartu zuten Donostiako itsaspalur batzuek, eta horrek Fernando Ansorena Garaioarekin, beste donostiar handi batekin, kontuak ateratzera behartu zuen, “en razón de 200 ducados de plata que el año pasado de 1667 me dio la gruesa ventura sobre la parte que tengo en el navio nombrado Nuestra Señora de la Caridad para el viaje de las trovas (esto es, búsqueda de barcos perdidos y materiales a la deriva tras naufragios o encuentros con el enemigo), el qual viniendo de vuelta del viage para esta ciudad fue apresado por algunos corsistas de esta dicha ciudad y llevado al puerto de Santander, donde estuvo tres meses y por ocasión de este apresamiento resultaron grandes gastos y averias<sup>XXI</sup>”; gastu horietan parte hartu behar zuten Ansorenak eta beste sozioek.

Ondasunen inbentarioak ondare ederra jartzen du agerian, eta haren gainean hasiko dira auzitan, esan dugunez, semea eta emaztea. Ondasun horiek osatzen zituzten: etxe nagusiek eta haien ondoan zeuden beste batzuek, kaiko goardaetxearen parean zeuden etxe batzuek, eta Kale Nagusiko beste batzuek. Gainera, Juanistegi eta Gorostidiko baserriek, beren jabetzakoekin.

Etxe nagusiak eraberrituta zeuden, harlanduz jantzi baitzituzten itxura nobleagoa emateko. Eta merkatarizaerak eraman zuen Agirre San Ilarion itsasontzian parte hartzera, “que este presente año ha partido del puerto a Terranobas a la pesca y matanza de ballenas<sup>XXII</sup>”; laurden bat zuen berea,

esandako Nuestra Señora de la Caridad ontzian bezala, “conquista durante el matrimonio (con Isabel de Illarradi), surto en Socoa, que esta proximo para hacer el mismo viaje que el navio que de suso esta dicho<sup>XXIII</sup>”.

Gainera, sagastietan bildutakoari esker, hamaika upel zituen sagardoz beteta; bi lehen itsasontzia hornitzeko erabili ziren, beste bi hirian saldu ziren, eta salmentatik ateratako dirua etxeko gastu arrunterako erabili zen “por vivir todos juntos y en comunion<sup>XXIV</sup>”, eta denen zorrak ordaintzeko.

Alderdi kosmopolita merkataria-ibilerek erakusten dute, horri esker sartu baitziren haren etxeko horniduretan Europako beste alde batzuetako gaiak, hala nola Rouen, Ingalaterra eta Flandriako oihalak, eta Moskutik ekarritako larruak.

Eta, azkenik, Agirrereren beraren margolan bat, zeinak haren gizarte-maila erakusten baitu, hilobiekin batera: hiru hilobi Santa Maria elizan, bost San Bizentzen eta beste bi San Telmon.

Baina, esan bezala, ondarearen egoera abantailatsu horrek auzibidea ekarri zuen Isabel Cordelekiko lehen ezkontzatiko seme Pedro Agirrereren eta Isabel Illarradi bigarren emaztearen artean.

Desadostasuna 1673an hasi eta 1675a arte luzatu zen. Auziak, lehenik, familiaren genealogia erakusten digu. Lehen ezkontzako seme-alabak: Pedro Martínez (Pedro), 1633an jaioa, eta Bernarda, 1636an jaioa, lehen esan bezala Luis Beroizekin ezkondua, zeina Donostiako alkate izan baitzen 1666 eta 1674 urteetan. Bigarren ezkontzatik, berriz, Bernardo Agirre kapitainak alabak besterik ez zituen izan: Cordula, Bernarda Luisa eta Maria Josefa.

Pedro Agirrek eskatzen zuen, lehenik, Isabel Cordel amak ezkontzarako jarritako ezkonsaria berreskuratzea; eskatzen zuen, gainera, korrejidoreak beraren kontra eta Isabel Illarradi andrearen alde —seme-alaben tutorea baitzen— emandako auto bat baliogabetzea, Agirre kapitaina hil ondoren geratu ziren ondasunen partiziorako.

Kantzelaritzan, ordea, berretsi egin zuten Korrejidorearen autoa, eta tasatzaileak izendatu zituzten Agirrek utzitako ondasunak ebaluatzeko.

Salaketa eta auzi eskeen jokoan, interes handiko datuak aurkitzen ditugu familiaren barne-historia osatzeko. Halatan, Isabel Illarradik dioenean, bere alde, semeordeari amaren ezkonsariaren interesak ukatzen dizkiola, bere argudioekin batera ematen ditu jokabide horren zioak: “que no se le deben demas de que el dicho su padre hera usufructuario y lo fue asta que murio por no haver salido de su patria potestad el dicho don Pedro y haverle criado y alimentado en diez y seis años asta que le embio a Cadiz dirigido a persona que asista alla para que buscasse fortuna como lo an echo por este medio muchos hijos de padres honrados de esta Ziedad y otros lugares de esta provincia de Guipuzcoa por la cortedad de la tierra y en su abio gasto con el bestido y ropa blanca que le dio mas de ciento y cinquenta ducados. Y despues que volbio a esta Ciudad le alimento en seis años y en cada uno de ellos gastaria y gasto con el dicho don Pedro mas de ciento cinquenta ducados<sup>XXV</sup>. Y debe traer a colacion y particion veinte y seis mil y mas reales de plata y mil ducientos de vellon que en vezes le remitio el dicho su padre y pago por el para sus empleos”. Horri gehitu behar litzaizkiok, illarradiren alde, beste dirutza batzuekin batera, senarraren hiletan gastatu zituen 3.000 errealak.

Ondorioztatzen denez, familiaren estrategian semea Andaluziara bidaltzea sartzen zen, han bidea egin zezan senide edo ezagunen baten babesean, fortuna egiteko eta aberastuta eta ahaltsu itzultzeko Donostiara, beste familia nabarmen batzuek egin bezala.

10. AGG-GAO, CO MCI 2391.

Beraz, Illarradik azaltzen du ezen Pedro Agirrek berez diru askotxo zor ziola aitaren oinordetzari; izan ere, "tambien es cierto que se le deben cargar aun los alimentos que le dio el padre y no corre la misma razon con las hijas de mi parte, que no tenian otra hacienda de que poderse sustentar fuera de que ya se sabe quan diferente es dar escuela y sustentar a un hijo que a las hijas que sirven a sus padres aliviandoles con su lavor y escusandoles de algunas criadas<sup>XXVI</sup>". Ezin da argiago adierazi semeei eta alabei emandako rol desberdinak. Semeentzat, heziketa eta prestakuntza; alabentzat, etxean laguntzea eta, hartara, zerbitzariei ordaindu beharrik ez.

Aurrerago, lekukoei galdetzeko txanda dator. Beti bezala, galdera horietatik oso datu interesgarriak ateratzen dira. Kasu honetan, jakiten dugu Bernardo Agirrek jantzi militar bat lortu zuela, gizartean zuen leku lehena egiaztatzen zuen erakusgarria. Kontzesio horren zer nolakoak ageri dira testuan: "si saben que el dicho capitan Bernardo de Aguirre obtubo de Su Magestad Phelipe cuarto merced de un *abito de la Horden Militar* en remuneracion de sus muchos serbicios y semeiante merced se suele regular en la ora presente por quatro mil ducados de vellon<sup>XXVII</sup>". Alegia, dirutza hori ordaindu behar zen hain jantzi ohorezkoa janztearren.

Eta galdera hori zela-eta, Sebastian Burgoa lizentziatuak erantzun zuen ezen "oyo decir al capitan Bernardo de Aguirre que por sus serbicios echos a Su Magestad y en remuneracion de ellos el año de mil seiscientos sesenta, allandose en esta Ziudad el Rey, nuestro señor, don Phelipe cuarto, a las entregas reales y ajustamiento de pazes que se hizieron entre esta Corona de España y Francia le havia echo merced de uno de los havitos militares<sup>XXVIII</sup>". Zerbitzu horiek aurrez aipaturiko itsas harrapaketekin zuten zerikusia, baina baita Erregeren itsas armadak prestatzeko emandako laguntza eta zerbitzuarekin, gerra-garaian.

Bestalde, Isabel Illarradik, bere buruaren defentsan, Pedro semeordea Andaluziara bidaltzeko estrategiak eragindako gastuak aipatzen zituen,

gastuok aitak utzitako ondasunen edozein erreklamaziotatik ken zitezkeela-eta. Hala, galdetzen du "que si saven que el dicho capitan enbio y avio al dicho don Pedro de Aguirre siendo de edad de diez años para que buscasse fortuna a casa de Juan Martinez de San Pau y Labaien, vezino de la Ziudad de Cadiz, natural de el Reino de Nabarra, ombre de negocios, y habiendo estado algun tiempo en su servicio se fue a Sevilla, donde se acojio a casa de don Estevan de Zulaica Ayalde, natural y vezino que fue de esta Ziudad y conbalezido de una enfermedad que tubo el dicho don Pedro le hizo ir a su casa a dicha ziudad de Cadiz don Martin de Aizarte, hierno del dicho Juan Martinez de San Pau.

batek izandako zailtasunak (beste pasarte batzuetan esaten da 16 urte zituela), hain kultur ingurune desberdinean, ezezagunen artean eta, ikusiko dugunez, bitarteko ekonomiko oso urriak izanik. Puntu horretara iritsi baino lehen, Isabel Illarradik aurkeztutako galderei jarraituko diegu, non ondare ez oso handi baten jabe gisa aurkezten saiatzen baita senarra, arrantzaren eta lurretan inbertitu izanaren ondorioz, eta ez semeordeak frogatu nahi zuen bezain egoera on eta estuasunik gabean.

Honela jarraitzen du: "Y si saven que el caudal que tenia el dicho capitan Bernardo de Aguirre hera muy mediano y lo bivia de algunos empleos que hacia a la pesca de bacallao y vallenas y encomiendas que tenia.



| Abraham Ortelius. *Carpetaniae, Guipuscoae...y Hanc Insulam... XVI. mendea*

Y despues hizo dos biajes a las Yndias el dicho don Pedro con cargazon de su quenta y conprados con dinero que le remitio y pago por letras y libranzas suyas el dicho su padre. Y desde que paso a la dicha Cadiz asta que bolvio el dicho don Pedro a esta Ziudad a casa de su padre pasaron catorze años<sup>XXIX</sup>".

Halaxe geratzen da azaldurik Pedro Agirrek egindako ikasketa-ibilaldia. Erraz irudika genitzake hamar urteko haur

Y otros de su calidad vezinos de esta Ziudad y otros lugares de esta Provincia y otras partes de este Reino an embiado y embian sus hijos legitimos a Sevilla, Cadiz y otras partes de estos Reinos y a las Yndias a que sirvan a onbres de negocios y por este medio proveen a caudalar y hazer azienda y muchos de ellos lo han hecho y an buelto a sus tierras muy acomodados de hacienda<sup>XXX</sup>".

Lekukoen aitopenei esker, Pedro Agirreren nondik norakoen berri xeheagoak ditugu. Hala, Nikolas Egoabil kapitainak dio Pedrok bi bidaia egin zituela Indietara: bat Santo Domingora, Pedro Asañez Carrillo kapitainaren itsasontzian, zeina Donostiakoa izan eta Cadizen bizi baitzen 1659an, eta beste bat kontinentera, 1662an, Juan Eteberri Villarrubiako markesaren galeoietan, zeina donostiarra baitzen, eta Domingo Etxeberri errege-idazkariaren semea.

Egoabilek Pedro Agirre semearen abenturak deskribatuz jarraitzen du. Kontatzen du 1664an itzuli zela Donostiara, Agustin Diustegi jeneralaren eskutik, zeina Santiagoko Ordenako zalduna baitzen, eta Donostiako biztanlea. Aurrez, Madrildik pasatu ziren, eta han geratu ziren bizitzen 1663 urtean. Azalpenean, astia hartzen du Bernardo Agirreren negozioez hitz egiteko, zeinak bakailao- eta balea-arrantzarekin batera, “tubo encomiendas de mercaderías que le enviaron ombres de negocios del Reyno de Francia en tiempo de paz<sup>XXXI</sup>”. Eta kontatzen du nola hura bera eta beste asko Cadizera eta beste leku batzuetara bidali zituzten adin txikiko zirenean, “y al cavo de algunos años an buuelto ricos, onrados y calificados según al presente se allan<sup>XXXII</sup>”.

Gaszte batek familiaren etxetik alde egindakoan eta menturaren menturaz abiatutakoan pasatzen zituen egoera gogorak, maiz mitifikaturiko zori hori, argi asko ageri da Pedro Agirrek aitari bidalitako gutunetan, 1650eko hamarkadako lehen urteetan.

Gorde diren gutunetako lehenengoan, gertaera bat ageri da, norberaren izenaren parte bat nola galtzen den ezagutzeko bidea ematen diguna: patronimikoa, XVII. mendera arte arrunt erabilia eta Euskal Herrian Araban baizik gorde ez dena gaur egun arte. Hona hemen nola galdu zuen erabilera hori Pedro Agirrek (Cadiz, 1651-VIII-6):

“Por lo que VM me a adbertido que haga de un modo la firma siempre asi lo are pero no firmare mas que Pedro de Aguirre porque el Martinez parece que es apellido, no obstante que me llamo Pedro Martinez, pero con todo esto mas bale firme Pedro de Aguirre, que sobre esto siempre me solia adbertir mi tio don Martin<sup>XXXIII</sup>”.

Lehen une horretan (Cadiz, 1652-XII-22), badirudi Pedro Agirreren ibilerak itsasontzi bateko eskribautza lortzera bideratzen zirela, han dirutza bat lortu ahal izateko:

“ha quatro hordinarios que escrivi a don Francisco de Zarraga Teogran, confiado en la merced que VM le haze, pidiendo que me ubiese algunas cartas de algunos consejeros de Yndias para el consul del Consulado de la Ziudad de Sevilla pidiendole la merced de una escrivania de alguna nao marchante para la primera flota de galeones y no me a respondido asta ahora y no ay ninguna dificultad en esto porque a qualquiera se lo hazen la merced y despues se paga dos reales de plata cada tonelada.

Si esto se efectuase no sera malo por este camino siquiera empezar a navegar ya que por otro no he podido y la buelta del biaje le pagan al escribano el dueño de la nao un ducado de plata de cada tonelada.

Los quinientos de a ocho ya anse empleado en diferentes partes<sup>XXXIV</sup>”.

Hurrengo gutunean, egoera geopolitikoaren ezagutza handia erakusten du, eta itsasoratze dauden aukerena, baina, horrekin batera, pasatzen ari zen gabezia gorriaren berri ere ematen du (Cadiz, 1653-VII-22):

“He recibido la de VM de veinte y ocho del pasado en la qual me da abiso de su salud juntamente con todos los de casa, de que me alegro mucho.

El riesgo tan grande que VM me dize ay al presente en la carrera de Yndias y del grande poder de este perro yngles es asi, pero con todo esto no pueden dejar de yr galeones aunque aya habido tantas perdidas, que fuera todo perderse de una bez porque toda esta Andaluzia depende de eso que, a mas de tres años, no ba cosa de considerazion a Portabelo.

Al presente tiene orden el duque de Medina y dineros para empezar al presto de la armada y galeones y dize se que para mediados de octubre saldran todos juntos, que seran hasta sesenta naos con lo que el olandes se los a vendido a Su Magestad.

Y asi me parece me embarque y no estarme aquí toda la vida pasando miserias, que si esto no me falta otra cosa sino estarme en cueros. Y asi le suplico a VM que quanto antes dara VM o le ablara al señor Martin de Berrotaran para que dé orden y no sea con las dificultades de antes que el señor Sebastian de Casadevante los suele tener (). Que cierto estoy yo tal que no me oso a salir de casa por no parecer como debe un ombre de bien y ahora es menester mas que nunca pues pues me e de embarcar.

Me alegro del feliz parto de mi hermana y del gusto tan grande con que estara el señor Luis de Beroiz, mi hermano, a quien le estimo mucho y creo que estara mas gustoso que otras veces por ser varon el rezien nazido<sup>XXXV</sup>”.

Honaino Bernardo Agirre kapitainari buruz berreskuratu ahal izan ditugun datuak; Donostiako bizitzako pertsonaia nagusi bat XVII. mendean, garai hartako Donostiaren ezaugarri ziren merkataritza-jarduerak eta itsas harrapaketenak ezin hobeto nortzen dituen. Hala ere, haren jokabidea harago doa. Inbertsioak egitea lur eta zentsutan, ordena militar baten jantzia lortzea, kargu publikoak betetzea: ezin dira hartu elementu isolatutzat. Aitzitik, errenta ekonomikoak lortzearekin ez ezik gizarte-lehentasuna nabarmentzearekin bat datorren jokaera-logika bati erantzuten dio horrek. Txanpon beraren aurkia eta ifrentzua.

# Joan Perez de Aguirre kapitaina

Donostia,  
1595-1653

Juan Perez Agirre 1595ean jaio zen; Juan Perez Agirrerren eta Mariana Gonzalez Herediaren semea zen, eta Agirre oinetxearen jabe Juan Perez Agirrerren biloba, denak ere Donostiako biztanleak. Abizen bera izan arren, ezin izan dugu lotu familia hori Bernardo Agirre kapitainarenarekin.

Juan Perez Agirrerren bizitza ere seiehuneko urteetako Donostiaren adierazgarri egokia da; arrantzara, merkataritzara eta lurren inbertsioetara emana zen Donostia hura, ohorearekin eta gizarte-lehentasunarekin zerikusia zuten auziz betea.







Eskuratzea lortu dugun lehen dokumentuak dagoeneko badakartza datuak familiaren herentziaren ondoriozko arazoei buruz, zeinak bizitza osoan izango baititu lagun. Haurra zen artean, 1601ean, auzi eskea jarri zieten Juan Perezek, Mari Joanek, Kristobal eta Magdalena Merkelinek haren aita Juan Perez Agirrerri, Agirre oinetxearen jabe Kristobal Agirrerren eta Mari Esteban Miramonen bilobari, eta haren arreba Mariana Agirrerri, eta haren ama Mariana Herediari —beste Juan Perez Agirre baten alargunari—, denak ere Donostiako biztanleak, zergatik eta Kristobal Agirre horrek eta haren emazte Maria Esteban Miramonek herentziaz egindako partizioagatik, izanik Kristobal Agirre hori eta Maria Esteban Miramon auzi eskatzaileen aiton-amonak eta salatuen birraiton-birraimonak, eta Juan Perez Agirre salatuen aitonaren eta Tomasa Agirre haren arreba eta auzi eskatzaileen amaren gurasoak, izanik Tomasa Agirre hori Antonio Merkelinekin ezkondua, Merkelingo etxearen jabearekin<sup>(1)</sup>. Auzitan jarritako ondasunen artean zegoen Agirre etxea, Urumea ibaiaren eta Goiatz, Miramon, Iraola eta Anzieta etxeen lurren artean kokatua.

Filiazio-nahasmen handi horren aurrean, epaileek bere ere zuhaitz genealogikoak eta gisa horretako tresnak behar izaten zituzten beren erabakien lagungarri, ez galtzeko izen eta senidetzeen nahas-mahas hartan. Espediente honen hasieran ageri den zuhaitz genealogikoa bezalakoak.

Filiazio horri esker, XV. mendera arte atzera daiteke Juan Perez Agirrerren genealogia; hori ez da batere arrunta Donostiako biztanleen artean, oso dokumentazio gutxi gorde baita 1813az aurrekoa.

Agirre etxea, Kristobal hil ondoren, zatitu gabe gozaten zuten, erdibana, Tomasa Agirre eta Juan Perez Agirre anai-arrebek, harik eta emakumea ezkondu eta Merkelin etxera bizitzera joan zen arte, ondasun-banaketarik

egin gabe. Banaketarik egin ezenez, Tomasaren seme-alabek amari zegozkion ondasunak erreklamatu zituzten, eta denen inbentarioa eta tasazioa eskatu.

Orduan da Mariana Herediaren defentsaren txanda, Juan Perez Agirre (gure pertsonaia) eta Marianaren ama eta tutore gisa. Hala, edozein eskubide ukatzen die auzi eskatzaileei Agirre etxearen eta beste ondasunen jabetzaren gainean, esaten baitu haien jabe izan direla Juan Perez, seme-alaben aitona, eta Juan Perez Agirre, senarra eta salatuen aita, eta 48 urte pasatu direla Kristobal Agirre hil zenez geroztik, eta Tomasa Agirrerri 400 dukat, 4 ohe beren hornidurekin, bi kikara zilarrezko, gain-jantzi luze-arrunt bat, gonazpiko batzuk eta belusezko mauka batzuk, zilarrezko muturrak zituzten xingola batzuk, zurezko kutxa bat, eta 150 dukat, aita Kristobal Agirrek testamentuan utziak, guztia 1565ean ezkondu egin zelako, eta aldi berean uko egin ziolako Agirre etxearen gainean zuen edozein eskubideri Juan Perez anaiaren mesedetan, zeina aitak bere ondasunen heren bat eta bosten bat gehituta utzi baitzuen oinordeko.

Auzian zehar, aukera dugu jakiteko zenbaten balioesten den Agirre etxea: 10.000 dukat. Zergatik hain dirukopuru handia? Mendi-lur, sagasti eta gaztainadi asko zituelako, eta etxe nagusiaz gainera, hari atxikitako beste bat, Antxume izenekoa, bere dolare eta upelak zituena, ibai ondoan, “y todo ello es muy buena hacienda y de mucho provecho y porque esta en buena parte<sup>xxxvi</sup>”.

Auzia Mariana Heredia eta seme-alabak errugabetzearekin amaitu zen, eta leinu haren eskuetan jarraitu zuen Agirre etxearen jabetzak.

Etxalde haren arazoak hasi besterik ez ziren egin hala, eta Juan Perez Agirrerren bizitza osoan ez zen aldatu hori: senideekiko enfrontamendua arbasoen ondasunen jabetza eta gozamenagatik, aitaren seme bakarra zelako, bere lanbidearekin eta herritar gisa zituen betebeharrekin batera eraman beharrekoa.

1. Pleitos civiles. Escribanía Varela. Pleitos olvidados. C 1258/2, L 397.

21 urte zituela, ez zuen zalantzarik egin Mariana Heredia amari eta Martin Errazkin aitaordeari jarkitzeko, zeina bigarren aldiz ezkondu baitzen harekin, 1604an; amaren tutoretzaren ordainketa eta inbentarioa eskatu zuen beraren eta arreba Mariana Perezen ardura izan zuen aldiari buruz <sup>(2)</sup>.

2. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Balboa. Pleitos Fenecidos. C 2603/1, L 480.

1597tik 1604ra, Mariana Herediak eraman zuen familiarren etxaldea, bi neskamerekin eta amaginarreba Graziana Barrautekin biziz. Egoera hura, esan bezala, urte hartan Martin Errazkinekin ezkondu zenean amaitu zen. Martin Errazkin Donostiako oligarkiako beste pertsonaia nabarmen bat da, sei urte geroago (1610) bateraezintasun-azui batean nahastua, alkateorde izanik ostatu bat irekita zuelako, non ostatu ematen baitzion jendeari. Auzi hori ezin dugu laburbildu hemen, baina oso garrantzitsua da ulertzeko garai hartan izan zen eztabaida ostalari-ofizioak kargu publiko bat izatearekin bateratzeko legezkotasunaz, praktikaz eta egokitasunaz. Ordura arte horrek ez zuen eskrupulurik sortu, baina une hartan Donostiako eztabaida politikoaren erdigunean kokatu zen <sup>(3)</sup>.

3. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía La Puerta. Pleitos Fenecidos. C 1724/2.

Baina itzul gaitezen auziaren muinera. Auzi eskearen gaia, berriz ere, Agirre etxeari zegozkion ondasunen ingurukoa zen. Oraingo honetan, Juan Perez aitak utzitako ondasunen ingurukoak; 1597an Mariana Herediak egindako inbentarioaren arabera, ziren: Agirre etxea eta inguruko etxe eta jabetzak (sagastiak, belardiak, mendi-lurrak...), Antxumeko etxea eta dolarea, Nuestra Señora del Rosario itsasontziaren laurden bat, eta zilar- eta arropa-hornidurak. Ondare horrek erakusten du, batetik, merkataritzan ari zela, eta, bestetik, arbasoen herentzia kudeatzen zuela.

Juan Perez Agirre babesgabetasun-egoeran zegoenez, ez zuen zalantzarik izan erregeari bere ondasunak administratzeko lizentzia eskatzeko. 1614 urtean, hain zuzen. Ez zuen duda egin ezta adinaz gezurra esateko ere, bere helburua lortzearen. 19 urte zituen orduan, baina Felipe IV.aren aurrean aurkeztutako memorialean dio 21 dituela.

| Aitor Egibar.  
Erdi Aroko etxe baten  
barneko maketa. STM.  
Argazkia: Maier Etxebeste



Eskaeraren xehetasunetan, bere bizitza gaztearen alderdi batzuk agertzen dira. Esate baterako, adierazten du ezen aita hil ondoren bere ama Marina Gonzalez Herediarekin bizi izan zela 5 edo 6 urtean, Mariana arrebarekin batera. Eta onartzen du, halaber, 1617tik aurrera amaren bigarren senarrak, Martin Errazkinek, elikatu eta jantzia eta oinetakoak eman zizkiola, “y le tubo en la escuela en Berastegui y otras partes y le imbio a Estella<sup>XXXVII</sup>”.

Errazkinen eta Juan Perez semeordearen arteko konponezinak argi eta garbi ageri dira Tomas Zabalzaren ahotik, zeina Iruñean bizi baitzen eta iritzia ematera deitu baitzuten lekuko gisa. Memorial baten egitasunari buruz deklaratu zuen, non Mariana Herediak eta Martin Errazkinek Juan Perez Agirrerri jaten eta irakaskuntza ematen gastaturiko dirua zehazten baitzen Diru-kopuru hura Agirrerri aitaren ondasunetatik zegokion partetik kendu behar zen. Eta puntu horri buruz, Zabalza delakoak hauxe esan zuen: “el otro memorial de los tres mil y seiscientos y sesenta y cinco reales despues que la vio y leyo no lo quiso firmar (Juan Pérez de Agirre) diciendo que le havian aconsejado no firmase ningunas quantas y que el dicho Martin de Errazquin le dixo que no tenian razon las personas que tal consejo le davan y pues las partidas que en el estaban asentadas le havia dado y tenia recebidos hiciese otra claricia como la del otro memorial y la firmase, y que para ello entendiendo que lo firmaria escrivio el contador los dos ultimos renglones en el dicho memorial y que el dicho Joan Perez de Aguirre no la quiso firmar aunque haviendo visto y leydo las partidas del dixo que heran ciertas y verdaderas y que no las negava pero que como de suso tiene declarado, no la queria firmar y que de nuevo el dicho Martin de Errazquin le havia tornado a dezir al dicho Joan Perez de Aguirre que los que le daban tales consejos heran algunos desalmados y que no tenian conciencia pues le davan malos consejos y contra la verdad y que tornase a mirar el dicho memorial y biese partida por partida si eran ciertas



| Maria de Okendo andreak egindako gastuen kontularitza, Donostiako bizilaguna, (1616-1619). Iturria: AHPG-GPHA

y verdaderas y si los havia recibido o no y visto lo firmase, y que el dicho Joan Perez de Aguirre de nuevo en presencia del testigo y de los demas que de suso tiene citados le torno a responder al dicho Martin de Errazquin que la quenta del dicho memorial no negava el porque hera cierta pero por lo que le havian aconsejado, no la firmaria<sup>XXXVIII</sup>”.

Espediente horretan zehar ageri diren datu batzuek Nuestra Señora del Rosario itsasontziaren zenbait jardueraren berri ematen dute (Itsasontzi hori Juan Perez Agirre aitarena zen), Ternuako bakailoaren arrantzarekin zerikusia dutenak; tartean, bidaia-aseguruak ageri dira. Gainera, itsasontzi horri buruz dio Juan Perez eta Mariana Gonzalez Heredia ezkondu eta egina zela, eta hura egiteko erabilitako haritz gehienak Agirre etxeko jabetzetatik atera zirela, eta gutxi batzuk Bizkaitik eta Astigarragatik ekarri. Horregatik zen garrantzitsua etxeko lurretan haritzak izatea, haiek erabiltzeak eta saltzeak dirua sartzeko bide osagarri bat ematen baitzion familiaren ekonomiari.

Arrantzan eta merkataritzan nola jarduten zuten hainbat alderditatik ageri da. 1621ean, Agirrek Joanes Zigarroa hondarribitarra salatu zuen, esanez ez ziola eman hark Andaluziara kapitan bezala eramandako itsasontziaren irabazia, zeinean Juan Perezek 50 dukat inbertitu baitzituen, Katalina Heredia izebak emanak, haren oinordeko baitzen<sup>(4)</sup>.

Itsasontzi hura 7 urte lehenago abiatu zen Sevillara, eta orain Donostiako portuan zegoen lotuta, arrainez beteta iritsi ondoren. Horren aurrean, Agirrek eskatu zion Joanes Zigarroari negozio hartako kontuak garbitzeko eta izebak arrantzan inbertitutako 50 dukaten etekina emateko, baina ez zuen jaso Zigarroaren erantzunik.

4. AGG-GAO. CO MEJ 836.

Deklaratzera deitu zioten Zigarroari. Bere buruaren defentsan, halako negozioetan parte hartzeko moduarekin zerikusia duten zenbait alderdiren berri ematen digu. Esate baterako, hauxe dio: "puede haver cinco o seis años, estando este declarante de partida con su navio para la ciudad de Sevilla, un día se vio en esta villa con Catalina de Heredia, viuda, y como persona conocida le pidio a este declarante que le rescibiese cinquenta ducados para enplearlos y este declarante le respondió que no tenia necesidad pero que le rescibiria hasta treinta ducados<sup>XXXIX</sup>". Eta Joanes Altxakoak, zeina hila baitzen, beste 20 emango zizkiola.

Eta Ternuatik bueltan deitu ziola Katalina Herediari esanez ekarritako ardoak deskargatzera zihoala, eta etor zedila banaketa egitera, eta Herediaren erantzuna izan zela joka zezala ardoekin bereak balira bezala.

Handik 7 hilabetera, salmenta egin ondoren eta 30 dukatak gehi irabaziak izanik, Katalina Herediak berak eskatu zion inbertitu zezala dena Migel Lafargaren itsasontzian, zeina Katalina Herediaren senarraren lehengusua baitzen eta Kanarietara baitzihoan ardo bila, eta ez zela astirik izan bidaia horretako irabaziak garbitzeko, oraindik itzuli gabe baitzegoen.

Beraz, auzi horrek argi egiten du merkataritza-eragiketetan parte hartzeko prozesuari buruz: Andaluziara edo Ternuara doan itsasontzi baten berri ematen da; bertan dirutza bat inbertitzen da, dela dirutan dela mailegu edo zentsu baten ondorio, negozioan parte hartzeko; itsasontzi hori abiatzen da burdina eta manufakturatutako produktuak (iltzeteria, armak...) eramanez, saltzen du zama Sevillan eta gariz, ardoz eta arropaz zamatuta itzultzen da, eta salmentaren ondoren kontuak garbitzen dira, edo alderantziz, baleak eta bakailaoa arrantzatzen joan bada, Atlantikoan egindako denboraldiaren ondoren arrantza deskargatu eta merkaturatzeari ekiten zaio.

Jarduera horren funtzionamenduaren adibide bat ematen digu Juan Perez Agirrek. Horretarako, 1644ra arte egin behar dugu jauzi. Nuestra Señora del Rosario itsasontziaren erregistroan (250 tona), zeinean Agirrek, esan dugunez, laurden bat baitzuen eta maestrea baitzen, Nueva Españara abiatu behar zelarik Sanlúcar de Barramedatik Martin Carlos de Mencos buru zuen ontzidian, esaten da "persona esperta y a proposito para el dicho oficio<sup>XL</sup>" zelako izendatu zutela, hau da, eskarmentuaren bermea zuelako<sup>(5)</sup>. Bere eginkizuna betetzeko, fiantzak eman behar zituen, eta gainera bermatu behar zuen itsasontzia armaz, munizioz eta bestelako tresneriaz hornituta egon zedila.

Orobat, bere egitekoen artean zuen Nueva Españako kostaldean nabigatzen eskarmentua zuten bi pilotu iaio kontratatzea eta eskifaia eratzea, zeina osatzen baitzuten kapitainak, maestreak eta eskribauak (Martin Perez Ormaetxea), kostako pilotu aztertuek, 6 artillarik eta 18 marinelek, 16 ontzimutilek eta 8 morroik.

Interesgarria da, halaber, jakitea zer karga garraiatu zen Indietara, eginkizun horretaz ere arduratu behar baitzuen Juan Perezek: 70 kintal bizkotxo, 300 pegar ardo, 10 kintal okela gazitu, 20 kintal bakailao, 8 anega baba eta 6 anega garbantzu, 4 kintal arroz, 50 arroa olio eta 50 arroa ozpin, 400 pegar ur, 30 kintal egur eta bidaiarako gatza.

5. Archivo General de Indias, Contratacion 1188, N.1 R.1.

Mexikorako bidaia horrek ez zizkion bakarrik eman soldata eta espediziotik ateratako irabaziak Juan Perez Agirrerri. Hori baino probetxuzkoagoa izan zen, Amerikako lurretan kobratu baitzuen Tomasa Zuaznabarrekin ezkontzeagatiko ezkonsaria Tomas Zuaznabar aitagarrebagandik. Ikusten denez, berriz ere herrikideen arteko loturak ageri zaizkigu, Zuaznabar donostiarra baitzen, baina baita merkataria ere; halaxe sendotzen ziren babes- eta merkataritza-sare baten lokarriak, konfiantzazko kideak behar baitziren jarduera haiek burutzeko. Ezbairik gabe, ezkontza bat elkartasun-eduki nabarmeneko ekintza zen.

Ezkontza hartatik zazpi seme-alaba jaio ziren: Juan Perez, Antonio, Frantzisko (oinordetza ondasun guztien herena eta bostena gehituta jasoko zituen), Maria Ignazia, Josefa, Mariana y Tomasa Agirre. Horiek ere harrapatuko dituzte familia-ondasunen banaketagatiko liskarrek<sup>(6)</sup>.

Juan Perez Agirrek bertatik bertara bizi izan zituen 1620ko hamarraldian jesulagunen inguruan gertatutakoak ere. Nahiz eta gaztea izan, aldun nagusi zen 1623ko azaroan (28 urte zituen, eta ohiz kanpokoa zen hori), eta mandatari Hernanin egin ziren Batzar Nagusietan, Oñatiko Sancti Spiritus ikastetxe nagusiko arduradunekin eta haien errentekin sortutako arazoez jarduteko, baina mandatu eman zitzaion, halaber, galde zezan Josuren Lagundiak eta San Telmo komentua Donostian zituzten arazoez. 1621ean, Trinitate kalean bizi zelarik, hautesle izana zen urte hartan egin ziren hauteskundeetan, eta handik aurrera kale hartan bizi izango zen, Agirre etxearen ardura izatearekin batera, zeina hiriko harresietatik kanpora baitzegoen.

6. Loiolako Santutegiko Artxibo Historikoa (Jesuren Lagundia). Zurbano Etxearen artxiboa (Loiola). Auziak. 9. paper-sorta, 22.

Alde horretatik, J. M. Sadak dio nabarmendu egin zela, bere familiarekin batera, jesulagunen aldele deiberatu gisa, hirian jar zitezten, herritar gehienek iritziaren kontra. Esandako mandatu hori dela-eta egindako txostenean, familiaren aldetiko defentsa sutua baino gehiago, Agirrek Donostiako udalekoek une hartan sentitzen zutena adierazten du; izan ere, auzi hartan hiriaren parte baten ahotsa baino ez zen. Hain zuzen ere, jesulagunak hirian izateari buruz, urtean urteko udalbatzan nor zen talde nagusia, iritzia aldatu egiten zen. Agirrek aurkeztutako memorialak honela dio: "propuso y dixo que aviendo echo relacion lo que su villa le mando suplicase a su Señoria para que se sirviese de salir a la causa de la defensa de la Religión de la Compañía de Jesús en decir que los padres de la dicha Compañía de Jesús no eran alvortadores ni escandalosos ni ponian dicenciones ni discordias ni se metian en autos de gobierno y como a tales y ser hijos del patriarca San Ynacio de Loyola, hijo de su Señoria, devia salir por particulares obligaciones que le corrian como de tal hijo a la causa y defensa de esto, por ser siniestra relacion todo lo echo.



| Anonimo. San Ignacio de Loyola. Olio pintura. XX. mendea. STM

Y en confirmacion de que esto era espresa orden y verdadera presento la tal instruccion de su villa<sup>(7)</sup>.

Aldun nagusi kargua betetzeagatik, urte horretan 12 dukateko soldata jaso zuen. Negozio on batek ematen zuena baino dezentez gutxiago, baina hala ere Probintziako pertsonaia eragin handienekoen harremanetan jartzeko bidea ematen zion, balio ukiezina baina pisuzkoa zinez.

Hurrengo hamarraldira iritsirik, arazo judizialek hor jarraitzen dute Juan Perez Agirreraren bizitzan. Oraingo honetan, Katalina Heredia izebak zor zituen bi obligazio zirela-eta, aurre egin behar baitzien haren oinordeko zelako<sup>(7)</sup>.

Zehatzago, balea-koipeagatik obligazio bat eta ostatu-gastuengatik beste bat, Domingo San Roman artillariak eta San Juan Galarrga marinelak sinatuak, zeinak Maria Iturralde Donostiako biztanleari pasatu baitzitzaizkion. Zor horrek, zeinaren hasierak 1610eko data baitarama, erakusten du merkataritza-jarduerak ez zirela mugatzen gizonezkoetara. Aitzitik, emakumeen rola orain arte azaldu dena baino askoz aktiboagoa zen. Gehienetan salgaiak denda eta biltegietan merkaturatzearekin lotu ohi ditugu emakumeak, baina akzionista eta merkataritza-jardueretan parte-hartzaile gisa duten egitekoak sakon aztertzea merezi du.

Familiako ondasunengatik gatazkek hor diraute, eta halako auziak zenbateraino luza zitezkeen erakusteko, horra nola Juan Perez Agirre 1620tik 1652ra arte ibili zen auzitan bere ama Mariana Herediaren, haren senar Martin Errazkinen eta bien seme-alaben kontra, Katalina Luskando amona amaren aldetikoak utzitako ondasunak zirela-eta<sup>(8)</sup>.

7. Archivos de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Moreno. Pleitos Fenecidos. C 1815/3, L 336.

8. Archivos de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Balboa. Pleitos Fenecidos. C 2605/2, L 480. Idem, Pleitos Civiles. Escribanía Lapuerta. Pleitos Fenecidos. C 1999/4 - L 400.

Hain zuzen ere, Mariana Herediak beretzat eskatzen zituen amak, Katalina Luskandok, utzitako ondasunak; Juan Perez Agirre, aldiz, kontra zegoen, esanez ondasun haien oinordekoa zela Katalina amonak berak egindako testamenduaren arabera.

1632 aldera, Juan Perez Agirrek kapitain maila zuen eskuratua. Ez dakigu zehazki zer prozesuren bidez lortzen zen titulu hori. Baliteke erregeren zerbitzurako itsasontziak egiteagatik, trukean gizonen eta ontzidiaren gidaritza lortuz; baliteke gidari nagusia izateagatik merkataritza- edo gerra-espedizio batean, merkantziaren garraiolari hutsa izateaz harago. Titulu horrek, merkataritza ez ezik, gizartean ere ekartzen zituen abantailak, eta era guztietako ekintza publikoetan erakusten zen.

Juan Perez Agirre oinordeko izendatzearekin amaitu zen prozesua argitu egiten da Errazkinek eta Mariana Heredia emazteak egindako azalpenean. Katalina Luskandok, Martin Perez Arbelaiz eskribauaren aurrean emandako testamentuan (bitxikeria bat: Juan Arbelaizten aita zen eskribaua), Frantziska Heredia izendatu zuen oinordeko unibertsal, bere ondasunen heren bat eta bosten bat gehituta. Eta hura eta haren seme-alabak falta izanez gero, Katalina Heredia, eta hura seme-alabarik gabe hil zenez, Mariana Gonzalez Heredia, hirugarren alaba, auzi-eskatzaila, zeinari baitzegozkion Erregearen kaleko etxeak, Sarruetako Gorrostegiko etxeak (Martutene), eta haien jabetza guztiak eta sagardo-upelak, eta Katalina Luskando zenaren bi pitxer eta hiru kikara zilarrezko, oheak eta arropak.

Juan Perez Agirrek, berriz, zioen Katalina Herediak bera izendatu zuela oinordeko testamentuan, eta hura bigarren oinordeko zutela izendatua, Mariana Gonzalez Heredia ama ondasunetz gozatzen hasi baino lehen. Marianak, eskubide hari uko egiteagatik, 700 dukat jaso zituen,

gehi zilar landua, bitxiak eta arropak. Horri gehitu behar zitzaion Katalina Herediak Mariana Gonzalezen zorrak ordaindu zituela, beste 307 dukat.


Eta Katalina Herediak berak, Martin Lasala kapitainaren emazteak, eraiki eta hobetu egin zuela Garrostegiko baserria, aurrez zurezkoa baitzen, eta horma asko eraiki zituela dolareetarako, 300 dukat baino gehiago gastatu zituela haietan, eta 1.400 sagar-arbola landatu zituela.

1632an Martin Errazkinen eta Juan Perez Agirreraren artean konpromisoa hartu arren desadostasunei amaiera emateko, auzia 1650a arte luzatu zen, eta Errazkin eta Herediaren seme-alabak gehitu zitzaizkion auzi eskeari.

Erregearen kaleko (edo Probestuaren kaleko) etxe auzibidean jarriek, non bizi baitzen Juan Perez Agirre, sotoa eta denda ere bazituzten, eta horrek erakusten du merkataritza etxea zela; 98 dukat ematen zituen urtean.

Azkenik, Agirre bere ondasun guztien jabe egin zen, baina aurrez dirutza ederra gastatu behar izan zuen defentsan, eta Kantzelaritzak epaitutakoa ordaindu behar izan zuen, 200 dukat. Hain zuzen ere, Katalina Herediak testamentuan (1620ko otsailean) Agustin eta Gabriel Errazkin ilobei ordaintzeko ebatzitako dirukopurua.

Juan Perezen kontrako salaketek eragina izan zuten, nonbait, epaileengan. Izan ere, salatzen zuten hamar urte eta erdi baino gehiago igaro zirela testamentutik, eta ez zuela ordainketarik egin, nahiz eta Katalina Herediaren herentziak etekin eta errenta handiak eman; erraz ordain zezakeela zorra auzi eskatzaileen arabera, Katalina Herediak utzitako ondasunak 5.000 dukatetan kalkulatu baitziren, eta 120 dukateko errenta ematen baitzuten urtean. Horri Juan Perezen ondarea gehitu behar zitzaion: Agirre etxea, mendi asko, sagastiak, errota eta ganadua, dena 20.000 dukatetan tasatua, eta 400 dukatetik gorako errenta urtean, hiri barruko etxeak kontatu gabe.



| Maria Miguel de Alkizaren  
testamentua, alarguna,  
Donostiako bizilaguna. ca. 1595.  
Iturria: AHPG-GPHA



Zerbaitengatik deskribatzen da Juan Perez honela: “no es hombre adeudado y que agora dos años, poco mas o menos, redimio un censo que debia de trescientos ducados y a este mismo tiempo compro otro censo de otros trescientos ducados<sup>XLIII</sup>”.

Juan Perezen arrazoibideek, ikusi dugunez, ez zuten ondorio onik izan. Ezta zera adierazten duenean ere, “generalmente la gente anda tan alcanzada de caudal en el tiempo presente que aun los hombres que son respetados por muy ricos apenas alcanzan con que sustentarse<sup>XLIII</sup>”, eta eransten du bere ondarea ez dela gauza handia, eta ia ez zuela bizitzeko lain ere. Gehitzen du garai hartan etenda zegoela salgaien komunikazioa, eta oso garestia zela mantenua, eta gainera berak oso familia handia zuela, eta betebeharrei aurre egin beharra, eta oso zorpetuta zegoela. Esandako 200 dukaten zigorrarekin batera, Agirrek kartzelari egin behar izan zion aurre, ordaindu gabeko zor batzuk zirela eta.

Beste auzi batzuetan ere ibili zen sartuta, denak ere Agirre etxearen jabetzen ingurukoak. Hala, 1626an Joan Goiatz izen horretako etxearen jabe donostiarraren kontra ibili zen auzitan, Agirrek errota berri batzuetan egindako lanengatik, Goiazko etxearen jabetzei kalte larria egiten zietela-eta<sup>(9)</sup>.

Zioa Agirre etxearen lurretan egindako presa bat zen. Inbertsio hark, zeinak frogatzen baitu Juan Perezek ekonomia-auzietan zuen dinamismoa, tupust egiten zuen bi etxean artetik zihuan errekaostoa ustiatzarekin. Salaketa haren amaian kartzelan sartu zuten berriz ere Agirre; prebentziozko kartzelaldia, epaitutako kalteen ordainketa egiteko berme gisa ondasun batzuk gordailutu zituenean amaitu zena.

Diruaren balio-galtzeak eta horrek zekartzan arazoek ere zipiritzindu zuten Juan Perez Agirre. 1643ko urtea zen, eta Agirrerri ondasunak bahitu zizkioten Migel Lajust auzokoak salatu ondoren, oraingoan zentsu-eskritura baten interesengatik<sup>(10)</sup>.

Zentsu hura Juan Perezek eta haren ama Mariana Gonzalez Herediak sortu zuten 1635ean; ordurako, emakumea Martin Errazkinen alarguna zen, eta, dirudienez, konponduak zituzten aurrez izandako arazoak. Mailegutuan utzitako kapitala 800 dukatekoa zen, eta urteko interesak 40 dukatekoak. Juan Perezen asmoa diru hura 200 dukateko printzipala zuen beste zentsu bat kitatzen inbertitzea zen, zeina Frantzisko Ansusti zor baitzioten.

Halako eragiketen arazoa zera zen, ez ordainduz gero, galdu egin zitekeela berme gisa utzitako jabetza. Horrek argitzen du zergatik galdu ziren etxe eta baserri asko, eta zergatik metatu ziren oso esku gutxitan ondare izugarri handiak. Kontua da Agirre oinetxea zegoela jarrita abal gisa, etxearen jabetzekin batera: Antxume baserria, Garrostegi baserria, Loperdiko etxeak esaten zitzaizkien, San Jeronimo kalean, etxabe bat Poiuelo kalean, eta beste etxabe batzuk Perujantxo jalean. Amak, berriz, honako hauek jarri zituen berme gisa: mila dukat lehen senar Juan Perez Agirrekeriko ezkontzara ezkonsari gisa eramandakoak, 500 dukateko zentsu bat Martin Sanchez Arriola eta haren emazte Simona Hernandoren gainean sortua, 600 dukateko printzipala zuen beste zentsu bat Simon

9. AGG-GAO, CO LCI 655.

10. AGG-GAO, CO UEJ 414.

| Lau dukateko txanpona.  
 Carlos I. Valencia.  
 Bilduma partikularra



Miraballes Altzako biztanlearen gainean, Migel Txurruka kapitainak Sevillan saldutako itsasontzi baten laurdena, eta zilar landuzko 200 dukat.

Zazpi urtean interesik ez ordaindu ondoren, azkenik Lajustek auzia jarri zien Agirreri eta haren amari. Eta hor sartzen da diruaren balio-galtzea, Juan Perezek aipatzen baitu Migel Lajusten galerak azaltzeko. Azaltzen du, hain zuzen, 37 dobloi ordaindu zizkiola Lajusti 1642ko irailean, doi diruaren balioa jaitsi aurretxoan, bakoitzak 29 erreale zilarrezko balio zuelarik; guztira 1.033 erreale zilarrezko (3.099 erreale kobrezko), eta oraindik ere 19 erreale zor zituela Lajustek.

Agirre berriro kondenatu aurretik, lekuko batek, Frantzisko Leonek, beste datu interesgarri bat ematen digu bere aitopenean, Agirreren mailaz jabetzeko balio baitigu Lajusti egin zion ordainketaren bidez: “estando este que depone y el dicho Miguel de Lajust en la puerta de esta dicha Villa azerto a salir fuera de ella el dicho Juan Perez de Aguirre a cavallo y le advirtio al dicho Lajust y luego el le llamo y ambos en su presencia ablaron en horden a que le havia de dar dineros y el dicho Juan Perez de Aguirre le dio asta en cantidad de treinta doblones y tubieron disputa si havian de ser cada doblon para desquento de su debito a razon de veinte y nueve o veinte y ocho<sup>XLV</sup>”.

1649an, Juan Perez ageri da salatzaile. Salaketaren arrazoia bere jabetzako idi

batzuk harrapatu izana izan zen (51 dukatean zenbatetsia), Agirre etxeko lurretan larratzen ari zirela. Nikolas Arbiza salatuari egozten dio enkante publikoan saldu zituela Hernanin, eta zezen bat ere eskaini zuela herri hartako San Juan jaietarako, eta bere idi-pareak egindako kalte guztiak ordaindu zituela; ez zuen erantzunik jaso<sup>(11)</sup>.

Bernardo Agirre kapitainaren kasuan bezala, esan dezakegu ekonomia hark mozkina eman zezaketen arlo guztiak hartzen zituela.

Familako ondasunen administrazioari buruzko arazoak konponduta zeudela zirudienean, ikusten dugu nola 1652an betetzen den ebazpena betetzeko agintzen zuen beste gutun bat, aurreko urtean Valladoliden emana<sup>(12)</sup>. Zerikusia du Juan Perez Agirreri aurrez jarritako 200 dukateko zigorrarekin, izeba Katalina Herediaren testamentuko klausula bat ez ordaintzeagatik, zeina 1651. urtean artean kitatu gabe baitzegoen; hori zela-eta, Martin Errazkinek eta seme-alabek Juan Perezen ondasunetatik kopuru hori kentzea eskatu zuten.

Hark, ordea, ez zirudien zorrak kitatzearen oso aldeko. Oraingo honetan, beraren kontra emandako gutun betearazlea eta guzti, auzia 1668ra arte luzatu zen, eta hasierako auziari bi aldeetako seme-alabak erantsi zitzaizkion, eta 560 dukateko beste zor bat 600 dukateko zentsu baten interesengatik, Oñatiko mojei zor baizitzaizkien 1627tik 1646a arte.

Juan Perezek ordainketa atzeratzeko emandako arrazoia zera izan zen, diru-kopuru horretatik zenbait kenketa egin behar zirela: zentsuaren parte bat ordaindua eta kitatu zuelako, eta Martin Errazkin auzi eskatzaileen aitak Agirre etxean kontsumitutako egurragatik.

Martin Errazkinek 1604 eta 1618 artean kontsumitutako egurra justifikatzeko lehen galdeketan, Juan Perezek berari ordaintzea zegokion dirutzatik deskontatu nahi baitzuen, galdetzen du ea lekukoek bazekiten ezen Martinek “tubo en su casa muchos mercaderes yngleses y otras naciones de mucho trato y comercio y algunos de ellos con criados, dandoles de comer y todo lo necesario para sus sustento y ropa limpia según lo dan otros que reciben en sus casas semexantes huespedes<sup>XLV</sup>”.

Horri buruz, Frantzisko Urdanaok erantzun zuen ezen Errazkinek “tuvo en su casa muchos mercaderes yngleses, franceses y flamencos y tambien algunos castellanos y quando se

11. AGG-GAO, CO LCI 1213.

12. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Balboa. Pleitos Fencidos. C 3354/1, L. 623.



ofrecia venir algun embajador del Reyno de Ynglaterra u otro cavallero estrangero solian ospedar en su casa<sup>XLVI</sup>. Berriz ere, unibertso elitista bat ageri zaigu, herri xehearen bizimodutik urrun zegoena, eta nazioarteko harremanek markatua, orriotan ageri diren pertsonak une hartako inteligentsiaren besotik ibiltzeraino.

Esan dugunez, Juan Perezek ez zuen ikusi salaketa berri horren azkena. 1653an hil zen; urte hartako ekainean egin zuen testamentua, eta ondasun guztien heren bat eta bosten bat gehituta utzi zuen oinordeko bere seme Frantzisko Agirre, zeina orduan Indietan baitzebilien.

Oinordeko izateak berekin zekarren norberaren gain hartzea hala errenta eta ondasunen nola zor eta kargen ardura, bai eta etxea defendatzea, kontserbatzea eta emendatzea ere. Aurrerantzean, Frantzisko Agirrek egin beharko zien aurre aitaren kudeaketatik zetozen arazoei; besteak beste, ezkontzaz kanpoko seme bat izatea, Martin Agirre, zeinak ez baitzuen zalantza handirik izan amak, Magdalena Otorak, beraren mantenuan gastatutakoa galdatzeko<sup>(13)</sup>.

Martin Agirrek eskaeraren arrazoiak laburbiltzen ditu salaketan. Hala, dio ezen, aita-amak ezkongabeak izanik, eta Juan Perezek ezkontzeko hitza emanik, “trato y comunico de amores a la dicha Madalena de Otorala<sup>XLVII</sup>”, eta horren ondorioz jaio zela auzi eskatzailea. Eta halakotzat hartua izan zela, eta are aitaren testamentuan hark agindu zuela bizitzeko behar zituen elikagaiak eman zekizkiola, “como a hijo natural según la cantidad de sus bienes, que fueron mas de treynta mil ducados<sup>XLVIII</sup>”. Eta ondare hura izan arren, 50 dukat besterik ez zizkiola utzi. Beraz, amak bera hazten, zaintzen eta mantentzen gastatutakoa eskatzen zuen.

Horretarako, Agustin Errazkin osaba, Donostian bizi zena, ahaldundu zuen anai-arrebak sala zitzen. Lehenik,

arbasoen distira frogatzen saiatzen da. Esaten du aita-amak Donostiako Agirre Antxume etxekoa eta Leintz haraneko (Aretxabaletako) Otorala etxekoa zirela hurrenez hurren.

Orain, ezkondu eta familia handia eta zor asko izanik, zegokiona eskatu beharrean zegoela, eta bi mila dukat eta aitaren ondasunen bosten batean jotzen zuela hori.

Ondoren, Frantzisko Agirreraren defentsaren txanda dator. Aitortu zuen ezen, nahiz eta ezkontzaz kanpoko semea izan, ondasunen bosten bat uztea aitak hartu beharreko erabakia zela, eta ez zuela hartu, baizik eta 50 dukat bidali zizkiola, zeinak, gainera, Agirre etxeko jabetzetatik ateratako zuretan hartu beharrekoak zirela, anaiordeak aretazan egindako etxea eraikitzeke, han ari baitzen sokagile lanetan, bere ofizial eta ikastunekin, bizitza modu onean ateraz; izan ere, “bive muy bien reparado<sup>XLIX</sup>”.

Martin Errazkinen aitortpena nabarmenduko dugu, Martin Errazkin eta Mariana Herediaren semearena. Aitortpen interesgarria, Juan Perezen anaiordea zelako eta lehen eskutik zuelako gertatutakoaren berri. Hasten da esanez garai hartan Juan Perez Trinitate kalean bizi zela, aitaren (Martin Errazkinen) etxean, zeina mugante baitzegoen Magdalena Otoralaren etxearekin, eta emakumea “habiendo tomado amistad y comunicación con el dicho Joan Perez de Aguirre la ubo y privo de su onestidad, linpieza y de la reputacion de donzella en que estava...<sup>L</sup>”.

Hauxe gehitzen du, halaber: “cuando se caso el dicho Joan Perez de Aguirre dejando a ella con otra oyo decir que la dicha Magdalena de Otorala era tan merecedora como la otra para ser muger legitima del dicho Joan Perez aunque no tenia el caudal de la otra y que era cosa cierta que el haverse sujetado a la voluntad del dicho Joan Perez de Aguirre para desflorarla fue fundandose en haverla dado palabra

de casamiento<sup>L</sup>”. Eta Joan Castrok, beste lekuko batek, dio Otorala hura honelakoa zela: “muy cumplida de ermosura, discreccion y otras buenas partes que la acian digna de ser muger legitima del dicho capitan, aunque no lo consiguio<sup>LII</sup>”.

Horiek horrela, epaiak kodenatzen ditu Frantzisko Agirre eta anai-arrebak Martin Agirrerri 200 dukat ematera behingoa.

Ez dirudi oso kopuru handia, Juan Perezek utzitako ondarea kontuan izanik, zeina 1664an zehaztuko baita esandako espediente judizialean, hartarako izendatutako peritoen bitartez; Juanes Ostoa, Juanes Unbaranbe eta Felipe Arrieta.

Lehenik, Agirre etxeetako hargintza- eta zurgintza-lanak (18.547 erreal); errotako presako eta hiru errotarritan egindako hargintza- eta zurgintza-lan zaharrak (2.860 erreal); Agirre etxearen jabetzako lurak, hots, mendi-lurrak, txarak, sagastiak eta eremu landugabeak (9.856 erreal); eta beste zenbait lursail, milaka errealeko baliokoak.

Esanguratsua da garai hartarako desagertu izana Agirrek Nuestra Señora del Rosario itsasontzian izandako parte, eta ez aipatzea ganadua eta hiri barruko ondasun higiezinak. Ondasunen galera horri Frantzisko Agirre seme eta oinordekoak saiatu beharko zuen buelta ematen.

13. Idem, Pleitos Civiles. Escribania Masas. Pleitos Fenecidos. C 1793/1.

# Joan de Arbelaitz

Donostia,  
circa 1560-1629

Orain arte, kapitain titulua zuten bi pertsonaiaren negozioak, inbertsioak, parte hartze publikoa eta arazoak ikusi ditugu; alegia, kategoria horrek merkataritza eta arrantzako jardueretara mugatzen zuen haien soslai. Juan Arbelaitzek, aldiz, izaera administratiboko banako bat nortzen du, kargu publikoak betetzearekin lotua, baina, hala ere, ez interes gutxiagokoa edo ñabarduretan pobreagoa.

Arbelaitz pertsonaia esanguratsua da Espainiako Gortea periferiarekin lotzen duen sare sozial eta politikoa; kasu honetan, mugatik gertuko hiri batekin, zeinak merkataritza- eta arrantza-jarduera handia baitzuen, eta gainera plaza militarra baitzen.

Haren bizitzako zati handi bat beste donostiar eta gipuzkoar gailen batzuk Gortean aritu izanarekin batera gertatu zen (Juan Idiakez, Domingo Etxeberri, Juan Insausti, Martin eta Antonio Arostegi); haien zerbitzuan jardun eta informazioa ematen die, eta trukean prebendak, karguak eta gizarte-lehentasuna lortzen ditu hemengo boterearen baliabideak kontrolatzeko, eta dirua hainbat ondasun erosteko.

1555-1560 aldera jaio zen, Donostian; Martin Perez Arbelaitz eskribaua eta Maria Miguel Santiago, Santiago leinu garrantzitsukoa zituen aita-amak, biak ere Donostian bizi zirenak.



Haren jardueraz dugun lehen albisteak erakusten digu hemen aztertzen ari garen beste pertsonaiengandik desberdintzen duen bereizgarri bat. 1582. urtean gaude, eta Juan Arbelaitz Milanen dago, errequisitoria bat eskatzen bere ondasunak babesteko, erregeren armadako kutzazain-lanetan ari baitzen, Pedro Lopez Orduña diruzain nagusiaren esanetara<sup>(1)</sup>. Fidantza aurkeztea nahitaezkoa zen kargu hartan jarduteko, dirutza handiak erabiltzen baitziren eta galera edo kudeaketa txarren bat gerta baitzitekeen. Martin Arriolaren esku utzitako diru-kopuruak ondare nabarmen handia zuela adierazten digu: 2.000 dukat urre-zilarrezko.

Juan Arbelaitzen aurkezpen-gutun bat gorde da, Milanen datua 1581eko otsailaren 21ean: “magnífico señor Martin Perez de Arbelaitz, español de la ciudad de San Sevastian, de la provincia de Guipuzcoa, al presente estante residente en Milan, en la puerta Nueva y en la parrochia de Santo Eusebio de Milan y a benido por caxero y en el oficio de caxero de las cosas de la milicia y exercito ante el señor Pero Lopez de Orduña, tesorero general de su catolica y real magestad en este Estado<sup>LIII</sup>”.

Ez dakigu zehatz-mehatz nola lortu zuen Arbelaitzek kargu hura, ez eta zer bitartekaritza eta aldekotza jari ziren lanean kutzazain-lanbidean hasten den arte. Alde horretatik, esan behar da donostiar ospetsu bat nabarmendua zela italiako arazoetan, non Genoba eta Venezia enbaxadetan aritu baitzen 1573tik, urte hartan alde egin baitzuen Donostiatik, 1579a arte. Juan Idiakezi buruz ari gara, noski, zeina, gainera, Felipe II.a erregeak Estatu Idazkaritzarako deitu baitzuen 1579ko abuztuan, Antonio Perez kargutik kendua ordeztzeko, italiako auziez arduratzeko.

Beraz, baliteke esanguratsuen hor suma daitekeen kontaktu-sarea izatea, edo hobeto esan, familiako kontaktuen sarea, Donostiako harresietatik Milan hiri garrantzitsuraino eramane zuen.

Juan Arbelaitzek ez zuen luze iraun Italian.

Hurrengo urtean (1583), Inkisizioko Ofizio Santuko idazkari-lanetan aurkitzen dugu gure pertsonaia, Donostian. Aitaren ondorengoa izan zen horretan, Martin Perez Arbelaitz 20 bat urtez aritua baitzen postu hartan. Fiskal-lan horren garrantzia,


itsas portu zen hiri batean, bistakoa da. Merkantziak, pertsonak, informazioa... hori guztia begiratu beharra zegoen. Baita sorgintzarekin eta itsas jardunarekin zerikusia zuten zenbait alderdi ere; horietan nahastuta ibili zen Arbelaitz. Goazen banan-banan.

Galde daiteke, lehenik, zein ote ziren Inkisizioko komisarioak eta senideak. Esan izan da ezen komisario izateko elizgizon izan beharra zegoela, baina Juan Arbelaitzek gezurtatzen du baieztapen hori; izan ere, kargu hura izan arren, ezkondata egon zen, geroago ikusiko dugunez. Bere egitekoen artean zeuden, hasteko, senideen zereginak koordinatzea, Ofizio Santuko karguetarako hautagaien genealogiak ikertzea eta informazioak bidaltzea barrutiko Auzitegira. Horri gehitu behar litzaioke, Donostian, itsas portua zenez, itsasontziak ikuskatzea.

Gai horretan adituak direnek diotenez, “ser familiar no sólo suponía un beneficio individual sino también una distinción para el grupo familiar. Por eso, cada vez más, las familiaruras irán recayendo en determinados clanes, hasta el punto de constituirse prácticamente en hereditarias. Los vínculos de los familiares del Santo Oficio con los linajes que detentaban el poder político eran muy habituales<sup>(2) LIV</sup>”.

Itsas portuetan, Ofizio Santuko komisarioek egindako ikuskapenak zirela-eta, ohikoak ziren arazoak; gehienetan, zerikusia zuten erregistroak fiskalizatzeko ardura zutenen jardura okerrarekin. Juan Arbelaitz bera halako batean nahastuta ibili zen 1588an. Urte hartan, Donostiako udalbatzak eskatu zien Logroño inquisidoreei kargutik kentzeko hiriko inkisizio-komisarioa: “y que en lugar del doctor Arbelaitz, que hace el oficio de comisario,

1. AGG-GAO, CO ECI 456.



| Habsburgotarren jabetza lurren mapa European... 1547 Iturria: The Cambridge Modern History Atlas, Cambridge University Press: London, 191

2. I. REGUERA: “Poder inquisitorial: el control de la costa y la defensa de la ortodoxia en la ría del Nervión”, in <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/lankidetzan/23/23079098.pdf>

provean lo que más convenga al servicio de Dios Nuestro Señor y paz y quietud de esta República<sup>LV</sup>”.

Atsekabea kobroetan izaten ziren gehiegikerietatik zetorren: “el Comisario del Santo Oficio que reside en esta villa, so color de derechos ni lleva los cuatro reales de imposición que llevan de cada nao que aportare en el muelle; y los ocho reales en el Pasaje; y por las mercaderías de cada mercader, aunque hayan venido muchos mercaderes en un navío, de cada mercader los dichos cuatro reales, so color de visita, no los pudiendo llevar<sup>LVI</sup>”.

Halako gertaerak izango ziren kostaldeko beste leku batzuetan ere, baina askoz gutxiagotan gertatuko zen Juan Arbelaitez bizi izandako beste pasadizo bat. Resurreccion M. Azkuek kontatzen duenez, komisarioritza-lanetan sorginkeria-kasuak izan zituen esku artean, itsasoarekin zerikusia zuten alderdietan<sup>(3)</sup>.

Sorgintza eta itsasoa lotzen ditu, hasteko, eta ondoren Arbelaitez protagonizaturiko kasura iristen da. Honela dio: “bruxos, en el pacto que tienen hecho con el diablo, dicen nuevas de lo que pasa en la mar y en cabo del mundo: a veces con verdad y a veces con mentira, porque se ha visto por experiencia decir al segundo día del suceso lo que pasó en cien leguas y en quinientas y ser así verdad y no poder averiguar quien fue el primero que lo dixo, y esto ser la causa impulsiva por que se hacen bruxas, por saber nuevas de sus maridos e hijos que andan a las Indias y a Terranova y Noruega, y también por actos de lujuria y por el estipendio que les da el diablo y por comidas, aunque malas y desabridas, y que entradas en la mala secta y profesadas les parece imposible salir de ella y no quieren convertirse ni decir la verdad y dicen, como dudando, que no pueden creer que hay bruxas.

Joan de Arbelaiz, secretario del santo Oficio en la villa de San Sebastián, dijo que una mujer declarada por bruja le

presentó una olla de unguento que el diablo le dio para ir untada por los aires, y lo tenía guardado para imbiar a los inquisidores de Logroño, y que la tenía señalado dentro de la boca con un punzón agudo que tiene en la uña. Las francesas dicen que han visto esta señal impresa en el muslo izquierdo y metido una aguja no sienten dolor<sup>LVII</sup>”.

Pasadizo polita, herri-pentsaera eta sinesteetara garamatzana; haiekin bizi zen eta jardun behar zuen Juan Arbelaitez, Inkisizioko Ofizio Santuko komisario-lanetan, baina ez dakigu norainoko zorrotasunez hartu zuen herri-pentsaera hori. Bere bizitzan zehar erakutsitako beste jarrera batzuen arabera, ez dirudi oso zorrotz arituko zenik.


Dena den, betebeharrak publiko horrek ez zion galarazten negozio pribatueta parte hartzeko; merkataritza-kontuetan, noski. 1594an, auzia jarri zuten bere auzo Markesa Irigai eta haren senar Pedro Iriarteri, 450 anega gari ordaintzeko eskatuz, bi urte lehenago eman baitzuten sal zezaten, eta une hartara harte ez zuelako inolako dirurik jaso<sup>(4)</sup>.

Zehazki, Arbelaitez azaltzen du bere salaketan ezen 450 anega haiek ahalik eta preziorik onenean sal zitezten eman zituela Markesa Irigarai zeraman dendan, 20 errealean anega.

Arbelaitez merkantzia hura nola erosi zuen Martin Olaizolaren adierazpenaren bitartez dakigu; Arbelaitez morroia zen Olaizola, eta 17 urte zituen. Honela kontatzen du nola lortu zuen nagusiak garia: 200 anega itsasontzi eskoziar batetik, eta beste 250 itsasontzi irlandar batetik, biak ere portuan kairatuta. Batzuk eta besteak eman omen zizkion Markesa hari sal zitizan, eta bera aurrean zela esan omen zion Arbelaitez Irigarairi “que no quería que el dicho trigo vendiese a ningun soldado, porque mas queria que se perdiese y podriese que no dar a los soldados<sup>LVIII</sup>”. Herritarren eta soldaduen arteko estsaigo hori betidanikoa zen hirian. Militarren araudi propioak enfrontamendu ugari eta soldaduen jokaeraren aurreko mesfidantza eragiten zuen; gorputz hura arrotza zen bertakoentzat, eta bere arauak zituena.

4. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid, Pleitos Civiles. Escribanía Taboada. Pleitos Fenecidos. C 364/3, L 71.

| Richard Polter ingelesak egindako planoaren detailea, 1581. Britaniar Biblioteka Bilduma, Londres.



3. Euskalerrriaren Yakintza, s/n (395).

Markesa Irigaraik, berriz, esan zuen bere defentsan ezen Juan Arbelaitzek emandako garia hezea eta egoera txarrean zegoela, eta prezio apalagoan saldu behar izan zuela; prezioa are gehiago jaitsi behar izan zuen, Donostian gari asko sartu zelako eta ondorioz merkeago saldu behar.

Donostiak XVI. mendearen hondarrean hirian izandako izurritea zela-eta jasandako zailtasunek eragin zioten Arbelaitzi ere. Hori, hala ere, larriagotu egin zuten jarri zizkioten diru-isunek, Milanen egindako egonaldiaren azterketa zela-eta, hara itzuli baitzen mandatari, Felipe II.a erregeari zerbitzu egitera<sup>(5)</sup>, eta han kondenatu zuten 1.500 dukat ordaintzera; dezenteko dirutza hura barka ziezaioten ahalegin zen, honako idatzi hau aurkeztuta:

“que cumpliendo con su conciencia y con la precisa obligacion que tiene al servicio de V.M. le hizo muchos y muy importantes servicios en la misma visita, como lo save el visitador don Luis de Castilla, a quien podia V.M. ser servido mandar ynformarse.

Atento a lo qual y a los grandes trabajos y gastos que por razon de la dicha visita a padecido y a que de presente se halla alcanzadisimo por las calamidades notorias que huvo y ay de peste en San Sevastian, su patria, donde vive y ha asistido en todas ellas, suplica humildemente a V.M. que en remuneracion y premio de los dichos servicios y de los que ha muchos años que haze y ba continuando en el cargo que tiene de Secretario del Santo Oficio en aquel puerto, se sirva de mandarle remitir la dicha pena pues si el confiado en la real clemencia de V.M. no confesara su culpa, no se le averiguara cosa alguna por la qual mereceria a que es justo se tenga consideracion por hazersele la merced que pide<sup>LIX</sup>”.

5. Archivo General de Simancas. Consejo de la Cámara de Castilla. VI - Cámara de Castilla. 94 - Memoriales y expedientes. Leg. 801. 1 Folio.



| Juan de Austria erretratuaren argazkia, Herbehereetako gobernadore. STM

Egindako zerbitzuengatik ordainaren eskaera 1600eko abenduan agertu zen. Alde horretatik, erregeari eta jaun handiei zerbitzu publikoa egiteak, gehienetan, diru-inbertsio handia eskatzen zuen, zeina berreskuratzeko esperantza izaten baitzen mesedeak eta karguak jasotzearen bidez. Batzuetan, botere-iturrietatik zuzenean zetozelako, eta, besteetan, saria zuzenean eskatuta. Horrelako zerbait ikusten dugu 1600eko abenduan; urte hartan, Juan Arbelaitzek memorial bat aurkeztu zuen, Irungo postari nagusi gisa, zeinean 30 ezkutuko mantenua eskatzen baitzuen Hondarribian, bere zerbitzu guztiak postan eta Frantziatik eta beste leku batzuetatik espioiak hartzen eta ostatu ematen jarrita zeuzkalako<sup>(6)</sup>.

Kontu horrek gaizki ulertua sor dezake, izan baitzen beste Juan Arbelaitz garaikide bat, hura ere postari nagusia. Baina Martin Perez Arbelaitz aitari buruz egiten diren aipuek, karguan haren aurrekoa izan baitzen, zalantza guztiak ezabatzen dituzte zeregin horrekin zuen zerikusiaz.

6. Idem, Consejo de Guerra. XI - Guerra y Marina. 177 - Secretaría de Mar y Tierra. L 570

Nolanahi ere den, memorial horretan Juan Arbelaitzek kontatzen du nola aitak Erregea zerbitzatu zuen 1565etik 1583a arte, abisuak emanez batez ere García de Arceren kapitaintzan; izan ere, garai hartan bere burua eskaini zuen honetarako: “empiar a Francia y a Flandes al señor don Juan de Austria y a los gobernadores y embajadores de Ytalia dando avisos de mucha ymportancia, habiendo para ello correspondencia con muchos cavalleros franceses yendo el personalmente muchas veces y dados muchos dineros a los correspondientes (sin haverse los pagado ni hecho merced ninguna por ello)<sup>LX</sup>”.

Gehitzen du berak ere zerbitzu hartan jarraitu zuela, eta behar ziren abisuak eman zizkiela jeneralei eta Estatu Kontseiluei, “por cuya orden ha ido a Francia con mucho riesgo de su persona y en su casa ha ospedado siempre los espías que an venido de aquel Reyno porque no fuesen descubiertos, gastando en esto mucha parte de su hacienda<sup>LXI</sup>”.

Eta jarraitzen du esanez ezen 1585tik 1591 arte, denboraldi horretan Frantziarako pasabidea itxita egon baitzen, postari nagusi izan dela, Erregeak Frantziara, Flandriara eta beste leku batzuetara bidalitako postei bide emanez eta leku haietatik bidaltzen zituztenen izapideak eginez, orobat bere etxeko dirua jarri hartarako. Eta harrezkero arduratzen da ” en las inteligencias de Ynglaterra, Flandes y Francia que trata don Juan Velazquez con el mismo gasto de espías y otras personas<sup>LXII</sup>”, eta ez zerbitzu horiengatik ez aitak egindakoengatik, ez zaie egin inolako mesederik.

Oraingo honetan, Gerra Kontseiluak eskaria onartu zuen, eta mantenurako 30 ezkutuko saria eman zitzaion.

Informazio-lan horren harira, Juan Arbelaitzek memorial askotxo bidali zituen. Besteak beste, Martin Perez Arbelaitz aitak gordeta zeuzkan paperekin sortutako arazoaren berri ematen du; eskribaua zen hura, eta emeak, garrantzi handiko auziekin batera –hala nola hainbat itsasontzi

egiteari buruzko txostena Gerra Kontseilua jakinaren gainean jartzeko-, argibideak eskatzen ditu, halaber, aitak sortutako dokumentazio guztiari buruz; izan ere, Luis Guarnizok (guk aztertutako beste pertsonaia baten aita, Juan Martinez Guarnizo kapitainarena; horrek erakusten digu pertsonaia horietako batzuen artean harremanak izan zirela, garaikideak baitziren) eskatua ziola zenbait aldiz eskribautzan aurretik izandakoari (Juan Guarnizo<sup>7</sup>, Juan Martinez Guarnizoren osabari) zegozkion paperak eman zekizkiola.

Kontu horrek hor dirau oraindik 1606. urtean. Urte hartan, zedula bat eskatu zuen berriz, norbait izenda zedin Gipuzkoako probintzian egindako itsasontzien armadei buruzko paperak hari emateko, aitaren eskuetatik jaso eta berak baitzituen artean ere<sup>8</sup>. Horrek berorrek erakusten du zer garrantzia zuen beraren familiak Inperioko itsas armadarentzat hil edo bizikoak ziren arazoetan; esate baterako, ontzidirako itsasontziak egitean. Arbelaitzek dio txosten horretan ezen Kristobal Barrosek, ordurako zendua, Diego Maldonado Errege Armaden eskribau nagusiaren ahalordeduna, aita Martin Perez Arbelaitz izendatu zuela errege eskribau eta Donostiako eskribau publiko, eta horrenbestez, beraren eskuetatik pasatu behar zutela probintziako lurraldean egin zitezen itsasontzietako kontaduria-liburuek, bai eta itsasontziguileei emandako errege-maileguez ere.

Sendotuz zihoan Juan Arbelaitzen tokiko ibilbide publikoa, kanpoan zuen proiektioari esker. Batzar Nagusiek 1603an Azkoitian egindako saioan, mandatari bidali zuten Ingalaterrako erregearen adiskidantzaz informazioa jaso zezan, horrek eragin handia baitzuen hiriaren merkataritzan, eta agindu zitzaion, halaber, itsas

7. Idem, Consejo de Guerra. XI - Guerra y Marina. 177 - Secretaría de Mar y Tierra. L 680, L 683, L 686, L 687.

8. Idem, Consejo de Guerra. XI - Guerra y Marina. 177 - Secretaría de Mar y Tierra. L 661.





harraparien eta armadaren itsasontziak har zitzala bi nazioen arteko adiskidantzaren izenean. Informaziozeregin hartarako, garrantzitsua zen Gortearekin irekita zuen komunikazio-bidea, han zenbait gipuzkoar ahaltu baitzeuden kokatuta, bai ea Ofizio Santuko komisario zen aldetik ekar zezakeen informazioa ere, haren belarrietara munduko hainbat aldetatik iristen baitziren albisteak.

Urte hartan bertan, Santa Mariako elizako maiordomo gisa, kontu eman zion udal korporazioari, esanez ezen "abia echo traer los balustres y otras cosas para hacer el pulpito principal de dicha yglesia<sup>LXIII</sup>".

Hirian zituen adiskideen artean zeuden bertako biztanlerik gailenak. 1604an Maria Zandategi Migel Okendoren alargunarekin egindako akordioa<sup>(9)</sup>, Santa Mariako elizaren atzealdeko lurzoru batzuk zirela-eta, harresien barruko espazio-arazoen eta lurra baliatzeko saioen berri emateaz gainera, Okendo familia gailenarekin zituen harreman onen erakusgarri bat da.

Aurrez baratza izandako lursail batengatik tirabira enfrentamendu eta etsaigo bihurtu baino lehen, bai Arbelaitzek eta bai Maria Zandategik nahiago dute auzia epaile lagunen eskuetan jarri eta haien irizpenari men egin, bi aldeen artean “la amistad y hermandad<sup>LXIV</sup>” gordez.

Epaiaik zioen andre Mariak hiru ukondo lur eman behar zituela bere dolareek hartzen zuten lurzorutik eta gaztelura zihoan herribidetik, elizaren kantoitik hasita San Telmoko komenturantz. Arbelaitzek, berriz, sei ukondo eman behar zituen ondoko bazterrean.

Hartara, alde bakoitzak nahi zituen hormak eraki ahal izango zituen, eta hartzen zuten lurra biena izango zen.

Barrura begira distirdun familiekiko “adiskidantza eta senidetasuna” ikusten dugun bezala, kanpoaldean zituen harremanak ere paretsukoak ziren. Hala, urte hartan bertan gutun-truke bizia izan zuen Domingo Etxeberrirekin, zeina Juan Ldiaketz kontseilariaren idazkari baitzen; Gatelako Kondestableari Frantzian egin zioten harreraren berri eman zion, Etxeberrik hartaz agindutakoa betez<sup>(10)</sup>: “como el Condestable llego en aquella ciudad a primero (Paris) y que paso a Fonteneblau, a donde estaba el Rey christianisimo, el qual les ospedo mui suntuosamente, quien y la Reyna le han hecho particulares caricias y demostraciones de la amistad y contento, comiendo S.M con su Exc. y con los cavalleros de su mesa,

y llevandole a caza y a otros ejercicios de gusto. Y haviendole entretenido en esto tres o quatro dias, proseguio su viaje ()

Que dos cosas ha heho muy propias de las que se podian esperar de su gran talento, ya en Francia han dado licencia para sacar el grano y aguardan a que de aca vaya la ratificacion de lo concertado, que ya pienso ha ido para comenzar el comercio que ha sido un bien general<sup>LXV</sup>”.

Ekonomia partikularren kudeaketari dagokion jardunbidea aurreko kasuetan erabilitakoaren antzekoa da. Lurretan inbertitzea zen estrategiarik agerikoenetako bat. Zura itsasontzientzat eta eraikuntzarako, sagar-arbolak sagardoa saltzeko, etxerako eta herriak hornitzeko zerela: horiek ziurtatua zuten etekin ekonomikoa. Lurra balioa galtzen ez zuen ondasun bat zen, eta, aldi berean, familiaren ondasunen balioa emendatzen laguntzen zuen.

Batzuetan, auzibide judicialak izaten ziren landako jabetza haiek zirela-eta. Halaxe gertatu zen 1607an, Arbelaitzek hiriko errejidore-kargua zuen urtean, Itsas Armadako galeoien prestakuntzaz arduratzeko. Data hartan, aldeko gutun betearazle bat hartu zuen, zeinak buru ematen baitzion Frantzisko Zubieta Errenteriako biztanlearekin izandako auziari<sup>(11)</sup>.

Arbelaitzek Zubieta salatu zuen bide penaletik 1604an, berak eta Maria Juan Aierdi emazteak Errenteriako herrian aldatuta zituzten 250 haritz baino gehiago erauzteagatik. Kereilan, Arbelaitzek dio Zubietak mehatxu egin ziola, berriro aldatzen bazituen berriro erauziko zituela.

Salatuak, Frantzisko Zubietak, zioen bere alde ezen zuhaitzak aldatutako lursaila berea zuela, Gabierrotako errotan aldean, bere jabetzan.

Lehen auzialdian, korrejidoreordeak, Juanes Amezketak, bera ere Donostiako bi alkateetako bat, Arbelaitzen aldeko erabakia hartu zuen. Zubietak Kantzelaritzara egindako helegiteak ez zuen ondoriorik izan, erreklamazioa goragoko auzitegi batera eramateak zekartzan gastuez gainera, Valladoliden korrejidoreordearen auzi-agiria berretsi baitzuten.

Ez dakigu Arbelaitzek Gorteko pertsonaiekin edo probintziako goi-administrazioarekin zituen harremanek haren aldera jokatu ote zuten. Pentsa dezakegu ondorio ona izan zutela. Izan ere, 1610ean, hiriko errejidore zelarik, Jeronimo Soto ingeniari militararekin Donostian eraiki beharreko gotorlekuaz hitz egiteko mandatu eman zioten. Soto ez zen edonor. Bi urte lehenago, Juan Ldiaketz enxearen eta San Telmoko eliza eta sakristiaren lanen planoak egiteko enkargua egin zitzaion<sup>(12)</sup>. SSotori eman zioten, halaber, Juan Ldiaketz hilobiaren planoak San Telmon egiteko ardurak, 1618an. Eta Tiburcio Spannochi-rekin batera, garai hartako aurreatuenak ziren teknikaren aldetik. Haien lan militarrek Penintsulako geografiaren hainbat lekutan ageri dira.

Beste batzuetan, haren lana ez zen hain ikusgarria, baina hala ere ez zuen garrantzi gutxiago herriko azpiegiturek ondo funtziona zezaten. Urtebete geroago, errejidore-karguan jarraitzen zuen, eta horrenbestez berari dagokio Donostiako jurisdikzioko bideen konponketa. Aldian behin egin beharreko lana zen, Donostiako klimatologia zela kausa, eta askotan arazoak ekartzen zituen inguruetako lurren jabeekin.

9. Donostiako Udal Agiritegia. San Millán y Villalegre markesen artxiboa. Leg. 65. N° Leg. 540.

10. Untzi Museoko Artxiboa, Vargas Ponce bilduma. V. lib. 82. dok. (99)

11. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. REGISTRO DE EJECUTORIAS.CAJA 2025,55.

12. Untzi Museoko Artxiboa. Vargas Ponce bilduma. 14B lib. 8. dok.





| Pistola. XVII. mendea. STM.  
Argazkia: Maier Etxebeste

Errejidore-zeregin horrekin batera, Ofizio Santuko idazkariaren kargua bete behar zuen, lehenago esan dugunez. Berari zegokion Frantziako erresumatik sartzen ziren salgaiei buruzko hamarrenak kobratzea, portuan kairatutako itsasontziak bisitatuz, aitak kobratu zituen bezala; aurrez kargu bera izan baitzuen hark, ikusi dugunez, eta liburu batean apuntatu zuen kobratutakoa<sup>(13)</sup>.

Lan horretan, moriskoen kanporatzearen ondorioei egin behar izan zien aurre (erlijio musulmana izan eta kristautasunera konbertituriko populazioaren ondorengoak ziren moriskoak), Felipe III.ak 1609ko apirilaren 9an emandako dekretuaren aginduz Penintsulatik alde egin behar baitzuten. Talde hura 325.000 lagunek osatzen zuten gutxi gorabehera, eta Valentzia eta Aragoiko erresumetan bizi ziren gehienak. Eta talde hura euskal lurretatik pasatzeak zerikusia du Arbelaitzen jokaerarekin, diru-biltzaile lana bete behar izan baituen jende harekin; baina errukitsu agertuz hala ere. Hala, azaltzen du merkantziak pasatu dituzten morisko guztiei kobratu behar izan diela, baina araukoari atxikiz, “usando en esto de la moderacion y blandura que en razon con una gente tan desdichada y descorazonada con mucha satisfacion y contento suio sin llevar cosa a pobres<sup>LXVI</sup>”.

Eta familia morisko bakoitzari erreal bat kobratzeko eskubidea izan arren, erresumako eskubideez gainera, ez duela hala egin, honegatik: “no he querido yo llevarles nada ni introducir tal cosa por ser nueva y por ser contra estos desdichados<sup>LXVII</sup>”.

Munta handiko gauzetan zuen parte hartzea ez zen horretara mugatu. Handik bi urte eskasera (1614), urtebete lehenago Ternuan balearen arrantzaren eskasia zela-eta iparralderago (Greilant) jarduteko zailtasunengatik sortutako gatazkari ekiten dio, Danimarkako eta Ingalaterrako enbaxadoreen aurrera joanez konponbide bat aurkitzeko lurralde urrun haietan Donostiako itsasontziak ibiltzetik etorritako arazoari<sup>(14)</sup>.

Lehenik, ikus dezagun nola gertatu zen egoera hori. Horretarako, Donostiako hiriak idatzitako gutuna irakurri behar da, herritar halako gertaeretan nahastuta ibiltzea deitoratuz:

“la Villa de San Sebastián dice que por estar muy agotada la pesqueria de vallenas de la gran baia de Terranova y haver entendido por algunas congeturas y otras razones que en cierta tierra que llaman Greilant, que es mas septentrional que la Noruega, podria ser la referida pesqueria mas abundante, partio una nave de la villa de San Sebastian por fin de abril del año pasado de 1612 en demanda de la dicha tierra.

Y en poco mas de un mes aporto a una costa de ella, que esta norte sur con parte de lo mas occidental de la Moscovia, y su medio en altura de 78 grados y medio del norte, en la qual hallo mucha copia de ballena y comodidad para hacer su pesqueria (como la hizo).

Y bolvio a la villa de San Sebastian tan aprovechada que se movieron muchos vecinos de ella y de otras partes de la Provincia a continuar esta navegacion y pesqueria, y aprestaron para ello doce naves pequeñas que partieron divididas para la dicha costa por abril de 1613.

Y haviendola tomado, hallaron en ella dos galeones yngleses de guerra de a mas de 300 toneladas, muy bien armados y artillados, que como iban llegando se fueron apoderando de ellas y las desvalijaron y robaron no solo los instrumentos y aparatos de la pesqueria, pero el vino y tocino y otras cosas que llevaron y a las que havian llegado antes y comenzado a pescar les quitaron la grasa que tenian ya hecha, y las barvas que havian recogido. Y los compelieron so pena de la vida a que pescasen y travajasen para ellos.

13. Idem, VI. lib. 5. dok. (331-334).

14. Idem, 29. lib. 22. dok. (126-137).

Todo lo qual trugeron a vender a Bilbao o mucha parte de ello, haciendoles otras muchas fuerzas y vejaciones y les afirmaron que todo aquello hacian por una patente del rey de Ynglaterra, en que asi lo mandava hacer.

Y aunque se les motivo la que llevaban de V.M. las dichas naves despachada por el virrey de Navarra, intimandoles que no podian hacer cosa alguna de las que havian hecho haviendo paces entre V.M. y su rey, y haciendose a sus vageles en los puertos de España tan buena acogida principalmente no perteneciendo (como no pertenecia) aquella tierra y costa a la Corona de Ynglaterra, no hicieron caso alguno de todo ello y prosiguieron con las referidas vejaciones y robos de que las sobredichas naves no se pudieron defender asi por cogerlas separadas como por no haver ido de guerra ni con sospecha de que les pudiese suceder tal cosa.

Y asi bolvieron a San Sevastian robadas y totalmente perdidas y computado el daño que por causa de todo lo representado a V.M. han recibido los que las aprestaron monta mas de 200.000 reales, demas del mucho deshonor y ofensa que con ello se ha hecho a V.M. y a su corona y del grande inconveniente que se seguiria de que cesase y se interrumpiese esta pesqueria comoda y provechosa porque es lo principal en que ahora se podrian ocupar las naves y marineros de la Provincia y criarse otros para quando V.M. los aya menester<sup>LXVIII</sup>”.

Gutun ederra, lurralde ia urratu gabe batera egindako espedizio bat kontaktzen duena; Groenlandia izan liteke, baina aditu gehienek Spitzbergen-en kokazen dute. Ozeano Glazial Artikoan dagoen artxipelago batean, Willem Barents holandarrek 1596an aurkitua. Uhartea haiek balea-arrantzarako base gisa erabili zituzten holandarrek, espainiarrek eta ingelesek XVII. eta XVIII. mendeetan.

Ez da harritzekoa euskal arrantzontziak hain iparraldera iristea. Islandiako kronikek diote iparraldeko euskaldunak izan zirela lehenak paraje haietan

balea arrantzatzen. Badira dokumentu islandiarrak, euskal baleazaleak 1613ko urtean iritsi zirela egiaztatzen dutenak, baina oso litekeena da urte batzuk lehenago iritsi izana. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu horrelako espedizioak, eta tartean donostiarrek esandako urte haietan protagonizatua.

Alde horretatik, islandiarren eta euskal baleazaleen arteko harremanak ez ziren beti izan bakezkoak. Bada gertaera oso odoltsu bat, Spánverjavígin (“espainiarren hilketa”) hitzaz ezaguna, Islandian zuten presentziarekin lotua: Islandiarrak Pedro Agirre (beharbada, Bernardo Agirre kapitainaren aita), Esteban Telleria eta Martin Villafranca donostiarra kapitainen agindupeko 50 bat marinela euskaldun hil zituzten. Egitate horiek Mendebaldeko fiordoetan gertatu ziren, 1615-1616 aldera; hiru balenontzi hondoratu ondoren, hil egin zituzten oso argi ez dauden arrazoiengatik. Euskaldunen presentziaren lekukotza ematen du 1637an Amsterdam-en argitaratutako euskara-islandera glosategi batek; iparraldearekin du lotura, bertan ageri diren hitz asko lapurterakoak baitira.

Gure pretsonaia ospe handiko gizona da. Alkate 1616an, Migel Arostegirekin batera; urte hartan Donostian egindako Batzar Nagusietan parte hartu zuen.

Baina hala eta guztiz ere ez zion ihes egin ondasun-banaketen inguruko gatazkari; familia guztiak kutsatzen zituen, dirudienez.

1618an, ondasunen jabetza bati buruzko auzi batean sartuta dabil, Klara Arbelaiz arrebaren herentziaren banaketa zela-eta<sup>(15)</sup>. Juan Arbelaiz auzitan ibilia zen Muana Martinez Murgia, Juan Lopez Iturrioz eta Pedro Murgiaren kontra, hirurak ere donostiarrak.

Klara Arbelaizek, alarguna, Juanen izeba eta Martin Perez Alzaras (beste izenez Picalamar) kapitainarekin ezkondua, dotea eman zion iloba Klara Arbelaiz, zeina Jun Arbelaizen arreba baitzen, Juan Lopez Igeribarrekin

ezkondu zenean 1576an, baldintza batekin: ondorengorik ez bazuten, eta halaxe gertatu zen, ezkonsari emandako ondasunak atzera itzuliko zituztela. Ondasun horiek ziren: bi etxe NARRIKA kalean, eta etxe haietako zilar landua; Torre zeritzon etxea, Zurriolako atearen ondoan; Antiguako San Sebastiango monasterio ondoan zegoen etxea eta haren jabetzak, eta Koroaren Oinean zeuden mahastiak. Martin Perez Arbelaiz anaiak berriz, zeina apaiza baitzen, 150 dukat eman zizkion.

Klara Arbelaiz hori, ordea, bigarren aldiz ezkondu zen, Pedro Murgiarekin, eta seme-alabek ere bat egin zuten oinordetza banatzeko eskariarekin. Juan Arbelaizek, ordea, zioen ondasun haiek itzuli beharrekoak zirela, eta berari zegozkiola senide zuzen hurbilena zenez, nahiz eta Klara arreba Pedro Murgia bigarren senarra utzi bere oinordeko unibertsal.

Nahas-mahas judizial hartan, korrejidoreordeak Juan Arbelaizten aldeko epaia eman zuen lehen auzialdian, eta haren eskuetara joan behar zuten arreba lehen ezkontzara (1611) eramandako ondasunak.

Murgiaren seme-alabak Andaluzian eta Indietan zeuden, eta ondasunak erreklamatzeko jarraitu zuten ama testamenturik egin gabe hil ondoren; beraz, aitaren oinordeko zirenez, haiei zegozkie. Valladoliden, ordea, Juan Arbelaizten eskubidea berretsi zuten: “por la presente Martin Perez de Zubiaurre, theniente del señor licenciado Juan de Yturgoyen, corregidor de esta provincia de Guipuzcoa por su Magestad, dixo que mandaba y mando dar al dicho Juan de Arbelaiz como a heredero troncal de la dicha Clara de Arbelaiz, donadora, la posesion de los bienes que la suso dicha dio y dono a la dicha Clara de Arbelaiz, su sobrina, para el matrimonio de con el dicho Juan Lopez de Yeribar, su primer marido, por no haber dexado la suso dicha al tiempo de su fin y muerte hijos algunos. Que son los dichos bienes los contenidos en el contrato dotal de entre la dicha Clara de Arbelaiz y tia de la dicha Clara de Arbelaiz<sup>LXIX</sup>”.

15. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 2236,9.



| Ezkontzako hitzarmena Ochoa de Goiaga Kapitainaren etxean egina, Donostian, 1593. Iturria: AHPG-GPHA

Epai hark Juan Arbelaitzen ondarea handiagotzen lagundu zuen. Baina horrelako espedienteetatik ateratzen den informazioak, ondasunei gehitzen zaizkien ondasunak zein ziren jakiteko balio izateaz gainera, balio izaten dute, halaber, familiaren genealogia denboran atzera eramateko eta etxeko harremanen zoko-moko batzuk ezagutzeko <sup>(16)</sup>.

Esate baterako, datuak ematen dituzte anai-arreba batzuen nondik norakoaz. Pedro Arbelaitz Madrilen bizi zen, Gortean, han mamitzen baitziren hainbat eta hainbat negozio, gero Koroaren periferian —eta, beraz, Donostian— eragina izaten

zutenak. Eta arreba bat, Katalina Perez Arbelaitz, Bernardino Perez Arteagarekin zegoen ezkontuta, zeina Behe Erdi Aroan probintzian ziren familia garrantzitsuenetako baten ondorengoa baitzen. Ezkontza horrek ezin hobeto erakusten du nola lotzen ziren Ahaide Nagusietatik zetozen leinuetako ondorengoak, garai berrietara moldatzeko xedez, goraka zetozen familiarekin, horixe baitzen Arbelaitzarren kasua; hauek, berriz, halako ezkontzen bitartez odol garbia eransten zioten gizarte-estatus berria balioesteko premiari. Horretarako, ez zuten zalantzarik izaten alabei behar bezalako ezkonsaria emateko, horixe baitzen estrategia nagusia Erdi Aroan probintzian protagonista izandakoen jatorriko semeekin ezkontzeko. Katalina Perezek ezkontzara ekarritako ondasunak ez ziren huskeria: Etxe batzuk Poiuelo kalean, Maria Perez Santiago izebagandik oinordetzan jasoak; sagasti bat Erriberan (Loiolan); mahasti bat Mirallean (Ulian); bi hilobi Santa Mariako elizan, eta emakume-eserleku bat eliza hartantxe; eta 1.000 dukat, Juan Arbelaitz anaiak ezkonsari gisa emanak, Katalinak oinordetzan legez tokatzen zitzaionari uko egiteren truke.

Ezkonsari horren handia egiaztatuta geratzen da baldin eta gurasoek, Martin Perez eta Mari Migel Santiagok, hil ondoren utzitako ondasunekin erkatzen bada. Ondasunok ziren: Trinitate kaleko etxe nagusiak, bertako baratze-lorategi bat bere usategiarekin, Garrostegiko baserria eta haren jabetzak, eta Pedro Guarnizok 1583an 700 dukatetan saldu zion eskribautza publikoa.

Alde bietako bakoitzak jartzen zuenaren frogak aurreko dokumentazioan oinarritzen ziren askotan, hark egiaztatzen baitzuen emandako informazioa. Datu judizial hutsak alde batera utzita, guri beste batzuk interesatzen zaizkigu; esate baterako, Juan de Arbelaitzen guraso Martin Perez eta emaztearen filiazioa. 1540ko ekainaren 23an ezkondu ziren; Juan Arbelaitz eta Maria Perez Aranguren eta Juan Santiago eta Ana Segura zituzten aita-amak, hurrenez hurren. Filiazio horrek ere XV. mendearen bigarren erdira garamatza.

16. Idem. Pleitos Civiles. Escribanía Varela. Pleitos Fenecidos. C 2519/1-2520/ 6 Piezas.

Bide horretatik ezagutzen ditugu, halaber, Martin Perez aitaren testamentua (1587) eta Martin Perez semearena (1611). Bigarrenak familiaren hilobi nagusian ehortzia izatea eskatzen du, Santa Mariako elizan, Laguntzako Andre Mariaren irudiaren aurrean. Martin Perez Arbelaiz aitak, berriz, xehetasun gehiago ematen ditu: “que mi cuerpo sea sepultado en la yglesia de señora Santa María, en la sepultura que mi muger Mari Miguel de Santiago e yo tenemos delante del altar de Nuestra Señora la Antigua y sea enterrado en una caja nuebamente hecha de pino ligera, bien doble juntada y cosida<sup>LXX</sup>”. Bi-biek zuten izendatua oinordeko Juan Arbelaiz. Hala ere, familiak prestakuntzan egindako inbertsioa Martin Perez anaiari tokatu zitzaion, aitak dioenez: “el dicho bachiller a sido de mi mas regalado que ninguno de los otros sus hermanos


y le di siete años de estudio hasta le azer en hartes y bachiller en canones y de su parte se empleo en saber bien aprovechado y con buenas letras y como esquisito estudiante de opinion, asi esta bien acomodo y puesto beneficiado en cinco beneficios<sup>LXXI</sup>”; seme hori aitarekin bizi zen 1560tik aurrera.

Ez da harrizkoa Juan Arbelaiz ahaide nagusien bizimoduaren aldele sutsu agertzea haiek gainbeheran zetozenean (1625); ez du zalantzarik egiten etxeak eraikitzea errekonkistaren hasierarekin lotzeko, ez eta ahaideen etxe zaharren ohorea salbatzeko ere, nahiz eta defentsa horrek talka egin probintziak bizi zituen garai berriekin<sup>(17)</sup>:

“si los ayudados de su industria y trabajo, o de otra manera, ayudados de la fortuna an adquirido azienda, ponen tanto cuydado y bigilancia en procurar hazer casas nuebas y edificios suntuosos para eternizar sus memorias, binculando y aziendo mayorazgos de sus bienes y desbelandose en los grabamenes y condiciones mas apretadas que puedan imaginar y pensar para la perpetuidad y conservación de ellos. Quanto de mayor importancia es la perpetuidad y conservación de las casas solares tan antiguas y nobles de que descinde la generacion y prosapia de tan ilustres y heroicos caballeros por todos ejercicios virtuosos y nobles<sup>LXXII</sup>”.

Arbelaizten bizitza egoera deigarritz beteta dago historia maite dutenentzat. Inkisizioa eta sorginkeria, espioiak eta moriskoak, enbaxadorekiko harremanak, Artikorako espedizioak... egoera horiek pertsonaia guztiz interesgarri egiten dute Juan Arbelaiz.

Hala eta guztiz ere, Arbelaiztek ematen duen informazioaren aberastasuna ez da horretara mugatzen. Arbelaiz, ikusi dugunez, transmisio-uhala da Gortetik zetozen aginduak betetzeko, eta han donostiar asko zeuden kokatuta, adiskidantzako harremanak zituen haiekin, eta jario handiko gutun-trukea eman zuen horrek. Monarkiak funtziona zezan,



| Sebastián de Santanderrek, Donostiako alkateak, Blas de Etxeberria eskribauaren alde emandako ahalordea, 1597.  
 Iturria: AHPG-GPHA

17. AGG-GAO, JD IM 4/7/7

garrantzitsua zen agindu guztiak lurraldearen bazter guztietara irits zitezten. Horretarako, nahitaezkoa zen aginduok betearazteko ardura izango zuten maila ertaineko koadroak izatea. Baina nahitaezkoa zen, halaber, mendeko herri, hiri eta jaurerri buruzko albisteak transmititzea.

Irungo postari nagusi lanbidean, ageri dira agindu horietako batzuk. Baina, esan bezala, baliteke kargu hori haren izen bereko eta herrikide Juan Arbelaitzen esku egotea. Hala, bada, Martin Arostegi Estatu idazkariak agindu zion Arbelaitzi aurkitu eta atera zezala Baionako kostaldean galdutako lau galeoietako brontzezko artilleria, Antonio Okendoren ontzidia hondoratu zenean 1606an<sup>(18)</sup>.

Agindu haiei jarraituz, bi aldiz bisitatu zuen Capbreton aldea, eta hainbat zuzemen egin zituen Agramonteko Kondearen aginduz. Baina isasontziak kostatik urrun hondoratu zirenez, ezin izan zuen berreskuratu pieza bakar bat ere. Zorte hobea izan zuen Donibane Lohizune inguruan, Capitana itsasontzia hondartutako lekuan, eta Bidarten, non baitzen Bella Estefanía izeneko bere datuen arabera; biak ere kostatik harrkada batera hondoratuak, eta inguru haietako marinelek esandakoaren arabera, artilleria guztia berreskura zitekeen.

Laster ekin zitzaizen rreskate-lanei. Denbora gutxian, artilleriako 22 pieza ateratzea lortu zen lehen itsasontzitik, eta 18 bigarrenetik, eta laster eraman zituzten Donostiara, “y a mas otras dos que tiene sacado el buzo<sup>LXXIII</sup>” Donibane Lohizunen, Donostiara eraman ezin izan zirenak ez zelako jaso beharrezko baimena zuen gutuna lñigo Cardenas enbaxadoreagandik.

Lan haiek ematen dituzten albisteen artean, nabarmentzekoak dira berreskuratze-lanetan ezinbestekoa den pertsonaia bati buruzko aipamenak: buzoa. Askotan ageri dira haren aipamenak haren jenio txarraz, etengabeko soldata eskeak eta mehatxuak, ez bazioten laster ordaintzen

holandesen eta ingelesengana joango zela zerbitzuak egitera; izan ere, haiek, gutunetan zehazten denez, eskas zebiltzan hondoratutako itsasontzietatik pieza ateratzeko gai ziren langiletan.

Ugariak dira, halaber, zereginen zailtasunei buruzko datuak, itsaso bizia zela-eta. Eta kanoiak ateratzeko lan-metodoa zehaztera ere iristen da. kable bat eta idiak lehorretik tiraka: ez zen besterik.

1617an, gai hori azkenetan zegoen. Erreskatea egiteko baimena egiteagatik frantsesekin adostutako dirua ordaindu bitartean —zan ere, berreskuratutako materialaren heren bat zegokien legez frantsesei—, Arbelaitz 31 egunez egon zen giltzapean, dirutzaren ordainketaren berme gisa. Gainera, buzoaren gaia argitu gabe zegoen artean: “agora respondere a la de V.M. con dezir que aviendo mas de veinte piezas de artilleria por sacar de la Bella Estefanía y de la Capitana, con la esperanza de que se podrán restaurar como de las 23 que de ambas se han sacado, el despedir al buzo como me dize V.M. en su carta, suplico a V.M. mande que se considere si sera servicio suyo, fuera de que quando hize el concierto de la restauracion de aquel naufragio me obligue en nombre de V.M. al de Agramon (bisealmiral de aquella costa, a quien le pertenecia por la ley del Bisealmirato el tercio de todas sacadas y por sacar) que V.M. tenia buço a su costa hasta que se sacasen. Y con esta seguridad, condescendio el concierto tan abentajado que hize para la realazienda de V.M., pues su tercio y por todas las costas y aparejos de sacar y poner a la suya en esta provincia no se le ha pagado sino a cinquenta reales el quintal.

Si despediesemos al buço, fuera de que es faltar lo contratado, quando yo fuese alla me pondria compeler a que le cumpliese lo que se lo ofresci. O como el buço se caso en San Joan de Lus, en despidiendole nosotros embargarle como vezino y morador en su gobierno y tenerle por su cuenta y como cosa que hemos dexado desauciada<sup>LXXIV</sup>”.

Arostegi eta Arbelaitzen arteko konfiantza eta hurbiltasuna ageria-agerian geratzen da bigarrenak lehenari 1625eko urtarrean bidalitako gutunean,

non bere osasunari buruzko berriak ematen baitizkio, bai eta Iparraldeko informatzaileen egoera zailaren berri ere<sup>(19)</sup>.

“Estos dias me dio un gran calenturon y tan ecesivo dolor de almorrans y de todo el cuerpo y sobre todo tan gran tristeza de la negra melancolia que todo me a obligado a sacar sobrada sangre con que se a quitado a calentura y agora bamos a la purga. Dios me la pare buena y me quite estos dolores.

Quantos inteligentes amigos tenia en esta frontera todos han muerto y no me ha quedado sino uno muy pobrete en Çubiburu, que con mendrugos (como dizen), le he podido sustentar porque ha tres años que el señor marqués de la Ynojosa le dio cien reales y no a tenido despues otro socorro del Rey ni algunos años antes.

Hame embiado a decir que ha alcanzado a saber que en la Rochela estan aprestandose muy apriesa catorze navios y que en saviendo para donde son y con que gente me lo avisara.

Y aunque se lo escrivi luego al señor birrei de Navarra he querido tambien avisarselo a V.M. para que entienda el Consejo que aunque me allo malo e ympedido porque no estoy para nada no me falta el cuidado que devo.

He estado pensando que seria posible fuesen para favorecer a los olandeses en el cerco de Breda o que biendo nuestras costas sin armadas sera para hazer suertes en ella<sup>LXXV</sup>”.

Nazioarteko egoeraren hain ezagutza zorrotza, esan dugunez, hemengo bizitzan eta arazo publikoetan parte hartzearekin. Hemengo kontuetan parte aktiboa hartzea behartzen zuen. Eta besteak beste, berriro aipatu behar dugu Jesulagunak Donostia izatea. Juan Arbelaitz protagonista zuzena da gertaera horretan, eta hartaz duen iritzia eta erabakimenak ez du zalantzan uzten eztabaida horretan zein aldetan zegoen.

18. Archivo General de Simancas. Consejo de Guerra. XI - Guerra y Marina. 177 - Secretaría de Mar y Tierra. L 806.

19. Idem. Consejo de Guerra. XI - Guerra y Marina. 177 - Secretaría de Mar y Tierra. L 924

Arbelaitzen jarreraren inguruabarrak azaltzeko, denboran aurrera egin behar dugu. 1640. urtean gaude, Jesusen Konpainiako errektoreak eta elkargoak azaldu zuten hirian irakaskuntzan jarduteko zuten lekua zabaldu beharra, eta gatazkan sartu ziren San Telmoko Komentuarekin, jesulagunek beren egoera hobetzeko beretu nahi zituzten lursailek eragiten baitzieten<sup>(20)</sup>.

Urte hartan, Antonio Okendo jeneralak eta haren emazte Maria Lazkanok, jesulagunak Donostian izatearen aldeztu irmoak biak, errenta handi bat emana zioten Jesusen Lagundiari komeni ziren lurak eros zitzaizkien eliza bat eta elizgizonentzako bizilekuak eraikitzeko. Halaxe zegoen erabakia, gainera, Estatu Kontseiluak 1622an emandako errege-agindua batez: “sobre su fundacion hubo un pleyto muy reñido en el Consejo y por executoria se dio licencia para que se fundase y para su execucion V. Mag. por su cedula de 22 de henero de 1622, despachada por su Consejo de Estado ( ) fuese a la dicha villa a señalar el sitio de quatro casas en el puesto mas conveniente y que no dañase a la fortificacion, como lo hizo.

Señalando tres casas y un solar vacio de que tomo luego la posesion. Que todo ello tiene 102 pies de delantera y 87 de fondo.

Y desde el dicho tiempo a esta parte a servido y sirve de yglesia una bodega de una de dichas casas, aviendo pasado con suma pobreza e incomodidad. Y lo dexa de hazer porque no tiene sitio bastante<sup>LXXVI</sup>”.

Hor hartzen du parte Juan Arbelaitzek, jesulagunei kokalekutzat seinalaturiko etxeetako bat harena baitzen, eta baratze bat baitzuen hari itsatsia. Ciudadeko Dukeak ere, Alonso Idiakezek, eskorta bat zuen inguru hartan, eta hark ere ez zuen saldu nahi.

Arbelaitzen nahia Konpainiaren zuzendariak adierazia zuten aurrez,

zera baitzioten, hark, “en odio de la Compañía hizo vinculo de ella, disponiendo por su testamento que en ningun tiempo se bendiesen al dicho Colegio para dicho efecto y poseen dicha huerta sus herederos y no rentara doce ducados<sup>LXXVII</sup>”. Eta lur hura gabe, zioten ezin zirela eraiki ez etxea ez eliza, “con que seguiria gran daño al bien de las almas por ser aquella puerto de mar y donde concurren muchos tratantes de varias naciones y entre ellos muchos ereges<sup>LXXVIII</sup>”.

Juan Arbelaitzen ezezkoaren arrazoiak haren testamentuan ageri dira azalduta, han ematen baititu jarrera hura hartzera eramanean zuten prozesuaren xehetasunak. Donostian datatua da, 1629ko irailaren 7an, eta honela dio jesulagunekikoari buruzko klausulak:

“Yo Juan de Arbelaitz, becino y natural de esta Noble y Leal Villa de San Sevastian, secretario del Santo Oficio de la Ynquisicion de Logroño en esta dicha Villa...

Yten unas huertas grandes que las dichas mis casas principales tienen a las espaldas de las dichas mis casas, las quales dichas casas por tiempo fueron de don Luis de Aguirre y del licenciado Joan Lopez de Aguirre y Pedro de Guarnizo... que todas ellas estan reducidas e yncorporadas en unas, las quales dichos mis padres y el dicho bachiller mi hermano e yo cercamos de paredes de manposteria aunque el dicho mi padre gasto poco en el dicho edificio (el linde llega hasta San Telmo) ( ) mando que todas las dichas huertas que como dicho es poseo y son mias con la casilla que en lo alto hice, queden siempre en pie sin que en ellas ni en parte de ellas se hagan casa o casas ni de yglesia ni lugar pio de cofradia ni ospital ni otro edificio alguno si no fuere para adorno pio y utilidad de las dichas mis casas principales ( ).

Y si por caso por qualquier manera que sea o ser pueda no pudieren escusar los dichos mis herederos de que no las ayan de vender, o trocar o cambiar o enagenar todas o parte de ellas y los padres de la Compañía de Jesus pretenden apoderarse en las dichas mis casas principales pagandolas por

una ynjusta posesion que el conde de Castillo, birrey de Navarra, dicen que se les dio sin mi sabiduria ni consentimiento, clandestinamente que no lo hiciera el juez mas injusto que el mundo tiene y asi me querello del y de los que le engañaron ante su dibina magestad para que en su dibino tribunal juzgue esta tan atroz determinacion de haverme dado en mi bexez un daño tan grande y ocasiones de tantos disgustos que el alma y cuerpo an padescido, es mi voluntad y mando y quiero que en caso que en qualquier tiempo del mundo que los dichos padres de la Compañía y otras quales personas del mundo desposeyeren al dicho mi subcesor o subceores que por tiempo fueren de las dichas mis casas principales o de la dicha mi casa que esta pegada a ellas y herede como esta dicho del dicho bachiller mi hermano, que fiel examinen todas las huertas y pagando los padres del dicho convento de San Telmo de la orden de Santo Domingo su valor menos doscientos ducados, los quales les suelto del dicho bachiller porque rueguen a Dios por mi alma sean suyas y del dicho convento sin que directa o indirectamente sean de los padres de la dicha Compañía.

| Belaerdiko daga.  
XVII. mendea. STM.  
Argazkia: Maier Etxebeste

20. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Consejo de Castilla. Salas de Justicia. Escribanía de Cámara de Pinilla. L. 28325/EXP 1.



( ) Y declaro que por ningun caso no es mi voluntad ni quiero que los dichos padres de la Compañía sucedan ni en las dichas mis casas ni en otros algunos bienes míos porque es y a sido lo que asta aquí an hecho conmigo gran biolencia el querer y pretender desposeerme de mis casas tan honradas y antiguas en esta dicha Villa, cuyos dueños fueron tan honrados y antiguos vecinos de ella ( ) y mis hermanos todos los vecinos de esta dicha villa miren y abran los ojos y consideren desapasionadamente lo que han hecho y que otro día podrían hacer lo propio con otros como lo saven muchos que la dicha orden lo ha hecho en otras partes donde se metieron y Dios no quiere que a nadie se haga biolencia ni se le tomen sus bienes y hacienda y saquen de su casa sin su boluntad porque la limosna ha de salir de la alma<sup>LXXIX</sup>”.

Beraz, Arbelaitzek Konpainiari zion gorrotoa haren fundazioa egiteko ondasunak kendu izana du jatorri. Horregatik pairatutako engainu eta nahigabeek eraman zuten hain erabaki errotikoa hartzera. Kontuan hartu behar da ezen jabetza edo ondasun baten galerak norberak balioa galtze halako bat zekarela garai hartako pentsaeran, merezimenduak kentzen baitzizkion ondasunen administrazioari, eta horrek balioa kentzen baitzion norbanakoari bere garaikideen begietara.

Baina haren etsaigoak bat egiten zuen donostiar askoren sentimendurekin, honelaxe deskribatzen baitzituzten Konpainiako aitek 1619an protagonizaturiko gertaerak: “los relixiosos de la Compañía de Jesus havian entrado en ella sin tener dotacion propia a fundar un colexio de su orden en yglesia y sitio de nuestro patronazgo real ( ) por la biolencia con que los dichos relixiosos havian yntentado poner en execucion la dicha fundacion pues avia sido entrando de mano armada llebando para el amparo y defensa de la posesion una escuadra de soldados con sus escopetas y municiones puestos en forma de guerra dexando por causa de esta prebencion el muelle sin gente ( ) de que se havian causado muy grandes escandalos y alborotos por las diferencias y enquentros que havian tenido los vezinos que defendian la dicha yglesia con los mismos soldados que fomentaron la causa de los dichos relixiosos<sup>LXXX</sup>”.

Jesulagunen kontra zeudenek ematen zuten arrazoia zen hirian bazela nahikoa komentu eta eliza predikurako, Donostia baliabide gutxiko lekua izanik (garai hartako argotean, “leku estua”), ordurako 62 elizgizon ari baitziren preodikatzen, hirian jaiotakoak denak, eta hain zuzen ere Donostiak zuen baliabide-eskasiagatik bizibide desegokia zutela.

Konpainiaren aldeko edo kontrako jarrerak bitan banatu zituen azkenik herritarrek, “en bandos con grandes demostraciones de enemistad poniendose en peligro de quitarse las vidas como se havia bisto en las pependencias y enquentros que havian tenido los unos contra los otros el primero de julio de 1623<sup>LXXXI</sup>”, alkateordea, Plazaola doktorea, udalaren ezkutuko batzar baterako deia egiten saiatu zenean jesulagunen alde egitekok nahiz eta udalbatza kontra azaldu aurrez.

Ezbairik gabea dirudi egoera hark ez zuela erdibiderik uzten. Juan Arbelaitz da adibide bikaina, donostiarren jarrerak zenbateraino gogortu ziren ikusteko, eta haren lekukotzari esker, hobetoxeago ezagutu dezakegu orain artean behar bezala aztertu gabe zegoen pasadizo bat; eskertzekoa litzateke sakonago aztertzea zergatik behartu ziren herritar nagusiak alderdi baten edo bestearen alde jartzera. Juan Arbelaitzen kasua nabaria da, baina garaiko beste gizon itzaltsu batzuek ez dakigu ezer.

Azkenik, esan dezagun Juan Arbelaitz, Inkisizioko Ofizio Santuko idazkaria, gizon ezkondua zela. Emaztea Isabel Aranzate izan zen, eta ez zuten seme-alabarik izan. Biekini bizi zen umetatik Isabel Arbelaitz iloba, zeinak moja izan nahi baitzuen, eta zenbait ondasun agindu zizkioten, 1.000 dukateraino erlijio-bizitza hartzen bazuen.

Ondorengorik izan ez zutenez, beste iloba bat izendatu zuten oinordeko, Pedro Martinez Aranzate, zeina garai hartan Gortean baitzen, Leganesko Markesaren etxean.

Emaztea ere, Isabel Aranzate, iloba zuen. Irungo familia bateko alaba zen (Pedro Aranzate eta Katalina Legia ziren aita-amak), eta ezkontza haren bidez sorterriko loturak sendotu zituen. Izan ere, Arbelaitz etxea Irungo etxe lehenetako bat zen, eta leinuaren adar bat Donostiara aldatu bazen ere, ez zuten galdu jatorriarekiko lotura.

Emazteari ere ondasun asko utzi zizkion, hainbat baldintzari loturik. Besteak beste, alargun jantzian iraun zezala, hau da, ez zedila ezkon berriro. Eta erlijio-bizitzan sartu edo berriro ezkontzen bazen, ondasun guztiak galduko zituen. Hala gertatuz gero, ezkonsariaren gehigarritzat aginduak zizkion 800 dukatak kobratu baino lehen, ezkontzaz geroztik gozatutako ondasun guztien errentak ordaindu beharko zituen. Eta moja sartuz gero, 1.00 dukat ordainduko zitzaizkion behingoan sari gisa, aipaturiko 800ak barne. Gainera, premutasunaren jabeak 100 dukateko errenta ordaindu beharko zion urtero.

Isabel Aranzate ez zen ezkondu berriro. Alargun izanik, oinordetzan jasotako ondarea kudeatu behar izan zuen, eta auzitegietan ere defendatu zuen haren kontrako edozein mehatxu.

1630ean ez zuen zalantzarik izan Graziana eta Klara Lertxundi salatzeke, Donostiako alabak biak, Donostiako Esnategi kalean zeuzkan etxe batzuen errentari zegozkioin 65 dukat ez ordaintzeagatik<sup>(21)</sup>.

Etxe haiek senarrak irabazi zituen Pedro Murgiarene kontra izandako auzi bateko gutun berearazle baten bidez; Murgia hori Klara Arbelaitz izebaren bigarren senarra zen, eta hari tokatu zitzaizkion senide zuzen zen aldetik. Beraz, berdin zen ondareak jatorri hau edo hori izatea. Hura gordetzea zen kontua.

21. AGG-GAO, CO LCI 714.

ESDE JOSEPI  
D CARRION  
ESS. DEL NV  
M. DE ESTA  
CIVDAD ID  
JOSEPHAA  
NTONIA DE  
GOICOECHA  
SVI VGERI  
SVS SVCE  
RES AÑO DE  
1734 N. 121.



# Joseph de Carrion

Donostia,  
circa 1690-1740

Jose Carrión ez dago konparatzerik orain arte deskribatu dugunarekin. Familian ez zen tradizioz merkataritzako negozioei edo udal kontuetan parte hartzeari lotua, eta hari (eta haren familiari) buruzko dokumentazioaren urriak pentsarazten digute biazialdi dezentez umilagoa izan zuela aurrez deskribatu ditugun pertsonaiek baino.

Esan dugu, halaber, nola XVIII. mendean, batez ere lehen erdian, ez dela nabari XVII. mendean ageri diren mugikortasuna eta garapena. Dokumentazioan ere islatzen da alde hori.

Nolanahi ere den, Jose Carrionen arbaso zuzen bati buruzko lehen albisteak hura dokumentazioan lehen aldiz agertu zen garai beretsukoak dira.

Aitaz ari gara, Frantzisko Carrion eskribauaz. Daruok ageri dira hark eta Agustina Labaien Juan Larreandiren emazteak, biak ere Donostian bizi zirenak, Pedro Sazonera Josefa Rivero Calderónen alargunaren kontra jarritako helegite batean, bien seme-alaben tutore zen aldetik, Juan Rivero Calderon eta Maria Garaiarrek utzitako ondasunak zirela-eta <sup>(1)</sup>.

Izen pila horretatik, har dezagun bakarrik honako kontu hau, espediente horretan Frantzisko Carrioni buruzko zenbait datu aipazen direla, eta horri esker haren pertsona testuinguruan jar daitekeela.

Hala, esaten zaigu Mariana Labaienekin ezkontuta zegoela, eta 1682an ezkondu zirela. Mariana hori Sebastian Labaien eta Maria Garaiarren alaba zen; Maria Garaiar, berriz, Juan Rivero delakoarekin ezkondua zen bigarren ezkontzan; Juan Rivero Indietara alde egina zen 28 urte lehenago.


Arreta hartzen digun lehen datua da ez dela ematen Franzisko Carrionen ez filiaziorik ez jatorririk; eskribau lanbidea zuela, besterik ez. Halaber, ez duela ondasunik ekartzen ezkontzara; emaztegaiari, aldiz, ezkonsari gisa, 3.200 erreal zilarrezko ematen zaizkio dirutan, zilarrezko pitxer bat, zilarrezko erretilu oindun bat, zilarrezko harraska bat, zilarrezko kikara bat, zilarrezko zortzi koilara eta bi sardexka, koralezko errosario bat, oherako jantzia eta arropa zuria, eta homidurarako arropa (zamauiak, eskuzapiak...), hiru margolan handi eta sei irudi-orri, ispilu bat, mahai gaineko bat, mahaia, bi kutxa, zedrozko arka bat, sei aulki ohe-kutxa bat eta bi ohe beren osagaiekin; guztira, 1.000 dukateko ezkonsaria.

Beraz, Carrionek lanbidea baizik ezin zuen eskaini, lanbide garrantzitsua hiriak behar bezala funtziona zezan, eta diru-sarrera segurua ematen zuena. Beharbada, lagunduko zuen Maria Garaiarren denda eta negozioetan, emaztearekin jardunea ahal zuenean. Dena den, ez dirudi familiaren egoera oso joria zenik; izan ere, Marianak eta Agustina ahizpak uko egin zioten amaren oinordetzari, ez baitzituzten beren gain hartu haren zorrak.

Jose Carrionek, beraz, familiaren bideari jarraitu zion. 1722an, errege eskribau titulua onar zekiola eskatu zuen; Donostian jardungo zuen bere lanbidean <sup>(2)</sup>. Aitak haren mesedetan egin zion uko eskribautza publikoari, eta hartan jarraitzeko eskatzen ziren paperak garaiz aurkeztu ez zituenez, bere lanbidea Gaztelako Kontseiluaren aurrean betetzea eskatu zuen.

1. Idem, CO LCI 1856.

2. Archivo Histórico Nacional, Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Cámara de Castilla. Secretaría de Gracia y Justicia. Memoriales. LEG. 9858/EXP.



Donostiak 10 eskribautza zituen, biztanle-kopuruari zegokiona. Eta hain zuzen ere, aitak, Frantzisko Carrionek, haietako bat lortu zuen Sebastian Olaetak bereari uko egin ziolako 1691n. Eskribau-sagak ohiko kontua ziren. Baita eskribautzen salmenta ere. Esandako 1722ko urtera iritsirik, Frantzisko Carrionek, arrazoi pertsonalengatik, semearen alde egin zion uko, zeina “escribano real y vecino de esta ciudad” baitzen, “que es persona capaz, havi y suficiente y en quien concurren las partes y calidades necesarias para poder obtener la dicha escribanía<sup>LXXXII</sup>”. Ukoa semearen alde onartzen ez bazitzaion, Frantzisko Carrionek argi uzten zuen berak jarraituko zuela.

Proposamena onartu ondoren, Jose Carrionek zin egin behar izan zuen hiriko bi eskribaturen aurrean —Juan Bautista Zabala eta Jose Bernardo Arbetain—,

zeinek argitzen baitigute zenbat eman zezakeen urtean Donostiako hamar eskribautza publikoetako batek: 48-50 dukat.

1724ko apirilaren 24ra arte ez zen gauzatu izendapena. Guregana iritsi da deskribatuta nola hartu zuen hiriko udalak errege-agindua, zeinaren bidez ematen baitzitzaion eskribau-kargua: “y los expresados señores del gobierno, habiendo recibido el real despacho y puesto sobre sus cabezas como carta de su rey y señor natural, no reconociendo superior en lo temporal y obedecido con la justa veneracion y respeto que deven, en su cumplimiento recibieron juramento en forma del dicho Jose de Carrion”, eta hark agindu zuen lanbideak eskatzen zuen legezkotasunaz beteko zuela<sup>LXXXIII</sup>.

Zoritxarrez, gure esku dugun hurrengo datua Jose Carrionen ukoari buruzkoa da.

Bera Josefa Antonia Goikoetxearekin ezkondata zegoen, eta Josefa Carrion arreba, berriz, beste eskribau batekin, Juan Bautista Larrondorekin. Beste arreba ere, Maria Bernarda, beste eskribau batekin zegoen ezkondata, Juan Bautista Zabalarekin. Carrionen kargu-uzteak auzia ekarri zuen haren postua betetzeko eskubideari buruz<sup>(3)</sup>.

Hain zuzen ere, Santiago Etxeberria salatzen zuten eskribautza engainu bidez lortu izanaz, eta susmagarrien artean zen Carrionen koinatu Juan Bautista Larrondo. Senidetza ez zen oztopo izan Josefa Antonia Goikoetxea alargunak biak sala zitzan.

3. Idem, Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Consejo de Castilla. Salas de Justicia. Escribanía de Cámara de Pinilla. L. 28545/EXP 5.

Kasu honetan, datu gehiago ditugu Jose Carrionen ukoaren arrazoiez: “hallandose enfermo y asistido del reverendo padre fray Domingo Gonzalez a alguna pregunta suia sobre la renuncia de la numeria, respondi a quien sino a Joseph, mi sobrino, hijo legitimo de Juan Bautista de Zavala, escribano de mismo Numero, y de Maria Bernarda de Carrion, su muger, hermana del dicho Joseph de Carrion.

Y habiendo llamado el espresado padre fray Domingo a el dicho Juan Bautista de Zavala al aposento donde estava enfermo el referido Joseph de Carrion y dadole a entender su voluntad plena le respondi el dicho Juan Bautista de Zavala que su hijo Joseph Domingo se hallava sin edad competente para ser aprobado.

Y sucesivamente dijo el dicho Joseph de Carrion, si mi sobrino no puede, sealo V.M. hasta la edad poca que complete.

A lo que sucedió que el dia veinte y siete de enero de este año se asento al dicho Joseph de Carrion que don Martin de Olozaga, comisario del santo Oficio y vecino de esta ciudad, su mui confidente, firmase un papel en blanco lo que havia egecutado en un pliego de papel y en su primera plana para disponer la renuncia de la numeria.

Y que Santiago de Echeverria, escribano del Numero de esta ciudad, que recivio la dicha firma en blanco, habiendo muerto el referido Joseph de Carrion entre las tres y quatro oras de la mañana del dia lunes, primero de febrero de este año, a la firma en blanco que tenia puso la renuncia de la numeria, sin que se hubiese hallado este ni ninguno de los testigos instrumentales que se nominan en la renuncia<sup>LXXXIV</sup>”.

Laster salatu zuten interesatuek uko hura ez zela legezkoa, ez baitzen igaro legeek hura egiteko agintzen duten denbora, eta prozesua bera oso araz kontrakoa baitzen.

Josefa Antonia Goikoetxeak zioen ezen Larrondok, horregatik, ezin zuela eskribautzan jardun, forma-akatsagatik; izan ere, Santiago Etxeberriak haren izena jarri zuen paper zuri sinatuko ukoan. Larrondok, berriz, argudiatu zuen Carrioni ez zitzaiola egin inolako presiorik, eta haren eskribautzan jarduna zela ofizial gisa, eta aurrez haren aitarenean; beraz, eskubide osoa zuela eskribau-lanbidean jarduteko.

Josefa Antonia Goikoetxearen interesa bistakoa zen: ondorengo eskribaua izendatzeko ahala beretzat hartzea eta berak nahi zuena izendatzea, eskribautza haren jabe izanik.

Eta alde horretatik, semea, Blas Lorenzo Carrion, bideratu zuten lehena lanbide hari segida emateko. Ondorengo beste daturik ez izateak galarazten digu egiaztatzea ea azkenik ondorengotza hori Blas Lorenzori egokitu zitzaion.

Carrion eta Goikoetxearen seme-alabak, Blas eta Maria Joakina Carrion, Alegiko erretore eta Josefa Antoniaren anaia Ventura Goikoetxearen tutoretzapean geratu ziren 1749an.

Urte hartan amaitu zen Jose Carrionek izandako eskribautzak ateratako zarata hura guztia; dirudienez, Blas Lorenzo Carrionek jarrai zezan saiatu ziren, beste eskribau bat, Juan Bautista Larrondo, zubi gisa erabiliz. Hala dirudi espediente horretan datorren dokumentuaren arabera: “Don Martin de Olozaga, tio de la referida Josefa Antonia de Goicoechea, dispuse escritura en borron obligandose en ella el referido Juan Bautista de Larrondo a que llegado que fuese Blas Lorenzo de Carrion, hixo legitimo de dicho Joseph de Carrion, a edad competente para ser escrivano y quisiese exerzer la numeria que exerzia su padre haria en tal caso el referido Juan Bautista Larrondo dicha renunzia a favor del suso dicho<sup>LXXXV</sup>”.

Tamalez, ez dakigu nola amaitu zen espediente hori. Hala ere, balio du ikusteko zein modu itxian egiten zen lanbideen ondorengotza; maiz, familia talde txiki batek zuzentzen zituen ondorengotzak, lanbideak mendean edukitzen saiatuz. Carrion familiaren kasua da horren adibide bat.

| Martín de Elorriaga  
jaunaren testamentuaren  
irekiera autoa,  
Donostiako bizilaguna,  
Joseph de Carrion  
eskribaua izanik, 1727.  
Iturria: AHPG-GPHA

# Juan Martínez de Guarnizo

Donostia,  
circa 1590-1642



IOVHANNES MARTINEZ DE GUARNIZO  
TANTO ANNI PROPTER QVOD  
CAV. LE. MAG. D. TORRENT  
AGOCV. V. SESE. NICO.  
QV. ED. COR. SPON. V. S. S. S.  
ROSEVND. DOS ANI. B. S. A. T. OS  
ER. P. V. OS. C. A. D. A. N. O. Y. D. O. S. M. S. S. A.  
R. E. C. A. D. A. S. I. C. A. D. A. S. E. M. A. N. A. M. A. R. T. O.  
A. Z. S. D. D. I. Z. I. N. M. B. R. E. D. I. A. N. O. F. I. C. H.

Esan daiteke ezen Donostian, XVII. mendea, mendearen lehen erdia gutxienez, kapitainen mendea dela. Itsasoarekiko harremanetan hezitako gizon haiek merkataritzan eta arrantzan jarduten zuten, itsas harrapaketan nahiz itsas armaden prestakuntzan. Haien ezagutza teknikoa senide eta lagunen sareari gehitzen zitzaion, zeina Inperioaren lurralde askotaraino hedatzen baitzen.

Kanpoan zuten proiektzioa hemen bertan zuten lehentasunarekin parez pare zihoan. Alderdi bat eta bestea errealitatearen parte banaezinak dira.


Juan Martinez Guarnizoren adibidea da hitzon frogarik beteena. Gainera, aurrez ikusitako pertsonaien zenbait ezaugarri ditu. Adibidez, itsas jarduerekin eta hiriko boterearen ordezkaritzarekin lotutako familia-tradizioa. Familia-oinarri hori hainbat eremutara zabalduko da, seme-alabak eta hurbilekoak familiaren estrategian interesgarritzat jotzen diren guneekin lotzeko.

Luis Guarnizo eta Maria Perez Etxazarretaren semea zen Juan Martinez, eta lau arreba zituen: Isabel, María Pérez, Katalina eta Klara Guarnizo Etxazarreta. Azken biak moja sartu ziren San Bartolomeko komentuan.

Luis Guarnizo, Juan Martinez Guarnizoren aita, Donostiako bi alkateetako bat zen 1600ean. Bestea Antonio Okendo kapitaina zen. Hor ikusten dugu, beraz, familia hori boterearen erpinean kokatzen duen lehen datu bat, hamarraldi haietako pertsonaia nabarmenenetako batekin partekatzen baitzuen alkate-maila, Antonio Okendorekin. Ez da harriztekoa Donostiako udalbatzak bi hilobi eman izana Luis Guarnizori Santa Mariako elizan.

Bereizgarri politiko hori ezin da banatu merkataritzako jardueretatik. Jarduerok, berriz ere, Donostia edo Pasaiaetik Andaluziara eramaten zituzten familiak, hura baitzen irteerako atea euskaldunen negozioentzako beste helmuga garrantzitsu batzuetara; Kanarietara edo Indietara, esate baterako.

Hala, Luis Guarnizoren ekimenez Juan Lopez Riezu donostiarraren kontra betearazitako epai baten bitartez, jakingo dugu Guarnizo Santa Catalina izeneko itsasontziaren jabea zela<sup>(1)</sup>. 1603an gaude. Sevillara bidean izandako matxura baten eta horren ondotik izan ziren gertaeren ondorioz, sakonago ezagut ditzakegu garai hartako itsasontziek maiz jasan behar izaten zituzten zailtasunak. Guarnizok berak deskribatzen du matxura. Pasaiaiko portutik abiatuta, burdinaz eta burdin jeneroz eta beste gauza batzuek zamaturik Andaluzian saltzeko, nondik merkantziak horniturik itzuliko zela uste baitzuen gero Donostian banatzeko, “estando



| Contrato matrimonial entre las casas de Mutiozabal y Gilisasti celebrado en San Sebastián en 1607  
Fuente: AHPG-GPHA

1. Idem, CO UEJ 169.

la dicha nao muy bien adreçada y marinada salio del dicho puerto de Pasage para el rio y puerto de esta Ciudad en seguimiento de su biage y viniendo nabegando le sucedieron muchas tormentas y tempestades de mar y bientos y casos fortuitos e por salvar las dichas mercadurias que benian cargadas en la dicha nao para que no se perdiesen fue necesario tornar arribar y en la dicha arribada se hizieron muchos costes y gastos porque entro la dicha nao en el dicho puerto con los arboles cortados<sup>LXXXVI</sup>, eta Juan Lopez Riezuk ez zion itsasontziaren salmentaren berri eman, halaxe egitea erabaki baitzen gertaera haien ondotik.

Artxiiboak beteta daude halako bidaien inguruan sortutako arazoei buruzko auziz. Oso ugariak dira eta oso informazio baliotsua ematen dute garai haietako auziei eta merkataritza-bideei buruzko informazioa berrosatzeko.

1601etik 1619ra arte, Luis Guarnizo nahastuta ibili zen iraupenagatik eta kostuak ordaindu beharragatik familiaren ekonomia hondatzeko mehatxu egiten zuten auzi judizial haietako batean. Hain zuzen ere, denboran luzatze horren ondorioz, bi parteen oinordekoak ere hasierako kausari erantsi zitzaizkion; haien artean, Juan Martinez Guarnizo <sup>(2)</sup>.

Luis Guarnizok salatuak zituen 1601ean bere herrikide Sebastian Bengoetxea eta Domingo Añorga, ez ziotelako konturik eman San Pedro itsasontziaren pleitaz, zeina berea baitzuen; haiek Caracasera eraman zuten itsasontzia Sevillatik, eta han karga saldu.

Itzulitakoan, Guarnizok ez zuen izan Bengoetxea eta Añorgaren berririk, eta 4.400 errealek besterik ez zuen jaso Sevillako Kontratazio Etxean egindako kitapenetik, nora joana baitzen Guarnizo bazkideen bila; baina ez zituen aurkitu han. 4.400 erreale horiek ez zuten zerikusirik Luis Guarnizok egindako kalkuluarekin: itsasontzia Caracasen bere baimenik gabe saltzeagatik: 28.600 erreale; 50 tonako karga: 23.320 erreale; 3.000 arroa irin: 12.000 erreale...

Luis Guarnizok beste urrats bat eman zuen ondoren: Sebastian Bengoetxeak eta Domingo Añorgak Donostian zituzten ondasunak bahitzea, han bizi baitziren biak. Frantzisko Agirrek egin zion kontra, salatuen ondasunen defendatzaileak, zeinak adierazi baitzuen ezen, nahiz eta Donostiakoak izan, ez zutela ondasunik bertan eta ez zirela Donostian bizi, eta gainera ez zela espero etorriko zirenik, Indietan baitzebiltzan.

1619. urtean, Juan Martinez Guarnizo alfereza gehitu zitzaion auzi eskeari, guraso hil berrien oinordeko gisa haien ondasunen heren eta bosten bana gehituta baitzituen. Ez zuen bere aita Luis Guarnizok baino zorte hobirik izan, ordea.

Kausa hari ekin bitartean, beste fronte batean borrokatu beharra zeukan: Donostiari zegokion, eta zerikusia zuen, batetik, parte hartze politikoaren auzi batekin, eta, bestetik, etxe bat eraikitzen zetozen eragozpenekin, beste etxe batzuei bista eta argia kentzen zizkiela-eta.

1610ean, Juan Ezkerrak eta Luis Guarnizok Tomas Arriola zuten salatua; arazo publikoetan parte har zezan galarazi nahi zioten, etxebizitza hiriko harresietatik kanpo zeukala-eta. Haiek, berriz, Atotxa kalean bizi ziren <sup>(3)</sup>.

Etxeen kokapen fisikotik sortzen ziren eskubideak ez ziren hutsalak. Guarnizok eta Ezkerrak harresiz barneko beste herritarren ohoreak eta lehentasunak goza zitzaizkion, hiriaren gobernuan parte hartuz eta eskubide jakin batzuk izanez, hala nola: zorregatik atxilo hartuak ez izatea, beren soto eta dendetan sagardo, ardo eta beste jenero batzuk saldu ahal izatea; Tomas Arriolak, berriz, harresiez kanpoan baitzuen etxea —etxe zahar bat, errabalean eraikia—, ez zuen halako eskubiderik.

Eta hori aski ez eta eskatzen zuten Arriolak bota zezala eraikitako etxearen goialdea, argia kentzen baitzien haien etxeei, eta hareatzetarako eta ibairako bistak.

Espediente hori adierazgarri bat da, nolabait, ikusteko nola zeuden banatuta herritarrek kategoriatan desberdinetan. Gizarte hierarkizatu eta eskubide eta betebeharrak desberdinez osatua zen hura, non errito, jokaera eta betebeharrak erabakitzen baitzuten taldetik talderako eta mailatik mailarako iragazkortasuna.

Juan Martinez Guarnizoren arrebetako batek protagonizatu zuen, zeharka, erlijioaren eta edertasunaren arteko elkartzearen adibide bat. Aldi berean, balio du frogatzeko nola ibiltzen zen informazioa Donostiaren eta Madrilgo Gortearen artean, hots, bi esparru hain desberdinen artean; horrek bide ematen zuen esparru batean eta bestean gertatzen zirenen berri izateko.

Hala, Martin Agirrek eta Domingo Etxeberri Gipuzkoako Probintziako Errege Fabriketako superintendenteak izan zuten gutunketan, beren kontuez ari direla, aipatzen dute nola Luis Guarnizoren alaba batek ez zuela moja joan nahi, eta gogoeta egin eta iritzia ematen dute horretaz, ez zitzailela harritzen erabaki hori, “porque es hermosa<sup>LXXXVII</sup>”. Edertasuna, berezko balio <sup>(4)</sup>.

Harreman horiek zirela-eta, haren osaba Juan Guarnizok ere maila goreneko harremanetara jo zuen, hau da, berriz ere Domingo Etxeberrirengana, Gipuzkoako Probintziako, Bizkaiko Jaurerriko eta Itsas Kostako Lau Herrietako Artileen Administratzaile Nagusi izendatu berri baitzuten 1625ean <sup>(5)</sup>.

Ez du zalantza egiten hari idazteko, izendapenagatik zorionduz eta segidan eskatuz berriro jar zezala artileen errege-eskubideko eskribau-karguan, zeina Domingo Yunek kendu baitzion. Horretarako, argudiatu zuen 30 urte zeramatzala kargu hartan, eta gutunaren bidez

2. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid, Pleitos Civiles. Escribanía Taboada. Pleitos Olvidados. C1467-6, L 318.

3. Idem, REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 2143,68.

4. Untzi Museoko Artxiboa, VII. Lib., 51. dok. (57).

5. Idem, 13. A lib., 57. dok. (19).

“me arrimo al favor y amparo de V.M. en uno con doña Madalena, comadre de V.M., nos ampare en este oficio de la escribanía de lanas como solia yo servirlo<sup>LXXXVIII</sup>”, erantsiz ezen ziur asko eskatua bide ziotela ordurako gauza bera Martin Aroztegik eta Martin Amezketak.

Harreman horiek lehentasunezko aurrerabidean jartzen zuten Juan Martínez Guarnizo. Familiak erakutsi zitzakeen harremanok daudeke 1628an Seguran egindako Batzar Nagusietarako mandatari izendatu izanaren atzean; Nafarroako Erresumako Gorteteara joateko mandatu eman zitzaion, Gipuzkoara garia ekartzeko baimen eske, sasoi hartan eskasia baitzen hemen.

Hain da hala, non urte hartan bertan, Azpeitian maiatza eta azaroa artean egindako Batzarretan, aldun nagusi aukeratu baitzuten.

Hurrengo urtean, kargu horretan ari zela, berriro izendatu zuten mandatari, Frantzisko Retama Amiralgoko eta Zaintzetako hornitzailearengana joan zedin, Erregearen agindua eskatzera, hark bisita egiten baitzien Donostiako kaian kontrabandakoak ez ziren salgaiei, hartarako baimenik izan gabe.

Bidaniako Batzar Berezian (1629ko martxoan), Enrique Salinas korrejidore berriaren fidatzaile agertzen da.

Bi urte geroago, berriro aukeratzen dute Jeronimo Avellaneda Erregearen Etxeko eta Gorteko alkate jaunari ongi etorria egiteko Martin Amezketa kapitainarekin batera; ikusi dugunez, azken hori ere familiaren hurbilekoa zen.

Urteok jarduera bizikoak dira. Berrogei urte betetzetik gertu, haren jardunbidea hainbat lekutan ageri da. 1628an, Tolosako eliz kabildoaren kontra ekiten dio, berak, Donostiako biztanle Pedro Mungia eta haren emazte Klara Aiaren ondasunen jabe zen aldetik, zentsu bat kitatzeko egindako 200 dukateko gordailutze bat zela-eta; ez zuen ordain-agiririk jaso, Tolosako apaizek eskatzen baitzioten ordainketa zentsua hartu zeneko diru

berean egin zezala, hau da, zilarretan, eta ez zilar-kobretan, Juan Martínez Guarnizok nahi bezala<sup>(6)</sup>.

1630. urtean, Domingo Goizaran jaunak salatu zuen 1.087 pegar ardo ez ordaintzeagatik, hark emanak baitzizkion saltzeko agindurekin batera, eta ordura arte ez zen salmetarik izan, Guarnizok argudiatzen baitzuen ez zuela halakorik egin “por no aver havido comodidad<sup>LXXXIX</sup>”, eta hori egin bitartean, adostuta zegoen bezala jardungo zuela<sup>(7)</sup>.

Arazo judizial haiek ez ziren oztopo ordena militar bateko jantzia lortzen saiatzeko. Udalbatzetan eta Batzarretan parte hartzearekin batera, ordena militar bateko jantzia lortzea eta familiatura ziren ohore eta abantailarik handienak ematen zituzten adierazgarriak. Haien izapideak sinpleak ziren batzuetan, dirutza handi samar bat ordaintzea. Baina esana dugu aberastasuna ez zela neurtzen norberaren ondarearen arabera

6. AGG-GAO, CO MCI 1407.

7. Idem, CO LCI 723.

bakarrik. Beste alderdi batzuk, hala nola ohorea, familiaren jatorria, memoria edo izen ona, erabakigarriak ziren pertsona batek eta familia batek merezi zuen begirunean. Eta horretarako, ez zuten zalantzarik izaten egin behar zen edozer egiteko.

Hala, 1634an, Juan Martínez Guarnizok Santiagoko ordenako zaldun titulua eman zekion lortu zuen; gipuzkoar askotxok zuten jaso bereizgarri hori.

Zenbait proba gainditu behar izan zituen, eta espediente asko aurkeztu, bere kalitatearen berme. Lehenik, filiazio garbia frogatu, eta horrek haren etorkia ezagutzeko balio digu.

Luis Guarnizo kapitaina eta Maria Perez Etxazarreta izan zituen gurasoak, biak ere Donostian jaioak. Horrelako probetan, ez da kezkarik izaten familiakoak era guztietako bereizgarri apaintzeko, harira etorri edo ez. Adibidez, aita kapitain izatea, orain arte ez genekien kontua.

Aitaren aldetiko aiton-amonak, berriz, Juan Guarnizo eta Mikaela Arrazain ziren, eta amaren aldetikoak Joanes Etxazarreta kapitaina eta Maria Perez Villafranca, denak Donostian jaioak. Eta Migel Etxazarreta kapitainaren iloba zen, Nueva Españaiko ontzidiko jeneralarena, non bera konpainiako alferrez izan baitzen.



| Kakaoa ehotzeko metatea. STM

Bi urte geroago, hala ere, ikuskatuko da Indietan egin zuen zerbitzua, eta agertuko da ez zela alferez izan eta ez zuela han egoitzarik izan Amerikan egonaldia egin zuenean. Horiek, hala ere, ez zuten galarazi esandako titulua lor zezan.

Ez da kezkarik izaten lortu nahi den xedea lortzearen egitateak aldrebesteko. Hala, beraren kausan hitz egin zuten 32 lekukoen artean, bakar batek ere ez zuen esan merkatari izan zenik, denda izan zuenik eta merkataritzaren jenerotan ibilia zenik; aitzitik, denek adierazi zuten soldadu eta alferez izan zela, eta "años como capitán y persona de lucimiento<sup>XC</sup>" egin zituela, eta harekin tratua izan zutela Sevillan eta Indietan. Gertaera horiek ezkutatu egiten dute merkatari izan zela, salgaiekin jardun zuela, eta bere denda izan zuela.

Harremanak garrantzitsuagoak dira interesatuek bizi izandako zenbait egoeraren egiantzekotasuna baino.

Auzi hura aurrera eramateko fidantza (300 dukat) Sebastian Arriolak jarri zuen, zeina Alcantarako ordenako zalduna baitzen.

Laster jarriko da agerian ordena militar bateko jantzia izatetik datorkion gizarte-egoera berria. Esate baterako, hiriko bi alkateetako bat izan zen hurrengo urtean (1635), eta halaxe parte hartu zuen urte hartan Donostian izan ziren Batzar Nagusietan.

Hurrengo urtean, talka egin zuen Tolosako Batzar Nagusian izan ziren aldunekin, non Juan Martinez Guarnizok gutun bat aurkeztu baitzuen, armadan ez sartzeko. Han zirenen aurrean irakurri zen "que los letrados asalariados dieron sobre lo que la villa de San Sebastian han escrito en razon de que el capitan Juan Martinez de Guarnizo, por Cavallero de la orden de Santiago, no quiere alistarse en la Compañia que en aquella villa se forma, sobre que ha pedido al padre prior de San Telmo que, como conservador de los privilegios que tiene la dicha Orden de Santiago, proceda contra los alcaldes de San Sebastián que le han mandado que se alistase<sup>XCI</sup>".

Batzarraren erantzunak ez zuen zalantzatarako lekurik uzten. Izena eman beharra zuen, "pues hasta el señor don Juan de Idiaquez, Presidente que fue del Consejo de las Ordenes, formó parte de una compañía<sup>XCI</sup>".

Talka horiek ez zute galarazi 1638ko azaroan egindako Batzar Nagusian errege-kontseilariari harrera egiteko hautaturiko pertsonetako bat izan zedin; Probintziak ordaindu beharreko emaitzaren auziaz jardun behar zuen haiek bitartekari-lanetan.

Probintziako gorabeheretan etengabe hartu zuen parte urte haietan.

1639an Donostiako zinegotzi izanik, Donostian bildutako Batzar Nagusietan parte hartu zuen. Ternuako arrantzez informatzea zuen egitekoa. Baina Antonio Gandolforen gutunaz jarduteko enkargua ere eman zitzaion, erregeak langile, ofizial eta beste pertsona batzuei ordaindu behar zizkien jornalak zirela-eta, eta ondoren bere iritzia azaldu behar zion Aldundiari gai hartaz erabakia hartzeko.

Urte haietan, gerra-hotsak hurbil aditzen dira. Hogeita hamar urteko Gerra gori-gori zegoen, eta Probintziari presio egin zitzaion eskoadra bat eratu zezan muga defendatzeko armada frantsesaren mugimenduen aurrean, gero eta gertuago baitzen Bidasoatik. Testuinguru hartan, 1639ko maiatzean Ordizian egindako Batzar Nagusian, aldu nagusi izendatu zuten, eta Velezko Markesarekin jardun behar izan zuen Probintziak jarri beharreko bi mila gizonen kabo jenerala izendatzeari buruz.

1639ko ekainean Donostian egindako Batzar Nagusian, aldu nagusi izaten jarraitzen zuen. Oraingoan, botua eman zuen Andres Pachecoren tertzioarekin bat egin behar zuten 400 gizonen 4 kapitainak hautatzeko. Batzar hartan, gai horri buruz negoziatzen eman zituen egunak eta egunak.

Mami handikoa da, halaber, Donostian Sebastian Arriola alkatearen eta Vicente Monsuri plazako gobernadorearen artean izandako iskanbila eta desadostasunak zirela-eta izan zuen jardunbidea; Guarnizok harreman estua

izan zuen Arriolaren familiarekin: "Este dia el señor diputado general propuso y dixo anoche, diez y siete del corriente (julio), a la media noche, ha habido en esta villa grandes alborotos y escandalos sobre que parece que el señor don Sebastian de Arriola, como alcalde de esta dicha villa, prendio a un soldado por desacatos y resistencia calificada que una de las noches pasadas, andando de ronda, le hizo.

Y el maese de canpo don Bicente de Monsuri, gobernador de este presidio, haviendo benido con mucho numero de soldados con armas de fuego, de mano armada y con fuerza y violencia, rompiendo las puertas de la carcel, saco de ella y puso en libertad al dicho soldado preso, sobre que se alboroto toda la billa y acudio tanta gente que, a no haver habido el dicho señor don Sebastian de Arriola con toda prudencia y cordura y procurado aquietar a los vecinos que acudieron a este alboroto, pudieran haver sucedido muertes y desgracias, originandose todo de la nueva yntroduccion de la ronda que hacen los soldados, siendo asi que siempre la ha hecho y hace la justicia ordinaria de esta dicha villa con tanto cuidado y bixilancia que ha mantenido y mantiene la republica con toda paz y quietud hasta la introduccion nueva que queda referida. De que resultan encuentros entre la justicia ordinaria y vecinos de esta dicha villa y los militares, como se ha experimentado en la ocasión presente.

Y porque esta causa toca a esta provincia respecto de atravesarse la defensa de la jurisdiccion real y la de sus alcaldes hordinarios, conforme a sus privilegios y ordenanzas, pone en consideracion a su Señoria lo que en esta razon deba hacer<sup>XCI</sup>".

Probintziak Guarnizoren argibideei jarraitu zien, eta Errege Kontseiluari idatzi zion gertatuaren berri emanez, komeni zen erremedioa jar zezan.

Gertaera haren atzean soldaduak eta herritarrak hartzen zituzten bi jurisdikzio desberdinak zeuden, horrek talkak eta liskarrak ekartzen baitzituen. Soldaduak jurisdikzio militarren mende zeuden, eta



justizia arruntak ezin zituen inputatu; ondorioz, zigorgabetasun-egoerak eta tentsioak gertatzen ziren.

Uztailaren 29an, Guarnizo aldun nagusiaren beste gutun batek proposatu zuen Kristobal Eguskitza Probintziak bere defentsarako jarriko zuen sarjentu nagusi izenda zedila bere soldata eta guzti.

Gerra-garaiak ziren haiek. Tropa frantsesak Donibane Lohizunen zeuden, eta Irunera bidean: 8.000 soldadu lehorretik eta itsasontziak itsasoz. Probintziari behin eta berriz eskatzen zitzaion bere indar guztia jartzeko lurraldearen defentsarako.

Irailaren 12an, Guarnizoren beste gutun bat; probintziako aldundian bildurik Migel Aroztegi eta Juan Martinez Iturgoiaren Donostiako zinpeko nagusiekin, Kristobal Eguskitza sarjentu nagusiarekin eta Juan Olaeta zinegotziarekin, “que son la mayor parte de los sujetos de la dicha Diputacion. Y estando asi juntos, el dicho señor Diputado general propuso y dixo que habiendo quedado y allarse al presente esta Provincia, sus villas y lugares y naturales tan lastimados y aflixidos y acavados con las ocasiones de las guerras presentes, y particularmente con los aloxamientos de la jente de infanteria y cavalleria que an sobrellevado, an entrado de nuevo algunas compañías de infanteria de irlandeses en esta Provincia ha alojarse en ella.

Y ademas de ello, se a tenido noticia que se trata de meter en la misma provincia otras compañías de a cavallo de los Dragones para el mismo alojamiento, cosa que, dandose lugar a ella, a de acavar de asolar y destruir toda esta tierra, como se a experimentado por lo pasado, en particular con la asistencia de los Dragones, por los insultos y malos tratamientos que an echo en esta dicha Provincia en el tiempo que an estado alojados en ella. De que da cuenta su Señoria para que con su acostumbrada providencia ocurra al remedio de estos daños<sup>XCV</sup>”.

Aldundiak, Juan Martinez Guarnizoren aholkuei jarraituz,

agindu zuen ordezkaritza bat joan zedila Velezko Markesarengana, Probintzia esandako loiamenduotatik jaregiteko.

Auzi horretaz arduratu eta argitzeagatik, 2.000 marabedi ordaindu zitzaizkion lau eguneko lanaren truke.

Batean kale, bestean bale; izan ere, Segurako Batzar Nagusian, 1640ko azaroan, Probintziako diruzain Lazaro Agirre zumaiarrak esan zuen Juan Martinez Guarnizo kapitainak ez zituela jaso nahi 200 dukat Probintziari mailegutan emandako zentsuen korritu gisa, aurrez Azkoitian egindako Batzarrean emandakoak, baldin eta Donostiako bere etxean jasotzen ez bazituen. Batzarrak agindu zuen Guarnizok Zumaian kobra zezala, Agirre bizi zen lekuan, eta hala ez bazen, korrejidorearen jakinean jarri beharko zela auzia, zegozkion neurriak har zitzaiz.

Probintzietan hain biziki parte hartze hori bat-batean amaitu zen, 1642an. Urte hartan hil zen Juan Martinez Guarnizo kapitaina. Ez zuen utzi ez seme-alaba legezkorik ez ezkontzaz kanpokorik. Maria Galarzarekiko ezkontzatik, beraz, ez zen geratu oinordekotzarik.

Alargunak jarri beharko zuen lehen lerroan, bien ondarearen defentsan. Hala, hark ez zuen zalantzarik egin 1643an, Klara Añorga auzokoaren kontra jotzeko, senarrak hari 1639an mailegutan emandako zentsu baten korrituak ez ordaintzeagatik (200 dukat eta 45eko errenta urtean)<sup>(8)</sup>.

Joanak ziren bost urte, eta alargunak batere dirurik jaso ez; halatan, auzi eskea onartu egin zioten Korrejidoretzan, eta Klara Añorgaren ondasunak salgai jarri ziren. Ondasunok ziren: Esterlines kaleko etxe nagusiak, intxaur-zurezko idazmahai bat, tiraderadun idazmahai bat, arka handi bat, jantziak, ohea...

Zorra kitatu arte, ondasun haiek Esteban Etxeberriak gordailutuko zituen.

Espediente hartan bertan, Juan Martinezen testamentuaren klausula batzuk ageri dira; testamentuak 1642ko abenduaren 25eko data darama, eta Donostian dago sinatua.

Bertan esaten da Maria Galarza, San Telmo monasterioko priore Bartolome Etxeberria eta Martin Aliri eta Migel Arostegi koinatuak izendatu zituela testamentuaren betearazle.

Adierazten du, esana dugunez, ez zuela seme-alabarik, eta lotzen ditu etxe nagusiak eta gurasoengandik jasotako beste ondasunak, juroak eta zentsuak, emazteari utziz usufruktuan bizi artean, eta oinordeko izendatu premutasunean bere iloba Migel Antonio Aliri eta haren seme-alaba eta ondorengoak, lehenetsiz beti gizonezkoa emakumearen aurretik, eta zaharragoa gazteagoaren aurretik. Eta oinordekorik gabe hilez gero, bigarren izendatzen du haren arreba Ana Maria Aliri.

Ondorengo gizonezkorik gabe, Guarnizo abizena desagertu egin zen Donostiaren historiatic. Hura galtzarekin batera galdu zen, nolabait, familia nagusietako baten memoria Donostiako hiriaren garai loriatsuenetako batean.

8. Idem, CO UEJ 413.

# Bernarda de Goicoechea

XVIII. m

Bernarda Goikoetxa da hemen aztertu ditugun pertsonaien artean emakume bakarra. Eta ez dugu hautatu bere egitandi edo ibilera harrigarrietatik. Haren hilarrian ageri den burezur bat da hura hautatzeko arrazoia, nolabaiteko berezitasun bat ematen baitio. “Nolabaiteko berezitasuna” esan dugu, elementu ikonografiko hori uste ohi dena baino maizago agertzen baita.

Gertaera hori balioesten hasi aurretik, Bernarda Goikoetxeari buruz erreferentzia dokumental bakar bat dugu.

1731ko data du, eta ez dakigu ziurtasun osoz agiri horretan azaltzen dena bere hilarriaren apaingarri aipatu dugun burezura jartzeko agindu zuen Bernarda Goikoetxea bera den.

Baina datak eta pertsonaiari buruz beste erreferentziarik aurkitu ez izanak bultzatu gaitu agiri hori aurkeztera. Bestalde, edukia ez zaigu arrotza egiten, eta bazegokien garai hartako beste emakume batzuei ere.

Esan bezala, 1731n Bernarda Goikoetxeak Mariana eta Josefa Antonia Lizardi ahizpa hondarribitarrak salatu zituen, esanez behin eta berriz deitu ziotela “nieta de Domenja Trampa<sup>XCV</sup>”<sup>(1)</sup>. Donibane Lohizunetik bueltan zetozela<sup>(2)</sup>. Sarritan, emakumeen artean gizarte-bakea mehatxatzen zuten gertaerak izaten ziren. Haien jendetasuna egiten zituzten lanbideetan oinarrituta egoten zen maiz, horretan ematen baitzuten denborarik gehiena. Han, adiskidantza handia sor zitekeen, edota gertaera gatazkatsuak.

Kasu honetan, gertaera horretarako lehen hurbilpena Josefa lantzik ematen digu, 17 urteko hondarribitar batek. Hark dioenez, zenbait lagun Donibane Lohizunetik zetozela, batzuk aurrerago, besteak atzerago, salatuek esan omen zioten Bernardari “que te pica<sup>XCVI</sup>”, eta berari ere esan omen zioten “bosotras tendreis un grado mas en el cielo<sup>XCVII</sup>”, eta horri erantzun omen zion Bernardak “que no, que todas las personas havian de tener igual grado porque todas heran hixos de Adan y Eva<sup>XCVIII</sup>”. Eta aurrerago esan omen zioten berriro Domenja Tramparen biloba zela, eta auzi-jartzaileak erantzun omen zion “vosotras sois nietas de Clara de Yguolas<sup>XCIX</sup>”.

Aitorpen haren ondotik, salatuetako bat, Mariana Lizardi, 27 urtekoa, deitu zuten aitorpena egitera. Bere lekukotzan, esan zuen eztabaidaren zioa zera izan zela, Donibane Lohizunetik bueltan, beste zenbait lagunekin batera, Bernardak galdetu ziela “si havia echo alguna maldicion y la respondieron no estamos con V.M.<sup>C</sup>”. Eta hitz haien ondotik,



1. Hondarribiko Udal Artxiboa, Pleitos Criminales, 23. lib., 3. erreg.

2. Hondarribiko Udal Artxiboa, Pleitos Criminales, 23. lib., 3. erreg.

Marianakerantzun zion auzi-jartzaileari Domenja Tranparen biloba zela, eta Bernardak erantzun omen zion “nosotras no somos como vosotras que andais a deshoras de noche, soys de carne muy ardiente y de mala calidad<sup>CII</sup>”.

Eztbaida berotuz joan zen. Lizardik esan zion “nosotros no hemos andado de noche, vosotras si haveis andado de parte a parte escudriñando que contar, a lo qual la dicha Bernarda la dijo a la confesante que le quereis a ellas? Si hemos andado en busca de nuestros hermanos a sido por vosotras y de otras iguales de carne muy ardiente y de mala calidad por hazerlas apartar y añadio la dicha Bernarda que ella y los suos no querian entrar en la generacion de la confesante, hechando al mismo tiempo la saliva y dando una patada al suelo, a lo qual la confesante dijo, jente honrado apartese para evitar el hedor y añadio la confesante que en su jeneracion estava metido un hermano de dicha Bernardo y ella le respondio que havia sido cierto pero havia sido contra la voluntad de ella y los suos y tambien dijo la dicha Bernarda nosotros no hemos parido de clerigos<sup>CIII</sup>”.

Ikusten denez, familien ohorearen eta izen onaren kontrako hitzak, batez ere jendaurrean esanak, ezin erantzun gabe geratu.

Batzuek besteak menosteko erabiltzen zituzten ezizenak ohikoak ziren garai hartan, eta ez ziren iraintzat jo behar.

Bernarda Goikoetxeak, berriz, argudiatu zuen dena hasi zela txalupetan egiten zen sardina-arrantzaz hizketan ari zirelako, eta hala, bi ahizpez esan zuen “que su chalupa por encanto de las acusadas no podia pescar y de esto nacio alguna inquietud entre las tres<sup>CIII</sup>”.

Nolanahi ere den, irainengatiko salaketa askotan emakumeak izaten ziren parte hartzaile.

Kaskezurraren ikonografiari dagokionez, berriz, hilarrietan eta beste leku batzuetan agertzeari “vanitas” edo “vanitas vanitatum” deritzo artearen historiaren ikonografian. Gehienetan, beste elementu batzuk ere izaten dira erreperitorioan, burezurraz gainera. Nolanahi ere, burezurra gai nagusietako bat izatera iritsi zen XVII. mendean heriotzaren sinbolo gisa.

Arte-genero gisa, natura hilen mota bat da, zeinean hareazko erlojuak, burezurak, kandela piztuak, liburuak... agertzen baitira. Guztiak ere denboraren joana eta giza izatea adierazten dutenak. Izena, “vanitas” Bibliako Kohelet liburuko (I, 2-3) esaldirik errepikatuenetatik hartua da: “Huskeria hutsa —dio Koheletek— huskeria hutsa, dena huskeria da. Zertarako du gizakiak lur honetan leher egitea?”.

Jatorri barrokoa San Ignazio Loiolakoaren *Gogojardunetan* aurki daiteke, zenbait jardunaldi eskaintzen baitizkio norberaren heriotza eszenaratzeari (fededunak irudikatzea, xehetasun guztiz, heriotza, hilobiko izugarrikeriak, usteltzea, harrak...).

Handik hara, ohiko bihurtu zen *burezurra heriotzaren sinbolo agertzea, eta santuak hura eskuan hartuta, hartaz gogoetan*.

*Vanitas Vanitatum* delakoak giza bizitzaren irudikatze alegorikoa egiten du, hauskortasuna nabarmen uzten duten erreferentzia ikonografikoen bitartez. Garai barrokoan, XVII. mendean, Espainiako Urrezko Mendearen bigarren partean alegia, pintoreek margolan asko eta asko sortu zituzten *vanitasari* buruz, margolan-genero berezi bat osatzeraino. Irudiok lur honetako desengainua eta gauzen huskeria iradokitzen dute, eta mezu moralizatzailea adierazten gure izatearen iheskortasunaz, deusezaz eta hutsalaz. Munduko plazer galkorrak, edertasuna, aberastasuna eta boterea modu ezin latzagoan kontrajartzen zaizkio heriotzari; gehienetan, burezur batek edo gehiagok irudikatzen dute, jakin dezagun bizitza iragankorra dela, eta bertutean saiatu beharra dagoela.



| Zeta arrosezko soinekoa. XVIII. mendea. STM.  
Argazkia: Beltz argazki ekoizpenak

# Joan Domingo de Oiza

circa 1680-1750

Juan Domingo Oizaren familiak Donostian sustrairik ez izatea dateke, beharbada, kontuan hartu beharreko lehen puntua haren deskribapena egiterakoan. Jose Carrionen kasuan ikusi dugunez, hori ez zen huskeria. Familia zen norbanakoaren oinarri nagusia gizartean. Haren bidez sartzen zen gaztea lan-merkatuan. Hark erabakitzen zuen, hein handi batean, adiskideen zirkulua, eta nahitaezkoa zen baita familia berri bat sortzeko ere; izan ere, hurbilekoen eta senideen laguntzarik gabe zail samarra zen ezkontzea.

Hori guztia harira dator, Oiza abizenak tradizio gutxi baitzuen Donostian. Nafarroan du jatorria, eta XVII. mendearen bigarren erdian iritsi zen Donostiara. 1698an, familia horretako kide bat, Antonio Oiza, Donostiako udalbatzako kide izan zen, eta zinpeko nagusi kargua izan zuen. Kargu hori hirian egiten ziren errenta eta zerga guztiak jasotzeaz arduratzen zen, baina baita udalbatzaren bileretan hartutako erabakiak betearazteaz ere. Zinpekoaren garrantzia gutxituz joan zen errejidoreen egitekoek pisua hartu ahala, baina zinpeko izateak esan nahi zuen udalaren kudeaketan parte hartzea, eta, horrekin batera, herritarren ordezkaritza izatea nolabait. Eta are esanguratsuagoa: gizarte-kalitate jakin bat bermatzen zuen hirian —Donostia hiri zen ordurako—; izan ere, hiritartasuna ez justifikatuz gero (eta lehenago aipaturiko beste tasun batzuk), ez zegoen hautesle izaterik, eta are gutxiago hautagai.



Oiza familiak parte hartzen zuen merkataritza-jardueretan. Batera edo bestera, merkataritzako tratuak herritar guztien artean hedatzen ziren. Beraz, ez da harritzekoa harreman hori. 1707an, Kristobal Oizak eta Rafaela Zozaia emazteak, Donostiako biztanleak biak, Mariana Añorga salatu zuten, Jazinto Aztiriaren alarguna, urte batzuk lehenago saldutako ale batzuk ez ordaintzeagatik. Informazioa oso urria bada ere <sup>(1)</sup>, bide ematen du Oizaren jarduera ekonomikoa merkataritzaren arloan kokatzeko.

Biziak hirian bizitzeak zerikusia zuen hildakoen egoitzarekin. Gauza jakina da elizen barruan ehortzi zirela hildakoak XIX. mendean ondo sartu arte, eta hilarriak bitarteko zirela beste mundurako iragaitzan. Hain zuzen ere, espazio falta hori eta hilobien ondare-balioa gatazkagai bihurtzen ziren batzuetan. Horixe gertatu zen 1726an.

Pedro Ignazio Atorrasagastik eta haren emazte Katalina Bautista Astigarragak Teresa Oiza salatu zuten, Pedro Aresorenaren alarguna, San Bizenteko elizako eserleku bat eta hilobi bat zirela-eta <sup>(2)</sup>.

Azpian datzan arrazoia eliz barruetan zegoen espazio-eskasia da; horrek arazoak ekartzen zituen leku libre urria zela-eta. Teresa Oiza senarra hilez gerotik hilobian, “que ocupa lo que un asiento<sup>CIV</sup>”, zuziak jartzeaz salatzen zuten, hilobiak auzi-jartzaileen ondoko lekuan traba eginez.

Oizak 1692an zuen beretua hilobi hori, Margarita Absalondegia tolosarrari erosita. Bere alde, zera aitortu zuen, eta datu interesgarria da: hilarrian aurrez zegoen izena, Maria Perez Laskoain, kendu egin zuela, eta lauza zuri bat jarri zuela, non berea, senarrarena eta oinordekoena zela adierazten baitzen.

1734ra arte, Juan Domingo Oiza ez da ageri dokumentuetan. Baina urte hartan

Donostiako udalbatzako kide zen, sindiku prokuradore karguarekin. Ofizio hori herritarren interesak defendatzearekin lotuta zegoen, baina askotan bazirudien zerikusia zuela zinegotzi eta zinpekoek egiten zutenarekin. Adibidez, Juan Domingo Oizak, urte hartan kargu hura zuelarik, eskatu zion Pedro Aztin Lizarza donostiarrari Miserikordiako txiroen ospitaletik San Bartolomeko monasteriora zihoan herri-galtzada konpon zezala, horma-hondakinez eta lurrez itota baitzegoen eta, hura jabea zenez, berari baitzegokion parte hura garbitzea <sup>(3)</sup>.

Euskal gizartearen, garai modernoak aurrera egin ahala, herri eta hirien gobernuko auzietan parte hartzeak gero eta garrantzi handiagoa izan zuen herritarrentzat. Herritar asko erabakiak hartzerakoan bazter gelditzea, hauteskundeetan manipulazioa izaten zelako salaketa, herri-finantzen kontrolean lasaitasun handiegia izaten zela, udal gastuetan kontrol gutxi..., gai horiek guztiak gero eta sarriago agertuko dira auzi judizialetan, batez ere XVIII. mendeko bigarren hamarralditik aurrera.

Hain zuzen ere, Juan Domingo Oizaren irudia nabarmendu zen udal organoen funtzionamendua aldatzeko beharra zela-eta. Donostiako hiriak barne-funtzionamendua hobetzeko bere buruari emandako ordenantza berrietan jasotako kapitulu batzuei kontra egiteak kartzelara eraman zuen Oiza, hirian errebolta zabaldu nahi zuelako salaketa larriaren pean <sup>(4)</sup>.

Hain zuzen ere, haren kasua Gaztelako Kontseiluaren Lehendakariaganaino iritsi zen, auziak zuen garrantziagatik. 1737. urtean, hain zuzen.

Auziaren jatorria, printzipioz, sinplea zen. Udalbatzak ordenantzei iradokizun edo hobekuntza batzuk egiteko asmoa azaldu zuen, eta,



| Donostiako planoak. XVIII. mendea. STM. Argazkia: Beltz argazki ekoizpenak

horretarako, 1737aren hasieran xedapen bat zuen emana, zeinean zuzenketak egiteko gonbita egiten baitzen; izan ere, ordenantza zaharrak eta berriak nahasten ziren, pribilegioak eta indargabetutakoak, eta hortik iritzi desberdin asko sortzen ziren, eta Udalak gobernatu ezina.

Eta testuinguru horretan, Oizak bere erantzuna eman zuen, “varios reparos a las ordenanzas<sup>CV</sup>”, beste zenbait herritarrek egindakoekin batera, baina besteek ez zuten inolako eztabaidarik ekarri.

Kontu hark ihes egin zion eskuetatik. Hirian zenbait lekutan zabaldu zituen bere zehaztapenak, udalak salatzen zuenez, eta udalak berak aurkeztu zituen Gaztelako Kontseiluaren aurrean Oizak egindako alegazioak. Honako hauek dira:

“1º. Por quanto ser mas combeniente como se practicava el que las rentas de esta ciudad se pongan cada una de por si en cada un año en almoneda por lo qual asi previenen las hordenanzas para su cumplimiento, serian asi mas ventaxosas para la ciudad como la esperiencia lo demuestra de los que se ponen anualmente sin que para ello tenga la ciudad el gravamen de trescientos ducados que se dan al administrador añalmente y sin estar suxeto a la quenta que diere este, y seran mas claras y justificadas por razon de sus remates lo que da cada renta, pues la ciudad asegura a toda su satisfaccion el importe de cada una ya por el rematante y aunque este faltase, por su fiador.

3. Idem, CO ECI 2384.

4. Archivo Histórico Nacional, Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Consejo de Castilla. Varios del Consejo de Castilla. Consejo de Castilla. 1ª y 2ª Serie. LEG. 13083.

1. AGG-GAO, CO ECI 1938.

2. Idem, CO ECI 1726.



| Tomas Prieto Gutiérrez. Donostiako udaletxe zaharreko fatxada. STM

2º. Y se dize que en las ultimas quantas haze alcanze el administrador a la ciudad de nueve mil pesos, que es muy digno de repararse por donde dimana este alcance tan impensado, pues asi por la ciudad como de sus vecinos es mui combeniente se le haga el devido cargo de donde o como resulta el alcance que supone en sus cuentas, para que por este medio llegue a notizia de todos su intelixenzia.

3º. Y por quanto mediante el poder que tiene el señor Vildosola para asistirle a nuestro diputado en la corte, es y sera muy combeniente el que diese este razon de las cantidades con que le ha suministrado y de los caudales que ha tomado a censo contra la ciudad con la justificacion que se espera para la intelixenzia de la ciudad y sus vezinos y en su vista se resuelva por todos lo combeniente.

4º. Lo otro que se tenga en quenta la hordenanza pedida por esta ciudad a S.M. el año de 1577 sobre los salarios que se deven pagar a las personas que fueren a negocios por esta ciudad a la Corte de Madrid y a la ciudad de Valladolid, como tambien la carta escrita a esta ciudad por el señor don Pedro Juan de Alfaro, fiscal de el Real y Supremo Consexo de Castilla el dia 24 de abril de 1734 y se tengan presentes asi por la ciudad como de sus vezinos al tiempo de aplicar el salario diario y esto no se resuelva sin que haia congreso general porque se tiene presente lo que ha pagado la ciudad habiendo embiado a la dicha Corte su diputado para el seguimiento del pleito con la villa de Renteria.

5º. Y combiene saber el paradero de los mil y seiscientos pesos que le tocan a la

ciudad por dos repartimientos que se han hecho por los señores directores de la Compañía de Caracas a razon de veinte por ciento y ser interesado la ciudad en diez y seis acciones.

6º. Lo otro seria muy combeniente para la intelijenzia de todos que cada año como lo hacen los señores administradores de la plaza nueva se diese a entender a vezinos expeciales el estado de esta ciudad con su cargo y data, para que por este medio se sepa con la capitalidad que se halla la ciudad.

7º. Lo otro como previene la hordenanza que no se dexa entrar a ninguna cavalleria sin carga en la ciudad para que guardandose asi quede la ciudad mas abastecida y que para ello se le de la horden necesaria por la ciudad al

guarda puerta, para que lo execute asi imbiolablemente.

8º. Y por quanto ay hordenanzas que los dias de fiesta no se hagan cargar ni descargar y pareze que expresamente aguardan los arrieros a estos dias festivos para hacer cargas y salir con ellos con la seguridad que son libres para ello dandole al diputado del Santisimo quatro quartos por cargar y sobre esto ocasionando muchos deshordenes, para cuiio remedio ser combeniente se quite este mal uso y se guarde y se cumpla y no haia semexante carga ni descarga a menos que no haia alguna necesidad precisa.

9º. Y que los dias de fiesta esten zerradas todas las tiendas y cavañas eszeptuando como hasta aqui boticarios y zereros y otros que son permitidos y para ello imponiendo la ciudad las penas correspondientes.

10º. Por quanto el capitulo octavo de las hordenanzas de el año de 1544 y en la de 1577 dize que ninguno que fuere elexido o nombrado por alcalde o teniente de alcalde y el tal elexido fuere ofizial mecanico que el tal año que asi fuere alcalde, jurado o rexidor no use de el tal oficio mecanico, he porque la misma razon y onestidad milita en los demas de el dicho reximiento, hordenamos que cada y quando que algun ofizial mecanico o persona o mercader de peso o medida o bara o regatones fueren elexidos por alcalde, tenientes de alcaldes o jurados o rexidores o puestos en lugar de rexidor durante el tiempo que asi son alcaldes o tenientes de alcaldes o jurados o rexidores no puedan usar ni exercer los dichos oficios mecanicos ni de bara, peso ni medida ni regatoneria ni otro oficio vil he vaxo alguno.

Y porque este capitulo se ha intentado algunas veces interpretar de otra forma mandando a los jurados que zierren sus tiendas pues esto no se debe entender con las familias de los que salieren por elexidos en los ofizios honrosos de esta Ciudad ni menos el zerrar sus tiendas y en esto no haia mas novedad que la que se a practicado hasta ahora si bien no use el tal elexido en los ofizios que previenen dichas hordenanzas durante su empleo.

11º. Y por quanto previenen las hordenanzas que de todo quanto acordare o decretare la ciudad que por el jurado o su escrivano se le haia de dar al sindico un tanto de lo que asi acordare, y por ser el sindico persona de tan buena calidad y por que no hande zelando y vixilando de lo que dispone la ciudad, es y seria mui combeniente el que dicho sindico se junte todas las vezes que la ciudad se juntase y tenga su boto como los demas capitulares como esta acordado por junta de vezinos expeciales, y que para ello se pida su confirmacion a Su Magestad.

12º. Lo otro que de aqui adelante la ciudad no pida ninguna pension ni hordenanza ni otras cosas al real y Supremo Consejo de Castilla sin que primeramente y ante todas cosas se comunique a los vezinos expeciales su gravedad y necesidad y con su vista se resuelva lo combeniente.

13º. Lo otro que por ningun motivo que la ciudad no haia de entablar pleito con ninguno sin que antes todas cosas represente a los vezinos los justos motibos que hubieren para ello, y se resuelva lo necesario por todos.

14º. Lo otro que la ciudad no pueda enviar por si ningun diputado a ninguna parte para sus dependenzias ni menos el de señalar salario alguno como previene la citada carta de los señores del Real y Supremo Consejo de Castilla.

15º. Lo otro que todo quanto se le ofreciere a la ciudad no se haia de resolver por juntilla particular, si bien por congreso general y esto se observe inviolablemente.

16º. Lo otro que de aqui adelante asi en las elecciones proximas como en las que se han de zelebrar en cada año, que el escrivano haia de leer los que quedan libres por la pasiba para que por este medio no suceda la exclusion que se a experimentado o sea por descuido o por intelixenzia y por medio de esta dilixenzia sabra cada vezino para lo que esta.

17º. Lo otro que de aqui adelante no haia de tomar la ciudad ningun dinero a censo sin que se les comunique a los vecinos y para ello representando la necesidad que huviere.

18º. Lo otro que la hordenanza del año de 1630 se guarde y se observe inviolablemente sobre punto de hedificar y redificar casas, para que por este medio se ataxen los pleitos que se pueden ofrecer mediante la hordenanza moderna del año pasado de 1735, como la experiencia lo ha demostrado y esta ultima hallarse dispuesta por la ciudad sin comunicaci3n de vezinos.

19º. Lo otro que se observe la hordenanza del año de 1641 sobre punto de la eleccion y millares que ha de tener uno asi para la voz activa como para la pasiva, por ser esta la mas favorable y dispuesta para alivio de sus naturales, sin que se entienda para ello lo que dispone otra hordenanza del zitado año de 1735, que la dispuso la ciudad por si sin dar notizia a sus vezinos.

20º. Pues haviendo visto la ultima recopilacion de las hordenanzas corrxiendo y aÑadiendo y menguando seg3n la diversidad del tiempo en todo lo que entendian ser cumplideras al servicio de Dios y de la ciudad, confirmadas por los señores reyes en la ciudad de Baeza el dia 7 de julio de 1489, y las susseguientes, se deven observar y



| Zortzi erreal zilar.  
Felipe IV. Madril, 1663.  
Bilduma partikularra

guardar en todo y por todo según en ellas contiene inviolablemente, como tambien todos los privilegios y otras provisiones que tiene esta ciudad aunque no se haze mencion de ellas en la recopilacion, menos las referidas del año de 1735.

San Sebastian, y noviembre diez y seis de mil setecientos treinta y siete. Juan Domingo de Oiza<sup>CVI</sup>.

Oizak bere iritzia emateko aukeratutak gaiak garrantzitsuak eta herritarrei erraz eragiteko modukoak ziren: kontuak fiskalizatzea, udal gastuak arrazionalizatzea eta kontrolatzea, hornikuntza bermatzea, lanbide jakin batzuk eta kargu publikoak bateraezinak izatea, edo gutxi batzuen sekretismoa eta erabakimena etetea, herritar gehien bazterketaren kontra.

Horregatik, ez da harritzekoa udalbatzako kideek iraingarritzat hartzea Oizaren proposamena: “haviendo visto la carta adjunta de la ciudad de San Sebastian y el papel de reparos dados por Juan Domingo de Hoyza sobre la recopilacion de ordenanzas formada de acuerdo de la misma ciudad para su regimen y gobierno, siendo el referido papel ofensivo a la ciudad, y a los que tienen el manejo de su gobierno y exceso en Juan Domingo de Hoyza el averle dado introduciendose a dar reglas de lo que debe observar y practicar la ciudad, lo remito a V.M. con su carta para que en su vista disponga se remueba a la carcel de esa villa al espresado Juan Domingo de Hoyza, donde permanecera hasta nueva orden. Y en orden a lo que la ciudad expresa de aver solicitado este sugeto atraer a otros vecinos a su parcialidad esponiendo al pueblo a alguna inquietud<sup>CVII</sup>”.

Beraz, proposamenaren aurrean, eta haren alde pertsona gehiago jarri baino lehen, neurriak hartu ziren: “el dia 7 se celebros esta juntilla y en ella con conocimiento del jenio caviloso de Hoiza, que aunque es persona de poca suposicion podia con su influxo malear a otros vecinos que son contenidos, modestos y respetuosos hacia mi (los Alcaldes –Jose Francisco de Aguirre y Oquendo, y Jose Manuel de Jaureguiondo-) y a mis capitulares y

previendo tambien por las diligencias que se le ha visto practicar, solicitando atraer a su partido a otros, pudieren introducirse entre los vecinos una inquietud y desconfianza que motivase disturbios y encuentros y otras graves consecuencias en perjuicio de la paz y union<sup>CVIII</sup>”, lehenik bere etxean atxilotu zuten Oiza (1737ko abenduaren 20an), eta gero Probintziako kartzelara eraman zuten preso.

Ondoren, ondasunak bahitu zitzaizkion, ez zezan ihes egin: 12 aulki, mahai biribil bat, bi kutxa, zazpi margolan santuenak, kandelagile lanbideko tresneria guztia, eta Martinsanzenako etxea, etxaldea eta bertako jabetzak, Donostiatik Hernanirako bidean.

Juan Domingo Oizaren iritzia entzun ere egin gabe, Gaztelako Kontseiluak aginduz Hiriari ezen aurrerantzean ez zezala Oiza deitu ezein batzar edo bileratar (Madril, 1738ko martxoa), behin-behineko neurri gisa. Eta gero kartzelatik ateratzeko agindu zen.

Kartzelan pasatu zuen denbora luze samarra izan zen, 80 egun, eta ez zitzaion testigantzarik eskatu; bai. ordea, herritar askori.

Orobat, Juan Domingo Oizari egotzi zitzaizkion auzibidearen kostuak.

Hala ere, hura ez zen isilik geratu. Helegite bat jarri zuen, zeina Gaztelako Kontseilura iritsi baitzen, eta bide horretatik jakin dezakegu haren iritzia<sup>(5)</sup>.

Haren alegazioarekin batera zeuden agirietan, aurrez esandako salaketaren deskargu bat zetorren, adieraziz ordenantzei jarritako eragozpenen asmoa ez zela ez iraingarria ez laidogarria, “sino solo demostrativa de los puntos que a mi parte parecieron convenientes y se le mandaron por dicha Ciudad proponerlos. Y porque no haviendo avido, como no ubo, voto mas que una censilla insinuacion de lo que a mi parte parecia y se le mando, se acrimino esto tan gravamente por dicha ciudad en su queja.

Y porque aun quando en su voto hubiese algunos asuntos que el executarlos fuese conbeniente, no pudo justamente quejarse de esto dicha Ciudad, quando a cada uno es libre el manifestar su sentir decorosamente aunque no se asienta el mismo sentir ni a nadie se ofende porque uno sea de contrario sentir, por ser tan natural la variedad de dictámenes y aver sido necesitado mi parte por la orden de la misma ciudad a dar su sentir.

Y porque caso negado que en dicho dictamen de mi parte ubiese avido alguna voz agravase a alguno, estava plenisimamente saneada con el memorial que mi parte presento a la ciudad en que manifestando su ninguna intencion a agraviar a alguno y sugetandose a que la misma ciudad a su entera satisfaccion enmendase el hierro que ubiese, se resignaba en todo a lo que la misma ciudad dispusiese lo que era capaz de soldar aun ierros muy graves que ubiese havido en el dictamen de mi parte.

Y porque el genio quieto y pacífico de mi parte consta claramente y el ninguno motivo con que a mi parte se moteje de caviloso.

Y porque en la misma forma parece de las ningunas diligencias que mi parte hizo para atraer a otros a su partido de que tambien se le moteja.

Y porque los peligros de escandalos, disturbios y enquentros y otras graves consecuencias que tanto se ponderan en la queja no solo se desbanezen de lo mismo que tanto deponen tantos testigos, sino tambien conducentemente con tenerse presente que mi parte no presento el papel en aiuntamiento general ni particular, sino que conforme a la orden de la misma ciudad del dia diez y ocho de octubre entre al escribano Juan Bautista de Larburu el mismo dia de la fecha del papel y consiguiientemente no ubo capacidad para mover inquietud ni disturbio alguno<sup>CIX</sup>”.

Ikusten dugunez, Donostiako gizartearen bakearentzat pertsonaia arriskutsu agertetik urrun, Oizak ordenaren aldeko norbanako gisa aurkezten du bere burua, lege-prozesu guztiari jarraitu ziona bere ebazpena aurkezteko, inor bere alde jartzeko inolako asmorik gabe,

5. Idem, Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Consejo de Castilla. Salas de Justicia. Sala de Justicia. Causas Civiles y Criminales. LEG. 6138/EXP. 2.



udal ordenantzen funtzionamendua hobetzeko asmo bakarrez.

Haren karrera politikoa bertan behera geratu zela bazirudien ere, 1743an, atxiloalditik 6 urtera, hiriko zinpeko nagusi hautatu zuten. Beraz, funtzio publikotik urruntzea mugatua izan zen, eta badirudi handik denboraldi batera urak bere bidera etorri zirela. Kontuan hartu behar da maiz herri eta hiriak bandotan zatituta egoten zirela, eta indarren korrelazioa erraz alda zitekeela, une jakin batean karguak era batera edo bestera banatzearen arabera, auzibide bati ekinez arerioen kontra, edo aitzitik, laguntza emanez norberaren aldeko.

Juan Domingo Oizak auzitegiekin izan zituen harremanak ez ziren hor amaitu. Esana dugu aurrez zer dirutza handia eman behar zen auzitara jotzeko, batez ere lehen instantziatik (alkatetzatik) gora joz gero (Korrejimendura, Valladolideko Errege kantzelaritzara, Gaztelako Kontseilura). Horren adibide da 1741eko gertaera bat, Oiza tartean harrapatu zuena, Juan Domingok Jose Antonio Mendinueta presbitero eta Donostiako biztanlearen kontra jarritako auzian Juan Lorenzo Logroño madrildarrak egindako aurkezpenaren ondorioz<sup>(6)</sup>.

Oizak Juan Lorenzo Logroño delakoa ahaldundu zuen Jose Antonio Mendinuetak zor zizkion 500 erreale zilarrezko kobratzeko, epaiketan irabazi ondoren. Dirutza hori jasotzeko, zenbait instantzian baimendu beharra zegoen Juan Lorenzo Logroño hori; Elizaren Auzitegian, kasu, hara jo baitzuen Mendinuetak epaiaren kontra.

Kontua da ezen, Logroñoak adierazi zuenez, bere poltsikotik aurreratu eta jarri behar izan zuela dirua auzibideari segida emateko, eta Juan Domingo Oizari bidali ziola gastuen kontua; hura, ordea, ordezkariaren faktura ikusirik, kexatu egin zen zenbatekoa gehiegizkoa zela jota. Halatan, Oizak 534 erreale ordaindu behar izan zizkion Juan Lorentzori, eta beste 700 agentziak


zirela-eta; alegia, auzitan zegoen zorra baino handiagoa zen defentsagatik ordaindu behar izan zuen dirutza.

Juan Domingo Oizarekin zerikusia duen beste datu bat —zehazkiago, haren seme Jose Antonioren zegokiona— da familiak Amerikarekiko merkataritzan izan zuen parte

hartzea, hain zuzen ere Donostiaren eta Caracas eta Habanaren arteko harremanak bere onenean zeuden garaian.

Hala, 1695ean Donostiako kontsuletxea sortu ondoren, Gipuzkoak (eta Donostiak) merkataritzarako zituen aukerak izugarri biderkatu ziren,

| Kontularitza idazketa eta ondasun-banaketa, parte hartzen du Joseph de Ierobi, Donostiako bizilaguna, 1742. Iturria: AHPG-GPHA



6. AGG-GAO, CO EEJ 1739.

pattalaldi baten ondoren. Nabaria da hori hurrengo urteetan hiriaren merkataritzak ageri izan zuen gordian. Hurrengo mendean, probintziak ikusi zuen nola sortu ziren bi merkataritzakonpainia abantailatsu: Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra eta Habanako Errege Merkataritza Konpainia. Lehenak Donostian zuen egoitza nagusia; bigarrenak, Antilla Handian kokaturik, faktoria bat izan zuen Donostian sorreratik. Eta instituzioek baino gehiago, gizakiek bizi arazten dituzte halako konpainiak, eta, alde horretatik, donostiarren protagonismoa, Kotsuletxearen bidetik, nabarmena izan zen.

Habanako Konpainiarekin, faktoria bat izan baitzuen Donostian, Jose Antonio Oizak izan zituen haremanak, Juan Domingoren semeak. Haren xedeez ideia bat izan dezagun, negozio hauek zituen: Kuban tabakoa erostea, metropolira ekartzea Sevillako Errege Fabrikak hornitzeko, eta Kubako uhartea jeneroz hornitzea. Horren truke, Gipuzkoan egindako burdin lanak eramaten ziren Habanako ontzioletara. Konpainia haren eta Donostiaren arteko harreman estuon parte handi bat konpainiaren lehen zuzendari Martin Arostegiri eta beste pertsonaia batzuei zor zaie. Donostiarekiko loturaren soka horretan, donostiar asko sartu ziren eta parte hartu zuten negozio horietan.

Trafiko horri esker, Donostian kokatutako merkataritza batzuek egundoko kapitalak metatu zituzten. Beste batzuek ez zuten lortu hainbesteko aberastasunik, baina parte hartu zuten jarduera haietan. Halaxe Jose Antonio Oiza, Juan Domingoren eta haren emazte Teresa Jauregiren semea, Santo Domingo itsasontziko ikuskatzaile eta eskribaua, Habanan hila 1747an, hiri hartan negozioetan ari zelarik Manuel iradi koinatuarekin batera <sup>(7)</sup>.

Jose Antonio ezkongai eta seme-alabarik gabe hil zen. Testamentua 1747ko urrian eman zuen, Habanan,

eta Bernardo Etxegoien izendatu zuen betearazle.

Testamentuan emandako xedapenen artean, bere koinatu iradirekin kontuak garbitzea da bat, Habanako Errege Konpainiarekiko negoziogatik, eta soberakina gurasoei bidaltzea. Horretarako, ondasunen inbentarioa egin zen:

- 20 pare galtzerdi frantses
- Jakak, kasakak eta azpiko galtzak
- Bitxi frantsesak
- Holandako alkandorak
- Bi giltzarrapo
- Bi zapata pare eta hiru musuzapi
- Harizko galtzerdi batzuk
- Hiru pare galtzerdi
- Artilezko pieza batzuk
- Zilarrezko ezpata mehe bat
- Kutxak
- 4.000 jostorraz
- Orratz burudunak
- Tintontzi bat
- Zenbait zorro txanponekin
- Oherako arropak

Oiza Habanako Baskongadoen kale esanguratsuan bizi zen, Garateren alargunaren ostatuan.

Juan Domingo Oiza eta Teresa Jauregirentzat, semearen guraso eta oinordeko ziren aldetik, 4.500 erreal geratu ziren. Diru horren kobraketa, ordea, atzeratu egin zen. Bernardo Etxegoien bera ahaldundu arren, Juan Domingo hil zenean, 1750ean, artean diru hori kobratu gabe zeuden; Sevillako Kontratazio Etxeko Hildakoen Kutxak 1761a arte atxiki izan zuen dirua.

Oiza hil ondoren, emazteari tokatu zitzaion semeari zor zitzaiona kobratzea eta, era berean, senarraren nahia betetzea. Besteak beste, San Telmoko komentuko elizan hilobiratua izatea.



| Zeta arrosezko soinekoa. XVIII. mendea. STM. Argazkia: Beltz argazki ekoizpenak

7. Archivo General de Indias. CONTRATACION,5612,N.2.



1710ean ezkondurik, seme-alaba hauek izan zituzten: Jose Antonio hori, Maria Josefa, Manuel de Iradirekin ezkondua, Juan Nikolas Bizente eta Maria Teresa Oiza Jauregi.

Beste semeari buruz, Juan Nikolas Bizenteri buruz, ezin kontatu gabe utzi pare bat pasadizo non haren hitza ezbaian geratu baitzen. Lehena 1755ean gertatu zen. Urte hartan, Maria Josefa Erasunek, zeina Hernanin jaio eta Donostian bizi baitzen, bere aldeko gutun betearazle bat lortu zuen Juan Nikolas Bizente Oizaren kontra estupro salaketapean jarritako auzian <sup>(8)</sup>.

Bere eskabidean, Maria Josefa Erasunek deskribatzen du nola “estando esta sirviendo en casa de María Josefa de Oiza, hermana del acusado, la solicito de amores con promesa y fee y palabra de casamiento<sup>CX</sup>, eta ondorioz emakumea haurdun geratu zela, eta laidoztatua hark hitza bete ez zuenean. Gogora dezagun ohorea eta ondra, izena eta ospea norberaren eta familiaren ondasun garrantzitsuak zirela, jokoan jartzen zirela negoziak egitean, ezkontzan edo enplegua eskatzean. Beraz, kontu hori ez zen huskeria.

Eskariaren ondorioz, Juan Nikolas Bizente preso sartzeko agindu zen, eta aitortpena eginarazi zitzaion. Maria Josefa Oizaren ohorearen kontrako egintzez salatu zuten. Hala, zera egotzen zaio, Martinsanteneko baserrira joan izana hiru arratsaldetan, San Bartolomeko galtzadan zegoen gurasoen etxaldera, eta han Maria Josefa Irastonerekin askaria hartzea, eta hura lagunengandik banatzen zenean “etxeko salan bakarrik egon nahi zutela esan eta, arratsaldea hala pasatu ondoren, lurrezko ateraino etortzen zirela elkarrekin eta han agur esaten ziotela elkarri”. Orobat, salatzen zaio ezen “Hiri honetako plaza nagusia azkenekoz argituta egon zen gauean, aitorleak dantzara atera zituela esandako emakumeak, eta berekin eramane zituela, eta hirurak eta Joseph Antonio Toledo pasteleria batera joan

zirela, eta han askaria hartu ondoren irten eta Maria Josepha Erasuni lagundu ziotela gaueko hamarretan etxeraino”. Hori guztia onartu zuen Oizak, baina biribilki ukatu zuen bakarrik egon zela Maria Josefarekin.

Orobat, hark esana zuen bakarrik geratzen zirela Maria Josefa Oizaren etxean hura senarrarekin irteten zenean, eta 9 urteko iloba jartzen zutela leihoan gaztiga zitzan haiek itzultzen baziren, eta hori ere ukatu egiten du Juan Nikolas Bizentek. Hori guztiagatik, aitortzen du ezinezkoa dela emakumea beragandik haurdun geratzea, harekin harreman “argi eta garbia” izan zuelako.

Nolanahi ere, Oizaren jaiarak bere hartan iraun zuen. Ia 20 urte geroago (1776), berriro salatu zuten familia-arazo bat zela eta. Martin Baroi eta haren emazte Maria Ursula Urreztik 668 erreal erreklamatu zizkieten, bien alaba Ana Mariari eman zizkieten elikagaiengatik Juan Nikolas Bizentek haurdun utzi ondoren, eta semea izan zuelako Oizak ezkontzeko hitza eman eta gero <sup>(9)</sup>.

Ez zuen bete ezkon-hitzik, baina onartu zuen haurraren aita zela. Hala ere, uko egin zion dirurik ordaintzeari, esanez erreklamaturako errealkak gehiegi zirela, eta gainera salatzaile bien alaba zela, etxean zerbitzatzen zuela eta, beraz, ordaindu egin behar ziotela lan horregatik.

Familia-tradizioari jarraituz, agiriak daude haren merkataritza-tratuei buruz, baina ezin da behar bezala egiaztatu zertan jardun zuen. Hauxe besterik ez: 1776an, Juan Nikolas Bizente Oizak zilarrezko bitxi batzuk gordailutu behar izan zituela Juan Bautista Duple donostiarraren biltegian erositako kakaoaren berme <sup>(10)</sup>. Aipamen soila, merkataritza-konpainien jarduerak gainbehera egin zuen garaikoa, zeinean haren familiak —eta beharbada baita berak ere— parte hartu baitzuen.

8. AGG-GAO, CO UCI 1395.

9. Idem, CO LCI 3704.

10. Idem, UCI 2098.

# Juan Antonio de Zabaleta

XVIII. m

Azterketa hau amaitzeko, iruzkin labur bat Juan Antonio Zabaleta kapitainaz. Hitzak adierazten duenez, haren familia itsasoari lotuta egon zen, eta berari buruz atera ahal izan ditugun aipamen urriek horixe egiaztatzen dute.

Jaiotza-datarik edo haren filiazioari buruzko beste daturik ezagutzen ez dugunez, eta XVII. mendearen hondarretik aurrera zenbait lagun daudenez izen-deitura horiek dituztenak, oso zaila da zehaztea nortaz ari garen.

Baina kapitain tituluari esker, XVIII. mendearen bigarren erdian koka daiteke norbanako jakin baten jarduna.

Hain zuzen ere Juan Antonio Zabaletarena, zeina Nuestra Señora de Aranzazu itsasontziko maisu izan baitzen 1766an, ontzi horrek Puerto Ricora egindako bidaian. Bide hori egin ohi zuen Caracasko Errege Konpainiak; urtebete geroago, Habanako portura iritsi zen San Rafael itsasontziko maisu gisa <sup>(1)</sup>.

Konpainia hori desagertzea beste merkataritza-konpainia bat sortzearekin lotuta dago, Filipinetako Errege Konpainia sortzearekin, zeinak jaso baitzituen Caracaskoaren kapitala, akzioak eta akziodunak, hark Caracasen zituen abantailak desagertu zirenean. Baina Filipinetako Konpainiak ez zuen arrakasta handirik izan, eta garaiko gorabeheren mende ibili zen, halako moldez non lau hamarraldiko bizitza baizik ez baitzuen izan (XVIII. mendearen hondarretik XIX.aren hasierara).



1. Archivo General de Indias, CONTRATACION 2484.

Filipinetako Errege Konpainiaren xedea uharte haietako nekazaritza eta industria garatzea zen, produktuen sartu-irtenen eskubideak ordaintzetik salbuetsita geratzearen bidez. Konpainia berri hark libre izan zuen hegoaldeko itsasoko merkataritza guztia, eta gainera eskusiban zuen Filipinekikoa. Filipinetako Konpainiako itsasontziek egiten zuten bideak bira ematen zion munduari; izan ere, Cadizetik abiatu, Atlantikoa zeharkatu, Hornos lurmuturretik pasatu eta Perun eskala egin, eta Ozeano Barea zeharkatzen zuten Ekialdeko Indietaraino, eta Manilatik Cadizera itzultzen ziren Esperantza Oneko lurmuturretik barrena.

Konpainia horren lehen bidaia “Nuestra Señora de los Placeres” itsasontziak egin zuen, Juan Antonio Zabaleta kapitaina buru zuela; Cadiztik abiatu zen 1785eko urriaren 1ean, eta Hornos lurmuturreko bidetik, non enbata gaitzak aurkitu baitzituen, itsaso zakarra eta kontrako haizeak zituela; 40 egun behar izan zituen hura pasatzeko, eta kroskoan eta aparailuan galerarik edo matxurarik izan gabe lortu zuen hori, bai komandanteak eta bai pilotuek itsas trebezia handia frogatu zutelarik.

Callaoko portuan egin zuen geldialdia, nora osasuntsu eta indarrez iritsi baitzen eskifaia, gizon bakar bat galduta, uretara erori baitzen maniobra bat egitean. Hornizioak ugariak izan ziren, eta egoerarik onenean iraun zuten bidaian zehar, eta sobera ere izan ziren, Manilaraino jarraituko zuen bigarren bidaiarako arrantxoaren parte handi bat osatzeraino”<sup>(2)</sup>.

Ikusten dugunez, aipamen gutxi, baina Juan Antonio Zabaleta kapitaina letra larriz kokatzen dutenak —batez ere bigarrena— Amerikako merkataritza-konpainien historian.



| Filipinetako Errege Konpainiaren ekintza. XVIII. mendea. STM



| Guillermo Delisle. Carte d'Amérique. XVIII. mendea. STM. Argazkia: Maier Etxebeste

2. Julio MOLINA: *Cádiz y el Vapor-Correo de Filipinas "Carlos de Eizaguirre", 1904-1917. Historia de un naufragio*. Cádiz: Universidad, Servicio de Publicaciones, 2002.

## BERNARDO DE AGUIRRE KAPITAINA

Donostia, 1600 ing.-1674

I. (14. orrialdea)  
"bizileku duen etxe nagusia, Poiuelo kalean".

II. (14. orrialdea)  
"harrapakin baten hondarrean geratutakoak, mila erreal balio dutenak gutxi gorabehera".

III. (14. orrialdea)  
"Bernardo Agirre delakoari dion amoreagatik ( ) aitaren eta amaren aldeko seniparteak eta Katalina Perez Agirre arreba zenduaren oinordetzatik zetorkiokeena".

IV. (14. orrialdea)  
"Señor Juan Bautista izeneko itsasontziaren balioa".

V. (15. orrialdea)  
"eta horretarako hartu dizkio interes baten truke Juan Lopez Hianzia Irigoiene, berak 300 dukateko arriskua hartuta".

VI. (15. orrialdea)  
"267 larru ondu, Bilbon 5.800 erreal kostatakoak zilar-dirutan".

VII. (15. orrialdea)  
"gerra aurrean interespean emandako beste horrenbesteren truke, Ternuarako itsasontziak berme jarrita".

VIII. (16. orrialdea)  
"Fernando delakoak baimena ematen dien pertsonak, eta etxea errentan hartu duenak ezin du eskurik sartu ez galarazi halakorik, oholzak ez baitu zerikusirik errentarenkin".

IX. (17. orrialdea)  
"hura eta etxean zegoen beste guztia bertan biziko zirenei zerbitzu egiteko".

X. (17. orrialdea)  
"kastorezko kapela bat" eskaini ziotela, "eta berak erantzun zuela ez zuela hartu nahi, etxea zorpean ez uzteko".

XI. (17. orrialdea)  
"bortxaz eta indarrez bere oholztatarako etxe haren aurrean jarria zuen zurajea".

XII. (17. orrialdea)  
"Madarikatua izan bedi jango duzun janaria, edango duzun edaria eta amastuko duzun airea, madarikatua zapalduko duzun lurra eta lo egingo duzun ohea, ez beza euririk egin zeure gauzen gainean ezpada sua eta harria, ez dezazula fruiturik jaso zure lanengatik, ez laguntzarik beharrean zarenean, auzitara jotzen duzun guztietan kondena zaitzazela, madarikazioak harrapa zaitzala eta aingeru santuek anpara ez zaitzazela, eta lurak bizirik irents zaitzala infernura jaits zaitezzen gorputzez eta arimaz, eta ez bedi geratu zure oroitzapenik gizonean artean...".

XIII. (19. orrialdea)  
"onartu beharra zegoela zezenketa egunetan urtero etxe haren aurrean oholza egitea Bernardo Agirre kapitainak, Ignazio Anbulodik eta beste kideek, eta laguntzaileak uko egin ziola horri, esanez haiek oholza hura erabiltzeak kalte handia zekarkiola berari, eta laguntzaileak hala jokatu beharra zeukala; beraz, ez zizkiola eman hirurogeita bi dukatak, eta aurrez ordainduak zizkion berrogeita lau dukatak itzultzeko eskatu ziola".

XIV. (19. orrialdea)  
"1. Ea badakiten Manuel Carenzo delakoak aurten plaza horretan Santiago eta San Roke egunez egin diren bi zezenketetan ezin izan duela oholtzarik jarri errentan hartuta dauzkan eta bizileku dituen etxeen aurrealdean, etxe horien parean egindako hesi batengatik, halako moldez non ez baitzegoen oholtzarik egiterik eta hesiak ikusmira kentzen baitziren etxeei.

2. Eta ea badakiten ezen, Manuel Carenzok hesi horren trabarik izan ez balu, oholza jarriko zuela etxeen aurrealdean, beste auzoek bezala, eta hogeita hamabost lagun baino gehiago sartuko zirela han, eta bakoitzak erreal zortziko bat ordainduko ziola Manuel Carnezori jaiak ikusteko postuagatik eta berak emango zien freskagarri xume batengatik, eta hartara Santiago eta San Rokeko bi zezenketetako bakoitzean oholza hark emango zizkiola Manueli, eskaini ohi den freskagarriaren kostua kenduta, hamazazpi erreal eta erdi garbi, eta bien artean hogeita hamabost erreal zortziko.

3. Eta ea badakiten jai haietan etxeetako leihoetan hogeita bi lagun egon zirela, eta bakoitzak erreal zortziko bat ordaindu ziola Carenzo jaunari leihoetan lekua izateagatik eta hark emandako askariengatik, eta esandako hesiak halakorik egitea galarazi ez ezik argia eta leihoetako bista kentzen zituenez, jaietan hamabi lagun baino ez zirela egon San Rokeetan, eta horregatik galdu zuela Carenzok askaria".

4. Eta ea badakiten ezen, oholza delakoak erosotasuna kendu ez balio leihoari, Manuel Carenzok ez zituela alokatuko etxeak hain prezio altuan".

XV. (19. orrialdea)  
"zezen berriak izan ditugu, eta Alonso Ildiakaiz burtzi bat zeramala irten zen plazara eta zorte handia izan zuen, burtzia sartu zion zezenari, eta hark ez zuen ezta hankarik ere mugitu".

XVI. (19. orrialdea)  
"itzulketa batzuk egiteko enkargua, bi diru-partida baititut itzultzeko, 7.500 erreal zilarrezko gutxi gorabehera bien artean, eta sekretu osoz ordain daitezela nire ondasunetatik".

XVII. (20. orrialdea)  
"kontuak, tratuak eta kontratazioak".

XVIII. (20. orrialdea)  
"ezkontzaldian egindako zorragatik".

XIX. (20. orrialdea)  
"Juaniz Ona Gazteluzarrekin badituz beste kontu batzuk Nuestra Señora de la Caridad itsasontziaren tresneria eta prestakuntzari dagozkionak, laurden batean hartzen baituz parte, eta bat etorri behar du itsasontzi horrek Ternuara baleak arrantzatzerara eta hiltzera egindako azken bidaian harrapatutako laurdenarekin, eta nire emazteak eta Luis Beroizek zehaztu ditzatela kontuak eta kobra dezatela".

XX. (20. orrialdea)  
"Martin Belokiren alargunak ere —ez dut haren izena gogoan, hila da dagoeneko—, zeina Ziburun bizi baitzen, Frantziako erresuman, badaki zenbait konturen berri, zeinak senar-emazteak hilak direnez kitatu gabe geratu baitziren; etxean badira haiei buruzko paper batzuk, eta mandatuak ematen diet nire emazte Isabeli eta Luis Beroizi, kontuak garbitu ditzatela haien seme-alaba eta oinordekoekin".

XXI. (21. orrialdea)  
"200 dukat zilarrezko, 1667. urte joanean zoriak ekarri zizkidanak Nuestra Señora de la Caridad itsasontzian bilaketa-bidaiarako (hau da, galdutako itsasontziak eta itsasoan jitoan geratutako materialak naufragioen edo etsaiarekin topo egin ondoren) dudan partearen aldetik; itsasontzi hori, hiri honetara bueltako bidaian zetorrela, hiri honetako bertako harrapari batzuek hartu zuten preso, eta Santanderrera eramanean, non hiru hilabetez egon baitzen, eta preso hartze horregatik gastu eta kalte handiak etorri ziren".

XXII. (21. orrialdea)  
"zeina aurten Ternuara joan baita, baleak arrantzatu eta akabatzerara".

XXIII. (21. orrialdea)  
"(Isabel Illaradirekiko) ezkontzaldian eskuratua; Sokoan dago, eta aurki egingo du gorago aipatu dugun itsasontziak egingo duen bidaia bera".

XXIV. (21. orrialdea)  
"denok batera bizi baikara".

XXV. (21. orrialdea)  
"ez zaizkio zor, aita haien gozamenen baitzen, eta halaxe izan baitzen hil artean; Pedro hau ez zen irten haren guraso-agintetik, eta hark hazi eta elikatu egin zuen hamasei urtean, harik eta Cadizera bidali zuen arte, lagunduko zion norbaitengana, fortuna bila zezan, nola egin baitute hiri honetako eta Gipuzkoako probintziako beste leku batzuetako guraso zuzenen beste hainbat semeek, lurak urri baitira hemen; eta hura bidali zuenean, ehun eta berrogeita hamar dukat baino gehiago eman zizkion jantzi eta arropa zuritan. Eta Hiri honetara itzuli eta gero, sei urtean elikatu zuen, eta urte bakoitzean gastatuko zuen eta gastatu zuen Pedro honekin ehun eta berrogeita hamar dukat baino gehiago. Eta hizpidera ekarri beharrak dira hogeita sei mila erreal zilarrezko eta gehiago, eta mila eta berrehun kobrezko, zenbait alditan bidali baitzizkion aitak eta ordaindu baitzituzen semearen enplegetarako".

XXXVI. (22. orrialdea)

“egia da, halaber, kobratu behar zaizkiola aitak emandako elikagaiak, eta ez da berdin gertatzen nire alaben kasuan, ez baitzuten beste bizibiderik, jakina baita zein desberdina den seme bati eskola eta elikagaiak ematea eta alaba batzuei, zeinek gurasoak zerbitzatzan baitituzte lan eginez eta zenbait zerbitzariren beharra kenduz”.

XXXVII. (22. orrialdea)

“ea dakiten Bernardo Agirre kapitainak Ordena Militarreko jantzi bat lortu zuela Felipe laugarrena Erregearengandik, egindako zerbitzu ugariaren ordain, eta mesede horri gaur egun lau mila dukat kobrezkoren balioa eman ohi zaio”.

XXXVIII. (22. orrialdea)

“Bernardo Agirre kapitainari esaten Erregeri egindako zerbitzuengatik eta haien ordainetan, mila seihun eta hirurogeigarren urtean, gure jaun Felipe laugarrena Erregea Hiri honetan zelarik, Espainiako Koroaren eta Frantziaren artean egin ziren errege-emate eta bake-egiteen karietara, jantzi militar bat ematearen mesedea egin ziola”.

XXXIX. (22. orrialdea)

“ea badakiten kapitainak Pedro Agirre semea hamar urteko zela fortuna bila bidali zuela Juan Martinez San Pau eta Labaien etxera, zeina Cadizen bizi eta Nafarroako Erresumakoa baitzen, negozio-gizona, eta haren zerbitzuan denboraldi batez egon ondoren Sevillara joan zela, non Esteban Zulaika Aialderen etxean izan baitzuen babes, Hiri honetan jaioa eta bertan bizi izandakoa, eta don Pedrok izandako gaixotasun batetik sendatu ondoren, Martin Aizartek, Juan Martinez San Pauren suhiak, Cadizko hirira eraman zuela.

Eta gero Don Pedrok bi bidaia egin zituela Indietara, zama bere kontura hartuta eta aitak bidali eta ordaindutako letra eta ordainketa-aginduen bitartez erositak. Eta Don Pedro Cadizera joan zenetik hiri honetara aitaren etxera itzuli zen arte hamalau urte pasatu zirela”.

XXX. (22. orrialdea)

“Eta ea badakiten Bernardo Agirre kapitainak euren dirutza ertaina zela eta bakailao- eta balea-arrantzan erabiltzeari eta zituen mandatu batzuei esker bildu zuela.

Eta haren mailako Hiri honetako eta Probintziako beste leku batzuetako eta Erresuma honetako beste alde batzuetako ere bidali izan dituzte eta bidaltzen dituzte seme legezkoak Sevilla, Cadiz eta Erresuma hauetako eta Indietako beste leku batzuetara, negozio-gizonei zerbitzeko; eta, hartara, dirua eta ondasunak biltzen dituzte, eta askok egin dute hori, eta itzuli dira beren lurrera aberastasunez ondo hornituak”.

XXXI. (23. orrialdea)

“merkataritzako mandatuak izan baitzituen, Frantziako Erresumako negozio-gizonek bake-garaian emandakoak”.

XXXII. (23. orrialdea)

“eta handik urte batzuetara aberastuta, ohorez eta orain duten prestakuntzarekin itzuli dira”.

XXXIII. (23. orrialdea)

“Berorrek sinadura beti berdin egiteko gomendatu didanez, halaxe egingo dut, baina ez dut Pedro Agirre baizik jarriko, Martinez hori abizena dela ematen baitu, izena Pedro Martinez badut ere; horrenbestez, hobe da Pedro Agirre sina dezadan, osaba Don Martinek beti aholkatu ohi zidan-eta hala egiteko”.

XXXIV. (23. orrialdea)

“Duela lau postaldi idatzi nion Don Frantzisko Zarraga Teograni, berorrek egiten dion mesedean fidatutik, eskatuz eman ziezazkidala Indietako kontseilari batzuen gutun batzuk Sevillako hiriko Kontsulatuko kontsularentzat, galeoien lehen ontzidian abiatuko den itsasontziren bateko eskribautzaren mesedea eskatuz, eta orain artean ez dit erantzun, eta horretan ez da batere zailtasunik, edonori egiten baitiote mesede hori, eta gero bi errealdaintzen dira tona bakoitzeko. Halakorik gauzatuko balitz, ez litzateke txarra bide horretatik nabigatzen hastea, beste batetik ezin izan dut-eta, bidaiaren itzulia tona bakoitzeko zilarrezko dukat bat ordaintzen baitio itsasontziaren jabeak eskribauari. Bostehun zortzikoak erabilia daude dagoeneko zenbait partetan”.

XXXV. (23. orrialdea)

“Berorren gutuna jaso dut, joan den hilaren hogeita zortzikoak, non berorren osasunaren eta etxeko guztienaren berri ematen baitit, eta poztu nau hori jakiteak.

Berorrek esaten didana, gaur egun Indietako bidean den arrisku handiaz eta txakur ingeles horrek duen botere handiaz, halaxe da, izan, baina hala eta guztiz ere galeoiek joan beharra dute, nahiz eta hainbeste galera izan, bestela dena galduko bailitzateke betiko, Andaluzia osoa baitago horren mende, eta badira hiru urte baino gehiago ez dela ezer handirik abiatzen Portabelora.

Gaur egun, Medinako dukeak agindu bat du armada eta galeoiek prestatzen hasteko, eta urriaren erdialderako denak batera abiatuko omen dira, hirurogei itsasontzi, holarrekek Bere Maiestateari saldu dizkiotenak.

Eta iruditzen zait hor ontziratuko naizela, hemen bizitza osoan miserian geratu gabe, ezen ez baitzait besterik falta ezpada larru gorrian geratzea. Eta horrela, erregutzen diot Berorri lehenbailehen agintzeko edo Martin Berrotan jaunari esateko agindua eman dezan, eta ez dadila gertatu, lehen bezala, Sebastian Casadevante jaunak izaten dituenak bezalako zailtasunik (...). Ezen halatan nago non ez bainaiz etxetik irteera ausartzen, ez dudalako gizon zintzo batek izan behar duen itxura, eta orain inoiz baino beharrezkoagoa da hori, itsasontziratu egin behar baitut.

Pozten naiz arreba ondo erditu delako, eta Luis Berreiz jauna, nire anaia, oso pozik egongo delako, oso estimatzen baitut, eta uste dut beste batzuetan baino gusturago egongo dela jaino berria gizonetako izanik”.

XXXVI. (25. orrialdea)

“eta guztia oso lur on eta emankorretan, oso alde onean dagoelako”.

XXXVII. (27. orrialdea)

“eta eskola eman ziola Berastegin eta beste toki batzuetan, eta Lizarrara bidali zuela”.

XXXVIII. (27. orrialdea)

“Hiru mila eta seihun eta hirurogeita bost errealean beste memoriala, ikusi eta irakurri zuenean, ez zuen sinatu nahi izan (Juan Perez Agirrek), esanez gomendatu ziotela ez zezan inolako konturik sinatu, eta Martin Errazkinen esan zion ez zutela arrazoirik halako aholkua eman zituenek, eta, han ageri ziren partidak eman baitzizkion eta jaso baitzituen, argitu zezala argitu beharrekoa beste memorialean bezala eta sina zezala, eta horretarako, sinatuko zuelakoan, kontulariak memorial hartan azken bi lerroak idatzi zituela, eta Joan Perez Agirrek ez zuen sinatu nahi izan, nahiz eta partidak ikusi eta irakurri ondoren esan egiazkoak zirela eta ez zituela ukatzen, baina aurrez esan bezala ez zituela sinatu nahi, eta berriz ere Martin Errazkinen esan zion Joan Perez Agirrerik halako aholkuak ematen zizkietenak bihotz-galdu batzuk zirela eta ez zutela kontzientziarik, aholku txarrak ematen baitzizkieten, egia kontrakoak, eta begiratu zezala memoriala eta ikus zezala partidaz partida ea egiazkoak ziren eta jasoak zituen ala ez, eta hori ikusi ondoren sina zezala, eta Joan Perez Agirrek, berriz ere, lekukoaren eta gorago aipatu diren besteen aurrean, erantzun zion Martin Errazkini berak ez zuela ukatzen memorialeko kontua, egia baitzen, baina aholkatu zituenagatik ez zuela sinatuko”.

XXXIX. (28. orrialdea)

“izango dira bospasei urte, aitortzaile hau Sevillako hirira abiatzeko zelarik bere itsasontzian, egun batean Katalina Heredia alargunarekin egin zuen topo hiri honetan, eta pertsona ezaguna zuenez, eskatu zion aitortzaile honi onar ziezazkiola berrogeita hamar dukat, eta aitortzaile honek erantzun zion ez zuela horren beharrik, baina hartuko zizkiola hogeita hamar dukat”.

XL. (28. orrialdea)

“ofizio hartarako pertsona trebea eta egokia”.

XLI. (29. orrialdea)

“proposatu eta esan zuen ezen, hiriak agindu zionaren berri emanik, hots, Berorri eskatzeko Josuren Lagundiaren erlijioaren defentsaren alde ager zezan ezen Josuren Lagundi horretako gurasoak ez zirela bazter-nahasleak ez eskandalariak, ez zituztela liskarrak sortzen eta ez zirela gobernu-arazoetan sartzen, eta San Inazio Loiolakoa Berorren seme eta aitalehenaren semeak izanik, horrenbestez zegoen betebeharrenean alde atera behar zuela, egindako guztia kontakizun okerra zelako. Eta berresteko hori zela zehazki eta benetan agindutakoa, hiriak egindak txostena aurkeztu zuen”.

XLII. (31. orrialdea)

"ez da gizon zorpeta, eta orain bi urte, gutxi gorabehera, hirurehun dukateko zentsu bat itzuli zuen, zor baitzuen, eta aldi berean beste bat erosi, beste hirurehun dukatekoa".

XLIII. (31. orrialdea)

"gehienetan jendea hain eskas dabil diruz gaur egun, non are oso aberatsak direla-eta errespetatzen diren gizonek ere ia ez baitute zertaz bizi".

XLIV. (32. orrialdea)

"Aitortzaile hau eta Migel Lajust hiri honetako atean zeudelarik, irten zen bertatik Juan Perez Agirre zaldi gainean, eta Lajust ikusi eta deitu egin zion, eta biek hitz egin zuten aitortzaile honen aurrean, esanez dirua eman behar ziola, eta Juan Perez Agirrek hogeita hamar dobloi eman zizkion, eta eztabaidan hasi ziren, ea zorra kitatzeko hogeita bederatzia ala hogeita zortzi marabedi ordaindu behar ziren dobloi bakoitzeko".

XLV. (32. orrialdea)

"merkatari asko hartu zituela etxean, ingelesak eta beste nazio batzuetakoak, tratu handikoak, batzuk beren zerbitzariekin, eta jaten eta bizitzeko behar zuten guztia eman ziela, eta arropa garbia, beste batzuek ere etxean halakoak ostatu hartuta izaten dituztenean ematen duten bezala".

XLVI. (33. orrialdea)

"merkatari ingeles, frantses eta flandriar asko izan zituen etxean, bai eta gaztelau batzuk ere, eta Ingalaterrako erresumako enbaxadoreren bat edo beste zaldun atzeritarren bat etortzen zenean, haren etxean hartzen zuten ostatu".

XLVII. (33. orrialdea)

"harremanetan sartu eta maitasuna adierazi ziola Magdalena Otororari".

XLVIII. (33. orrialdea)

"ezkontzaz kanpoko seme bati zegokion bezala ondasunen kopuruaren arabera, zeina hogeita hamar mila dukat baino gehiagokoa baitzen".

XLIX. (33. orrialdea)

"oso ondo osatuta bizi da".

L. (33. orrialdea)

"Joan Perez Agirrekin adiskidantzan eta harremanetan hasirik, gizonak emakumea hartu eta donteilaren onestasan, garbitasun eta ospea kendu zizkion".

LI. (33. orrialdea)

"Joan Perez Agirre hura utzi eta beste batekin ezkondu zenean, entzun zuela esaten ezen Magdalena Otorora bestea bezain merezi zela Joan Perezaren emazte legezkoa izateko, nahiz eta bestearen dirutzarik ez eduki, eta egia hutsa zela ezen Joan Perez Agirrek ezkontzeko hitza eman ziolako egin ziola men eta galdu zuela lorea".

LII. (33. orrialdea)

"oso ondo hornitua zela edertasunez, zuhurtziaz eta beste alde on batzuek, eta duin zela kapitainaren emazte legezko izateko, lortu ez bazuen ere".

## JOAN DE ARBELAIZ

Donostia, circa 1560-1629

LIII. (35. orrialdea)

"Martin Perez Arbelaz jaun txit gorena"ren semea, "espainiarra, Donostiako hirikoa, Gipuzkoako probintziakoa, une honetan Milanen bizi dena, ate Berrian eta Milango Santo Eusebioaren parrokan, eta kutxazain etorria miliziako eta armadako gauzetarako kutxazain aritzeko Pero Lopez Orduña jaunaren aurrean, zeina Estatu honetako errege maiestate katolikoaren diruzain nagusia baita".

LIV. (35. orrialdea)

"senide izateak, norberarentzako onura bat ez ezik, familiarentzako sari bereizgarri bat esan nahi du. Horregatik, gero eta gehiago, Inkisizioko kideen senideen enpleguak klan jakin batzuetara joango ziren, eta azkenean oinordekotzan emango ziren ia. Oso ohikoa zen Ofizio Santuko kideen senideek botere politikoa zuten leinuekin lotura izatea".

LV. (36. orrialdea)

"eta Arbelaitz doktorearen ordezkari, berak egiten baitu komisario-lana, Gure Jainko Jaunaren zerbitzari eta Errepublika honen bake eta lasaitasunari gehien komeni zaiona erabaki dezatela".

LVI. (36. orrialdea)

"Ofizio Santuko Komisarioak, zeina hiri honetan bizi baita, eskubideengatik ezarri beharreko lau erreale jasotzen ditu kaira irtiten den itsasontzi bakoitzetik; eta bidaiariengatik, zortzi erreale; eta merkatari bakoitzaren merkantziengatik, itsasontzi batean merkatari asko etorri arren, esandako lau errealek merkatari bikoitzagandik, bisita egiteagatik, halakorik jaso ezin duen arren".

LVII. (36. orrialdea)

"sorginek, deabruarekin duten itunean, itsasoan eta munduaren beste puntan gertatzen denaren berri ematen dute: Batzuetan benetan eta besteetan gezurretan, ikusi izan baita nola kontatu izan duten biharamunean handik ehun lekoara eta bostehun lekoara gertatutakoa, eta egia gertatzea, eta ezin izan da aurkitu nor izan zen lehena esaten, eta hori omen da sorgin egiteko eragilea, Indietara eta Ternua eta Norvegiara joandako senar eta semeen berri jakin nahia, bai eta haragikeria-ekintzak ere, eta deabruak ematen dien saria, eta janariak, nahiz eta txarrak eta gozogabeak izan, eta sekta gaiztoan sartu eta sinesmena aitortu ondoren, ezinezko iruditzen zaie handik irtetea, eta ez dute ez konbertitu, ez egia esan nahi izaten, eta zalantzan bezala esaten dute ezin dutela sinetsi sorginik badenik.

Joan Arbelaz Donostiako hiriko Ofizio Santuko idazkariak esan zuen sorgintzat emandako emakume batek lapiko bat erakutsi ziola ukendu batekin, deabruak emana hartaz gantzutu eta airean hegan joateko, eta gordeta zeukala Logroñoako inkisidoreei bidaltzeko, eta seinale bat omen zeukan ahoan, azazkalean zuen puntzoi zorrotz batez egina. Frantsesek diote seinale hori ezkerreko izterrean xakituta ikusi dutela, eta orratz bat sartu gero ere ez omen dute minik sentitzen".

LVIII. (36. orrialdea)

"ez zuela nahi gari hura soldaduei saltzerik, nahiago zuela galdu eta usteldu zedin, soldaduei eman baino".



LIX. (37. orrialdea)

“Bere kontzientziak eta Berorren Maiestatearen zerbitzuan duen betebeharrak agintzen ziotenari erantzunez, zerbitzu asko eta handiak egin zizkiola bisita hartan, Don Luis Gaztelakoa bisitariak dakien bezala, zeinari dei bailiezaiok Berorren Maiestateak informazioa jasotzeko. Horregatik, eta bisita hori dela-eta izan dituen lan eta gastu handiegatik, eta orain oso larri baitabil Donostian izurrite-kalte nabariak daudelako, bertakoa baita eta bertan bizi baita, eskatzen dio Berorren Maiestateari ezen, zerbitzu horien eta urte askoan egin dituen eta orain ere egiten dituen zerbitzu horien ordainetan eta saritzeko, portu hartan Ofizio Santuko Idazkari kargua ere baduelarik, arren agindu dezala zigor hori kentzeko, zeren eta, Berorren Maiestatearen erukitasun erregekoan fidatua den honek bere errua aitortu izan ez balu, ez baitzen jakingo ezer, eta beraz, bidezko da kontuan har dadin eta eskatzen duen mesedea egin dakion”.

LX. (38. orrialdea)

“Frantziara eta Flandriara Juan Austriakoa jaunari eta Italiako gobernadore eta enbaxadorei garrantzi handiko abisuak bidaltzeko, gutun-trukea baitzuen zaldun frantses askorekin, eta bera askotan joana baitzen (Frantziara) eta diru asko eman baitzuen haiei (halakoen ordainik jaso gabe eta horregatik inolako mesederik jaso gabe)”.

LXI. (38. orrialdea)

“zeinen aginduz joan izan baita Frantziara bere burua arrisku handian jarritz eta hartu ditu beti etxean Erresuma hartatik etorri izan diren espioiak, agerian gera ez zitezen, eta horretan bere ondasunen parte handi bat gastatu duela”.

LXII. (38. orrialdea)

“Juan Velazquez jaunak egiten dituen Ingalaterra, Flandria eta Frantziako inteligentzia-zerbitzuez, gastu berdina eginez espioi eta beste pertsona batzuekin”.

LXIII. (39. orrialdea)

“balaustreak eta beste gauza batzuk ekarraziti zituela eliza hartako pulpitu nagusia egiteko”.

LXIV. (40. orrialdea)

“adiskidantza eta senidetazuna”.

LXV. (40. orrialdea)

“Nola Kondestablea iritsi zen lehenik hiri hartara (Parisa) eta segitu zuen gero Fontainebleaura, han baitzen Errege txit kristaua, eta hark dotorezia handiz eman zion ostatu, eta berak eta Erreginak balaku eta adiskidantza- eta atsegin-erakuspen bereziak egin dizkiote, eta Erregeak Jaun Txit Gorenarekin eta haren mahaiko zaldunekin bazkaldu zuen, eta ehizara eta gustuko beste ariketa batzuetara eraman zuen. Eta hala hiruzpalau egun emanik, bideari lotu zitzaion berriro (...).  
Eta bi gauza egin ditu, haren talentutik espero izateko modukoak: Frantzian, dagoeneko eman dute baimena alea ateratzeko, eta zain daude hemendik ere adostutakoa noiz berretsiko, eta uste dut hori ere emana dela merkataritzari hasiera emateko, zeina denentzat izan baita ona”.

LXVI. (41. orrialdea)

“neurritz eta bigun jokatzu horretan, hain jende zorigabeko eta etsiaarekin, haien atsegin eta poz handirako, pobreei ezer kendu gabe”.

LXVII. (41. orrialdea)

“ez diet ezer kendu nahi izan, ez halakorik egin, gauza berria delko eta zoritxareki horien ko”.

LXVIII. (42. orrialdea)

“Donostiako herriak dio ezen, Ternuako badia handiko balearen arrantza oso ahituta dagoelako eta zenbait aieruren arabera eta beste arrazoi batzuk direla medio Greilant deitzen dioten lurralde batean, Norvegia baino iparralderago, arrantza hori ugariagoa zelakoan, Donostiako hiriko itsasontzi bat abiatu zela iaz, 1612ko apirilaren azken aldera, lurralde haren bila. Eta hilabete eskasean hango kostalde batera iritsi zela, Moskoviako alderik mendebaldekoena iparretik ukitzen, eta 78 gradu eta erdiko ipar latituden, eta balea ugari aurkitu zituela han, eta arrantzan jarduteko erosotasuna (eta halaxe egin zuela).  
Eta Donostiako hirira itzuli zela hain beterik non bertako eta Probintziako beste alde batzuetako herritar asko hasi zirela itsasketa eta arrantza hori egiten, eta horretarako prestatu zituztela hamabi itsasontzi txiki, eta sakabanatuta abiatu zirela kostalde hartara 1613ko apirilean.

Eta hara iritsirik, aurkitu zituztela bertan gerrako bi galeoi ingeles, 300 tonatik gorakoak, oso ondo armaturik, eta itsasontzi iritsi ahala haiek hartu eta dena harrapatu eta lapurtu zituela, ez bakarrik arrantzarako tresnak eta aparailuak, baita ardoa eta urdaia eta eramandako beste gauzak batzuk ere, eta lehenago iritsi eta arrantzan hasita zeudenei egina zuten koipea eta bilduak zituzten balea-bizarrak kendu zizkieten. Eta berentzat arrantzatera eta lan egitera behartu zituzten, bizia galdu nahi ez bazuten.

Eta hura guztia edo gehiENA Bilbora ekarri zuten saltzera, eta beste bortxa eta laido asko egin zizkieten, esanez hura guztia Ingalaterrako erregearen patente batez egiten zutela, halaxe jokatzeko agintzen baitzuen.

Eta nahiz eta erakutsi itsasontzi haiek Nafarroako erregeordeak emanda zeramaten Berorren Maiestatearena, esanez ez zeukatela egiterik eginak zituzten gauzetarik batere Berorren Maiestatearen eta haien erregearen artean bakea izanik, eta haien itsasontziak Espainiako portuetan hain ondo hartuak izanik, eta batez ere lurralde eta kostalde hura ez izanik Ingalaterrako Koroarena (ez baitzen), ez zuten batere jaramonik egin eta berdin jarraitu zuten, laidoak eta lapurretak eginez, eta itsasontzi haiek ezin izan ziren defendatu, banaka hartu zituztelako eta gerra egitera joan ez zirelako, eta ez zutelako halakorik gerta zitekeelako batere susmorik.

Eta halaxe itzuli ziren Donostiara, lapurtuta eta erabat galduta, eta Berorren Maiestateari adierazitako honek guztiak ontziak prestatu zituztenei ekarritako kaltea zenbatsirik, 200.000 errealetik gorakoa dela, eta horri gaineratu behar zaizkiola Berorren Maiestateari eta Berorren koroari egin zaion desohorea eta iraina, eta arrantza eroso eta probetxugarri hori eteteak eta amaizteak ekarriko lukeen kalte handia, horixe baita orain Probintziako itsasontzi

eta marinelek izan dezaketen zeregin nagusia, eta beste marinela batzuk sor baitaitezke Berorren Mesedeak behar ditzanerako”.

LXIX. (42. orrialdea)

“honen bitartez, Juan Perez Zubiaurrek, Juan Iturgoien jaun lizentziatu Erregek Gipuzkoako probintziako korrejidore izendatuaren ordezkariak, esan zuen agintzen zuela eta agindu zuen eman zekiola Juan Arbelaitzi, Klara Arbelaitz emailearen oinordeko zuzena zenez, aipaturiko emakumeak Klara Arbelaitz ilobari Juan Lopez Yeribar lehen senarrarekin ezkontzeko emandako ondasunen jabetza, ilobak hil zenean ez zuelako seme-alabarik utzi. Ondasun horiek Klara Arbelaitzen eta haren izebaren arteko ezkonsari-kontratuan adierazita daudenak dira”.

LXX. (44. orrialdea)

“nire gorputza Andre Dona Mariaren elizan hilobiratu izan dadila, Mari Migel Santiago ene amazteak eta biok Antiguako Andre Mariaren aldairearen aurrean dugun hilobian, eta pinuzko hilkutxa berri, arin, ondo bikoiztu eta josi batean”.

LXXI. (44. orrialdea)

“batxiller horrek bere anai-arrebetako beste edozeinek baino sari gehiago jaso ditu nigandik, zazpi urteko ikasketak eman nizkion, arte eta kanonetako batxiller egin nuen arte, eta ondo asko probestu zuen hori berak, eta ikasle bikaina izan zen letra onetan eta iritzietan, eta modu onean dago orain, eta bost benefizioren onuradun da”.

LXXII. (44. orrialdea)

“Bere ahaleginaz eta lanaz baliatuta edota bestela fortuna onaz baliatuta ondasunak beretu dituztenek hainbeste kontu eta enretasun jartzen badute gauza berriak eta eraikin dotoreak egitean beren memoria betikotzeko, ondasunetarik maiozkoak sortuz eta lotuz eta imajina eta pentsa litezkeen karga eta baldintzarik estuenetan saiatuz haiek betierekoteko eta kontserbatzeko. Hainbatenez garrantzi handiagokoa da oinetxeen betierekoteko eta kontserbatzea, han baitute jatorria eta etorkia hain zaldun ospetsu eta heroiko, beren egintzengatik bertutetsu eta nobleek”.

“fundazioa zela-eta, auzi liskartsu bat izan zen Kontseiluan, eta epai betearazle batez baimena eman zen fundaz zedin eta hori betetzeko, Berorren Maiestatearen 1622ko urtarrileko 22ko zedulaz, zeina Estatu Kontseiluak eman baitzuen (...) hiri hartara joan zedin lau etxerentzako lekua seinaltzera komeni zen tokian, eta ez zezan gotorlekua kaltetu, eta halaxe egin zuen. Eta hiru etxe eta orube huts bat seinaltatu zituen, eta berehala beretu. Eta guztiak 102 oinek aurrealdea eta 87ko sakonera ditu. Eta garai hartaz geroztik, etxe haietako bateko sotoa erabili eta erabiltzen da eliza gisa, eta pobrezia eta neke handiak pasatu dituzte. Eta orain ez da hala erabiltzen ez delako hartarako leku egokia”.

LXXIII. (45. orrialdea)

“eta badira beste bi buzoak aterata”.

LXXIV. (45. orrialdea)

“orain Berorren Mesedearen gutunari erantzungo diot esanez ezen, Bella Estefaniatik eta Capitanatik hogei pieza baino gehiago egonik ateratzeko, eta zaharberituko direlako esperantzaz, nola zaharberituko baitira bietatik orain artean ateratako 23ak, arren eskatzen diot Berorren Mesedeari begiratu dezala ea mesederako izango den buzoa lanetik botatzea, Berorren Mesedeak gutunean esaten didan bezala, alde batera utzirik ezen, naufragioaren erreskatearen tratua egin nuenean, hitz eman niola Agramongoari (kosta hartako amiralordeari, zeinari baitzegokion Amiralordetzako legez ateratako eta ateratzeko zeuden guztien heren bat) Berorren Mesedearen izenean ezen Berorren Mesedeak buzoa zuela bere kontura harik eta atera arte. Eta segurantz horrekin onartu zuen Berorren Mesedearen errege ogasunerako egin nuen tratua abantailatsua; izan ere, haren herenagatik eta Berorren partea probintzia honetara ekartzearen kostua eta aparailu guztiengatik ez zaio ordaindu berrogeita hamar erreale kintalea baizik. Buzoa lanetik botako bagenu, adostutakoa haustea izateaz gainera, ni hara joan nadinean eskaini niona betetzera behar nintzake. Edo buzoa Donibane Lohizunera ezkondu zenez, guk lanetik botatzen badugu hark hango herritar eta haren gobernupeko biztanletzat hartu eta bere kontura enplega lezake, guk kaleratu dugun ez gero”.

LXXV. (45. orrialdea)

“Egunotan kalentura handiarekin ibili naiz, eta halako minez odoluzkiengatik eta gorputz osoan eta batez ere halako tristuraz melankolia beltzagatik non guztiek behartu bainaute odola ateratzera, eta kalentura joan zait eta orain libragarria hartuko dugu. Jainkoak lagun diezadala eta ken diezazkidalala minok. Mugalde honetan nituen lagun guztiak hilak dira, eta bakar bat geratzen zait bizirik, oso txiroa den bat, Zubiburun, eta, esan ohi den bezala, ogi-koskor batzuez mantendu dut, badira eta hiru urte Ynojosako markesak ehun erreale eman zizkiola, eta harezkero eta zenbati urte lehenagotik ere ez du izan Erregearen beste laguntzarik. Mandatua bidali dit esanez jakin duela Erroxelan hamalau itsasontzi ari direla prestatzen presa handiz, eta nora doazen eta zer jende daramaten jakin orduko esango didala. Eta nahiz eta berehala idatzi Nafarroako erregeordeari, Berorren Mesedeari ere jakinarazi nahi izan diot, Kontseiluak ikus dezan ezen, ondorezik eta ezinduta banago ere, ez bainaiz gauza ezertarako, ez dudala ahaztu nire ardura. Pentsatzen egon naiz ez ote diren holandarek lagun egiteko Bredako setioan, edota, gure kostak itsas armadarik gabe ikusirik, han zerbait saiatzeko”.

LXXVI. (46. orrialdea)

“fundazioa zela-eta, auzi liskartsu bat izan zen Kontseiluan, eta epai betearezle batez baimena eman zen funda zedin eta hori betetzeko, Berorren Maiestatearen 1622ko urtarrileko 22ko zedulaz, zeina Estatu Kontseiluak eman baitzuen (...) hiri hartara joan zedin lau etxerentzako lekua

seinalatzera komeni zen tokian, eta ez zezan gotorlekua kaltetu, eta halaxe egin zuen. Eta hiru etxe eta orube huts bat seinalatu zituen, eta berehala beretu. Eta guztiak 102 oineko aurrealdea eta 87ko sakonera ditu. Eta garai hartaz geroztik, etxe haietako bateko sotoa erabili eta erabiltzen da eliza gisa, eta pobrezia eta neke handiak pasatu dituzte. Eta orain ez da hala erabiltzen ez delako hartarako leku egokia”.

LXXVII. (46. orrialdea)

“Konpainiari zion gorrotoagatik, premtutan sartu zuen (etxea), testamentuan xedatuz ezen inoiz ez zitezela saldu Elkargo horri hartarako, eta haren oinordekoek dute baratze hori, eta ez ditu hamabi dukat emango”.

LXXVIII. (46. orrialdea)

“eta kalte handia zetorkiola handik arimen onari, hura itsas portua baita, eta hainbat naziotako tratulariek jo ohi dute hara, eta tartean heretiko askok”.

LXXIX. (47. orrialdea)

“Ni, Juan Arbelaitz, Donostiako Hiri Noble eta Leial honetan jaioa eta bertan bizi naizena, Logroñoko Inkisizioko Ofizio Santuko idazkaria hiri honetan... Bai eta baratze handi batzuk ere, nire etxe nagusiek atzealdean dituztenak, eta etxe horiek behinola Luis Agirrerrenak eta Joan Lopez Agirre lizentziatuarenak eta Pedro Guarnizorenak izan ziren... eta denak daude bat eginik, eta nire gurasoek eta nire anaia batxiller horrek eta nik harrizko hormaz hesitu genituen, baina nire aitak diru gutxi gastatu zuen eraikin horretan (muga San Telmoraino iristen da) (...) agindu zuen baratze horiek, zeinak pasabide baitira esan bezala, eta nireak, gainean duten etxolarekin, beti zutik egon daitezela, eta ez haietan ez haien zati batean egin dadila etxerik edo elizarik edo kofradiaren leku santurik edo ospitalerik edo beste ezekin eraikinik, ez bada nire etxe nagusien apaingarri eta erabilgarri izateko (...). Eta gertatuko balitz, nola edo halako bideren batetik, nire oinordekoek modurik ez izatea etxe haiek guztiak edo parte bat ez saltzeko edo trukatzeko edo aldatzeko edo besterentzeko, eta Jesusen Konpainiako aitak etxe nagusi horiez jabetzen ahalegintzen badira diru bat ordainduz jabetza bidegabe baten izenean, zeina Castilloko Kondeak, Nafarroako erregeordeak, eman omen zien nire ezjakinean eta nire baiezkerik gabe, isil-gordean, eta halakorik ez luke egingo ezta munduan den epailerik bidegabeenak ere, eta horrenbestez auzia jartzen diet hari eta hura engainatu zutenei berorren maiestate jainkozkoaren aurrean, berorren auzitegi jainkozkoak epai dezan erabaki anker hori, nire zahartzaroan hain kalte handia egin didana eta hainbeste nahigabe ekarri diena nire gorputz-arimei, hauxe da nire borondatea, eta honelaxe agintzen eta nahi dut: ezen, inoiz Konpainiako aitek eta munduan den beste edonork orduan nire oinordeko litzatekeenari edo liratekeenari etxe nagusi horiek edo haiei itsatsita dagoen etxe esan bezala nire anaia batxillerragandik jaso nuena kenduko balizkiete, ondo azter ditzatela

nire baratze guztiak, eta San Telmoko komentuko Santo Domingoko ordenako aitek haien balioa berrehun dukat kendurik ordaintzen badute, batxillerragandik jasotako dukat horiek kentzen baitizkiet nire arimaren alde oitoz egin dezaten, haienak eta haien komentuarrenak izan daitezela, eta ez zuzenean nahiz zeharka Konpainiako aitenak.

(...) Eta adierazten dut inola ere ez dela nire borondatea eta ez dudala nahi Konpainiako aita horiek nire etxe horien edo nire beste edozein ondasunen oinordeko izan daitezten, orain artean egin didatena bortxakeria handia baita eta izan baita, hiri honetan ditudan etxe ondratu eta antzinakokak kendu nahi izatea, haien jabeak bertako herritar prestu eta antzinako izanik (...) eta nire anai-arrebek eta hiri honetako herritar guztiek ondo begiratu eta erne ibil daitezela, eta hotz-hotzean ikus dezatela zer egin duten haiek, eta beste noizbait gauza bera egin liezaiketela beste norbaiti, askok baitakite ordena horrek horixe egin duela sartu den beste leku batzuetan, eta Jainkoak ez du nahi inori bortxarik egin dakion, ez ondasunak kendu eta etxetik atera dezaten bere borondataren kontra, limosnak bihotzetik irten behar baitu”.

LXXX. (47. orrialdea)

“Jesusen Konpainiako elizgizonak sartu ziren hara (hirira) inolako zuzkidurarik izan gabe beren ordenako elkargo bat sortzera errege-babeseke gure eliza eta leku batean (...) elizgizon haiek fundazio hura indarkeria handiz gauzatu nahi izan baitzuten, armaturik sartu baitziren, soldadu-eskoadra bat eraman baitzuten, beren eskopeta eta munizioekin, beren jabetza babesteko eta defendatzeko, gerrarako moduan, eta horretarako kaia jenderik gabe utzita (...) eta eskandalu eta iskanbila handiak sorrarazi zirela eliza hura defendatzen zuten herritarrek elizgizon haien alde egin zuten soldaduekin izandako gorabehera eta liskarregatik”.

LXXXI. (47. orrialdea)

“etsaigo-erakustaldi handiak egiten zituzten bi alderditan, bizitza galtzeko arriskuan jartzera, halaxe ikusi baitzen batzuek eta besteek elkarren kontra izandako liskar eta borroketan, 1623ko uztailean lehenean”.

## JOSEPH DE CARRION

Donostia, circa 1690-1740

LXXXII. (50. orrialdea)  
"errege-eskribaua eta hiri honetako biztanlea, pertsona gaitua, trebea eta gauza dena, eskribautza hori lortzeko behar diren alderdi eta tasunen jabe".

LXXXIII. (50. orrialdea)  
"eta udal gobernuko jaun horiek, errege-mezua jasorik eta beren buruen gainean jarri beren errege eta jaun naturalaren gutun gisa, mundu honetan ez baita haren gainekorik eta behar den gurtzaz eta begirunez egiten baitiote men, hura betez Jose Carrionen zina jaso zuten".

LXXXIV. (51. orrialdea)  
"gaixorik zegoelarik, eta anaia Domingo Gonzalez apaiz agurgarriak lagun egiten ziola, honek eskribautza publikoaren ukoaz egindako galderaren bati erantzun zion esanez 'nori ba, nire ilobari ez bada', hots, Juan Bautista Zabala eskribautza bereko eskribauaren eta Maria Bernarda Carrion emaztearen seme bidezkoari; alegia, Joseph Carrionen arrebaren semeari. Eta esandako anaia Domingo apaizak Juan Bautista Zavalari Joseph Carrion delakoa gaixorik zegoen gela hartara deiturik, eta hark bere nahia adierazi zuelarik, erantzun zion Juan Baputista Zavalak bere seme Joseph Domingo ez zela adinez gai onartua izateko. Eta ondoren esan zuen Joseph Carrionek, nire ilobak ezin badu, izan bedi berorren mesedea hura adinez osatu arte. Eta gero, urte hartako urtarrilaren hogeita zazpian, iruditu zitzaion Joseph Carrioni ezen Don Martin Olazaga jaunak —Ofizio Santuko komisarioa eta hiri honetako biztanlea, eta beraren konfiantza osokoa— paper zuri bat sina zezakeela, eta hala egin zuen paper-plegu baten lehen orrialdean, eskribautza publikoaren ukoa xedatzeko. Eta Santiago Etxeberria hiri honetako eskribau publikoak, zeinak jaso baitzuen paper zuri sinatua, Joseph Carrion —aurtego otsailaren lehenean—, eskribautza publikoaren ukoa jarri zion bere eskuetan zuen paper zuri sinatuari, eta ez hau ez ukoan aipatzen diren lekuko instrumentaletako bakar bat ere, ez zeuden han.

LXXXV. (51. orrialdea)  
"Nik, Martin Olazaga jaunak, Josefa Antonia Goikoetxearen osaba, zirriborro bat paratu nuen, zeinean Juan Bautista Larrondo obligatzen baita, Joseph Carrionen seme legezko Blas Lorenzo Carrion eskribau izateko adinera iritsitakoan eta aitak zeraman eskribautza publikoan jardun nahi balu, obligatzen baita, esan bezala, eskribautzari uko egitera aipaturiko beste horren alde".

LXXXVI. (54. orrialdea)  
"itsasontzi hori oso ondo prestatua eta eskifatua egonik, Pasaiaiko portu hartatik abiatu zen Hiri honetako ibai eta portura, eta nabigazioan ekaitz eta enbata asko izan zituen, eta haizeteak eta beste hainbat gauza, eta itsasontzi hartan kargatutako salgaia salbatzearen eta ez zedin gal, itzuli beharra izan zuten, eta itzulera hartan kostu eta gastu handiak egin ziren, itsasontzia mastak moztuta sartu baitzen portuan".

## JUAN MARTÍNEZ DE GUARNIZO

Donostia, circa 1590-1642

LXXXVII. (54. orrialdea)  
"ederra baita".

LXXXVIII. (55. orrialdea)  
"Berorren Mesedearen fabore eta babes bila hurbiltzen natzaio Mdalena andre berorren etxekonekoarekin batera, artileen eskribautzaren lanbide horretan lagundu diezagun nik zerbitzu egiten nion bezala".

LXXXIX. (55. orrialdea)  
"egokierarik izan ez zuelako".

XC. (56. orrialdea)  
"urte batzuk kapitain eta distirako pertsona".

XCII. (56. orrialdea)  
"soldatapeko letratuak Donostiako hiriak idatzi duenez eman zuten iritzia, alegia Juan Martinez Guarnizo kapitainak, Santiagoko ordenako Zalduna, ez duela sartu nahi hiri hartan eratzten ari diren Konpainian, eta eskatu diola San Telmoko aita prioreari ezen, Santiagoko ordenak dituen abantailen gordetzaille gisa, ekin diezaiola Donostiako alkateen kontra, armadan sartzeko agindu baitiote".

XCIII. (56. orrialdea)  
"zeren eta Juan Idiakez jauna bera ere, Ordenen Kontseiluko Lehendakari izana, konpainia bateko kide izan baitzen".

XCIV. (57. orrialdea)  
"Gaur, aldun nagusi jaunak proposatu du, eta esan zuen atzo, hilabete honetako (uztaileko) hamazazpian, gau erdian, iskanbila eta eskandalu handiak izan dira hiri honetan; dirudienez, Sebastian Arriola jaunak, hiri honetako alkatea izanik, preso hartu zuen soldadu bat, orain hurrengoko gau batean, errondan zebilela, men egin ez ziolako eta aurre egin ziolako. Eta Bizente Monsuri kanpo-maisua, kartzela honetako gobernadorea, suzko armak zeramatzen soldadu askoz lagunduta etorririk, armaz eta indarrez eta bortxaz, kartzelako atekak hautsi eta soldadu atxilotua atera eta libre utzi zuen, eta ondorioz herri guztia asaldatu zen, eta jende asko etorri; Sebastian Arriola jaunak zuhurtzia eta zentzu handiz iskanbila hartara bildutako herritarrak lasaitu ez balitu, heriotzak eta beste zoritxar batzuk ere gertatuko ziren han; hura guztia soldaduek egiten duten erronda sartu berriagatik sortu zen, zeregin hori beti egin eta egiten baitu hiri honetako justizia arruntak, hainbeste kontu eta begiramenez non bake osoan eta lasai eduki baitu errepublika, esandako neurri berri hori ezarri den arte. Eta hortik sortu dira hiri honetako justizia arruntaren eta herritarren eta militarren arteko talkak, oraingo honetan ikusi den bezala. Eta kausa honek probintzia hau ukitzen duenez errege-jurisdikzioa eta alkate arruntaren defentsa gaidintzeari dagokionez, bere abantaila eta ordenantzen arabera, Jaun horren esku jartzan du kontu hau dela-eta zer egin erabaki dezan".

XCIV. (57. orrialdea)  
"Aldundi horretako kide gehienak baitira. Eta bilduta, Aldun Nagusiak proposatu zuen eta esan ezen, Probintzia, bertako herriak, herrixkak eta herritarrak hain hondatuta, min hartuta eta jota egonik oraingo gerra hauek direla-eta, eta batez ere bere gain hartu behar izan dituzten infanteria eta zalduneriako jendearen loiamenduak direla-eta, berriz ere irlandarren infanteria-konpainia batzuk sartu direla Probintzia honetan bertan ostatu hartzeko.

Eta horrez gainera, jakin izan da Probintzia honetan sarta nahi direla Dragoen zalditeriako beste konpainia batzuk bertan loiamendu hartzeko, eta, hala gertatzen bada, lurralde hau guztia sakailatu eta suntsituko da azkenik, iraganean ikusi den bezala, batez ere Dragoiak etorri izan direnean, irain egin eta tratu txarrak eman baitituzte Probintzia honetan bertan loiamendua hartuta egon diren aldia. Eta horren berri ematen zaio Jaun horri, berorren ohiko arduraz kalte horien erremedioa eman dezan".

## BERNARDA DE GOICOECHEA

XVIII. mendearen erdialdean

XCV. (58. orrialdea)  
"Domenja Tranparen biloba".

XCVI. (58. orrialdea)  
"zerk zapuztu zaitu".

XCVII. (58. orrialdea)  
"zuek graduren bat gehiago izango duzue zeruan".

XCVIII. (58. orrialdea)  
"ezetz, kristau guztiak izan behar zutela gradu bera, denak zirelako Adan eta Ebaren seme-alaba".

XCIX. (58. orrialdea)  
"eta zuek Klara Iguolasen bilobak".

C. (58. orrialdea)  
"ea maldizioren bat egin ote zuten, eta erantzun ziotela ez gaude berorrek".

CI. (59. orrialdea)  
"gu ez gara zuek bezalakoak, beti ezorduetan gauez, oso haragi berokoak zarete zuek, eta kalitate eskasekoak".

CII. (59. orrialdea)  
"gu ez gara ibili gauez; zuek bai, ordea, batetik bestera, zer suma, maiseoan"; horri, Bernarda delakoak erantzun zion aitortzaileari, "zer nahi diguzue? Gure anaien bila gauez ibili bagara, zuengatik izan da, zuengatik eta zuek bezalako beste batzuengatik, haragi bero eta txarrekoak zarete-eta, zuengandik bereizteko", eta Bernardak gehitu zuen berak eta beretarrek ez zutela sartu nahi aitortzailearen odolean, eta hori esatean tu egin eta ostikoz jo zuen lurra; eta aitortzaileak esan zuen "erne jende ondradua, aparta hemendik, kiratsa dago-eta", eta erantsi zuen aitortzaileak ezen bere odolekoen artean sartuta zegoela Bernardaren anaia, eta hark erantzun zion hori egia zela, baina bere eta beretarren borondatearen kontra, eta esan zuen, halaber, "gu ez gara apaizkumez erditu".

CIII. (59. orrialdea)  
"haien txalupak, salatuen sorginkeriaz-edo, ezin zuela arrantzarik harrapatu, eta hortik egonezin halako bat sortu zen hiruren artean".

CIV. (61. orrialdea)  
"eserleku batek hartzen duen tokia hartzen baitu".

CV. (61. orrialdea)  
"ordenantzei erreparo batzuk".

## JOAN DOMINGO DE OIZA

circa 1680-1750

CVI. (64. orrialdea)  
"1. Komenigarriagoa baita lehen egiten zen bezala egitea, hiri honetako errentak zein bere aldetik jartzea urtero enkantean, halaxe egin dadin aurreikusten baitute ordenantzek; hala abantaila gehiago ekarriko liokete hiriari, urtero enkantean jartzen direnen esperientziak frogatzen duenez, hiriak horretarako ez bailuke hirurehun dukat ordaindu beharrik, administratzaileari urtero ematen zaizkion bezala hark kontuak eman beharrik gabe, eta argiagoak eta justifikatuagoak izango dira erremateengatik; izan ere, hiriak erabat segurtatzen du bakoitzaren zenbatekoa, dela errematzailearen bidez, dela, hark huts eginez gero, haren fidatzailearen bidez.  
2. Eta esaten da azken kontuetan administratzaileak bederlatzi mila pisu ematen dizkiola hiriari, eta kontuan hartzekoa da nondik ateratzen den hain emaitza ustekabeko hori, oso komenigarria baita bai hiriak bai hiritarrek kargu har diezaioten nondik ateratzen den haren kontuetan emate hori, hartara denen ulerpidean jar dadin.  
3. Eta Bildosola jaunak gure aldunari Gortean lagun egiteko duen boterearen bitartez, oso komenigarria da eta izango da kontu eman dezan zer dirutza eman zaizkion eta zenbat hartu duen zentsuz hiriaren kontra, hiriak eta hiritarrek uler dezaten espero den zurbidearekin, eta hori ikusita denek erabaki dezaten komeni dena.  
4. Bestalde, kontuan har dadila hiri honek Berorren Mesedeari 1577an eskatutako ordenantza, hiri honen ordezkari Madrileko Gortera eta Valladolideko hirira negoziotan joango lirakeen pertsona ordaindu behar zaizkien soldatei buruz, bai eta Pedro Juan Alfaro jaunak, Gaztelako Errege Kontseilu Gorenako fiskalak, hiri honi 1734ko apirilaren 14an idatzitako gutuna ere, eta aintzat har ditzatela bai hiriak eta bai hiritarrek eguneko soldata erabakitzerakoan, eta hori ez dadila ebatzi udalbatza bildu gabe, jakinean gaudelako zer ordaindu duen hiriak Gorte hartara bere alduna bidalita Errenteriako herriarekin duen auziaren segimendua egitera.  
5. Eta komeni da jakitea nora joan diren Caracasko Konpainiako zuzendari jaunek egin dituzten bi banaketengatik hiriari dagozkion mila eta seihun pesoak, ehuneko hogeikoa banaketa bakoitza, eta hiriari hamasei akzio dagozkiolarik.  
6. Bestalde, oso komenigarria litzateke denek uler dezaten urtero plaza berriko administratzaile jaunek egiten duten bezala, hiritar berezi batzuei jakinaraztea hiri honen egoera bere kargu eta datarekin, hartara jakin dadin zer kapital duen hiriak.  
7. Bestalde, ordenantzak aurreikusten duenez, ez dakiola utz ezekin zaldi zamagaberi hirian sartzen, hartara hiri hobeto horni dadin, eta horretarako hiriak behar den agindua eman diezaiola atezainari, beti halaxe eta salbuespenik gabe bete dezan.  
8. Eta ordenantzak daudenez jaiegunetan karga eta deskargarik izan ez dadin, eta bai baitrudu mandazainak zain egoten direla jaieguna noiz etorriko kargak egiteko eta irteteko hartarako libre direla jakinik Santisimoko aldunari lau txakur handi emanda eta hala desordena asko sorraraziz, hori erremediatzeko komeni

da ohitura txar hori ken dadin, eta gorde eta bete dadin, eta ez dadin izan halako karga eta deskargarik, salbu eta beharizan jakinen bat bada.

9. Eta jaiegunetan itxita egon daitezela denda eta etxola guztiak, salbu eta orain artean bezala botikari eta kandelagile eta uzten zaien beste batzuenak, eta hartarako hiriak dagozkien zigorrak ezar ditzala.

10. 1544ko eta 1577ko ordenantzetako zortzigarren kapituluak baitio alkate edo alkateorde hautatua litzatekeen edonork, ofizial mekanikoa balitz, alkate, zinpeko edo zinegotzi hautatua litzatekeen urte hartan ez dezala ofizio horretan jardun, eta udalbatzako beste kideengan arrazoi eta zintzotasun bera baita, agintzen dugu ezen ofizial mekaniko edo pisu, neurri edo kana edo txurroko pertsona edo merkatariren bat alkate, alkateorde edo zinpeko zein zinegotzi hautatua balitz, edo zinegotzi baten ordeko jarriko balute alkate edo alktaeorde edo zinpeko edo zinegotzi den denboran, ezin dezala jardun kana, pisu edo neurri edo txurroko ofizio mekaniko horietan, ez eta beste ezekin ofizio bilau edo makurretan ere.

Eta kapitulu hori batzuetan bestela interpretatu nahi izan baita, hots, zinpekoei beren dendak itxi ditzatela aginduz, hori ez da hala ulertu behar hiri honetako ofizio ohoretsuetan hautatuen familiei dagokienez, are gutxiago haien dendak ixtea, eta horretan ez dadila ezer berririk izan, ezpada orain arte egin dena, baina hautatu horrek ez dezala jardun ordenantzek galarazten dituzten ofizio horietan bere agintaldian.

11. Eta ordenantzek agintzen dutenez hiriak adostu edo erabakitako guztiagatik zinpekoak edo haren eskribauak sindikuari adostutakoaren hainbesteko bat eman diezaiola, eta sindikua hain kalitate onekoa denez eta ez dadin ibil hiriak erabakitzeko duenari zelata eginez, oso komenigarria da eta litzateke sindiku hori batzartzea hiri batzartzen den guztietan, eta bere botua izatea bildutako guztiak bezala, herritar berezien batzarrak hala erabakia duenez, eta horretarako Berorren Maiestateari eska dakiola berrespena.

12. Bestalde, hemendik aurrera hiriak ez diezaiola ez pentsiorik ez ordenantzarik ez eta beste ezer eska Gaztelako Errege Kontseilu Gorenari aurrez eta beste ezer baino lehen herritar bereziei horren larritasuna eta premia jakinarazi gabe, eta hori egin ondoren zer komeni den erabaki dadila.

13. Bestalde, hiriak ez dezala auzirik izan ezekin arrazoiengatik inorekin, beste ezer baino lehen herritarrei hartarako leudekeen zio bidezkoak aurkeztu gabe, eta denek erabaki dezatela beharrezko dena.

14. Bestalde, hiriak ez dezala bidal alduniki inora bere izenean bere arazoetarako, eta are gutxiago ezekin soldata erabakitze, Gaztelako Errege Kontseilu Gorenako jaunen aipatu gutunak erabakitzen duen bezala.

15. Bestalde, hiriari eskaini dation guztia ez dadila erabaki batzorde partikular baten bidez, baizik eta udalbatzan, eta hori salbuespenik gabe bete dadila.

16. Bestalde, ezen, hemendik aurrera, hala datozen hauteskundeetan nola urtero egin behar direnetan, eskribauak irakur dezala nortzuk

geratzen diren libre ..., hartara ez dadin gertatu inor kanpoan geratzea, geratu den bezala, dela oharkabean dela berariaz, eta izapide horren bidez herritar bakoitzak jakingo du zertarako den.

17. Bestalde, hemendik aurrera hiriak ez dezala dirurik har zentsuz herritarrei jakinarazi gabe, eta hartarako dagoen beharra adieraziz.

18. Bestalde, 1630eko ordenantza gorde eta bete dadila salbuespenik gabe etxeak eraiki eta berreraikitzeari buruz, hartara bidea motz dakien iazko 1735eko ordenantza modernoaren bitartez gerta daitezkeen auziei, esperientziak frogatu duenez, azken hori herritarrei jakinarazi gabe ebatzi baitu hiriak.

19°. Bestalde, 1641eko ordenantza gorde dadila, hauteskondeez eta norberak izan behar dituen milakoez, bai boz aktiborako bai pasiborako, horixe baita mesedegarriena eta egokia bertakoentzat, eta horretan ez dadila uler 1735. urteko beste ordenantza batek xedatzen duena, herritarrei jakinarazi gabe xedatu baituzen hiriak.

20. Izan ere, ordenantzen azken bilduma ikusirik, zuzenduz eta gehituz eta kenduz denboraren harian Jainkoaren eta hiriaren zerbitzurako behar zuten guztietan, errege-erreginek berretsirik Baezako hirian 1489ko uztailaren 7an eta hurrengoetan, bete eta gorde egin behar dira oso-osorik salbuespenik gabe, bai eta hiri honek dituen abantaila eta beste ... guztietan nahiz eta ez diren aipatzen bilduman, salbu eta 1735. urtekoak.

Donostia, mila zazpiehun eta hogeita hamazazpiko azaroaren hamaseian. Juan Domingo Oiza”.

CVII. (64. orrialdea)

“Ikusirik Donostiako hiriaren gutun erantsia eta Juan Domingo Hoyza jaunak jarritako eragozpenen papera hiriak bere araubide eta gobernurako adostutako ordenantzen bildumari buruz, paper hori iraingarria izanik hiriarentzat eta gobernuaren ardura dutenentzat, eta gehiegikeria izanik Juan Domingo Hoyza hirian bete eta egin behar denari buruzko arauak ematen hastea, Berorren Maiestateari bidaltzen diot haren gutunarekin batera, hura ikusirik ebatz dezan hiri horretako kartzelara eraman dadila delako Juan Domingo Hoyza, bertan egon dadin besterik agindu arte. Eta hiriak adierazten duenari buruz, hots, sujet horrek beste herritar batzuk bere alde jar zitezen eskatu izanaz, herrian kezka sorraraziz”.

CVIII. (64. orrialdea)

“hilaren 7an egin zen bilera hau, eta bertan, Hoizaren asmoak jakinik, nahiz eta maila gutxiko pertsona izan bere eraginpean gaizkirako jar baitzitezkeen beste herritar batzuk, neurritsuak, apalak eta begirunetsuak direnak nire aldera (Jose frantzisko Agirre eta Okendo eta Jose Manuel Jauregi alkateen aldera) eta batzarkideen aldera, eta aurreikusiz ezen, egiten ikusi zaizkion izapideen arabera, beste batzuei bere alde jartzeko eskatuz, herritarren artean kezka eta mesfidantza sor zitezkeela eta nahasmena eta iskanbila eta beste ondorio larri batzuk bakearen eta batasunaren kaltetan”.

CIX. (64. orrialdea)

“baizik eta niri komenigarri iruditu zitzaizkidan puntuen azalgarri, eta Hiriak agindu zidan horiek proposatzea. Eta ez baitzen boturik izan, baizik eta niri iruditzen eta eskatu zitzaidanaren iradokizun sinple bat, hiriak oso larritzat jo zuen haren kexua.

Eta nahiz eta bere botuan kontu batzuk izan egitea komeni zirenak, Hiri ezin zen kexatu horretaz, bakoitza libre baita sentipena era onez adierazteko, nahiz eta sentimendu berekoa ez izan, eta inori ez zaio irainik egiten beste sentimendu bat izateagatik, hain baita naturala pentsaera askotarikoak izatea, eta hiriak berak eskatu baitit neure sentimendua azaltzeko.

Eta irizpen hartan nire aldetik inor iraindu zuen hitzik izan balitz, guztiz zurituta utzi nuen hori hiriari aurkeztu nion memorialaren bidez, non inor ez laidotzeko asmoa adierazten bainuen eta onartzen hiriak berak bere gogara zuzen zezala egon zitekeen okerra, men egiten bainion erabat hiriak ebatz zezanari neure irizpenean leudekeen okerrik larrienak ere konpontzeaz.

Eta neure aldetiko asmo lasai eta bakezkoa argi ageri baita, eta ez da arrazoirik niri asmo txarreko deitzeko.

Eta era berean, bai baitirudi nire aldetik ez zela inolako jardunik izan beste batzuk neure alde jartzeko, hori ere egozten baitzait.

Eta istilu, iskanbila, borrokaldi eta beste ondorio larri batzuk, kexuan hainbeste nabarmentzen direnak, ezerezean geratzen direlako hainbeste lekukok diotenaren ondorioz, eta gainera, hiriak berak urriaren hemezortzian emandako aginduaren arabera Juan Bautista Larburu eskribauari eman niolako paperean ageri den data berean eta ondorioz ez zelako izan inolako egonezinik edo istilurik eragiteko biderik”.

CX. (67. orrialdea)

“akusatuaen arreba Maria Josefa Oizaren etxean zerbitzari zegoelarik, gizonak amodio eskea egin zion, berarekin ezkunduko zelako promes eginez eta hitza emanez”.

# STM

San Telmo Museoa

# HARRIZKO AURPEGIAK

## MUNDU GALDU BATEKO BIOGGRAFIAK

**Argitaratzailea**

San Telmo Museoa, Donostia Kultura

**Ikerketa**

Juan Carlos Mora, Ereiten KZ

**Oroitarrien argazkiak**

Ricardo Iriarte

**Itzulpena**

Iñaki Iñurrieta

**Maketazioa**

Ytanos

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)  
@santelmomuseo

**donostiakultura.com**

